

Goienkaria

2007ko ekainaren 1a > Egubakoitza > VII. urtea > 290. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Gure ibarrean,
Debagoienean,
ohiko bilakatu
den gaia
da lur
kutsatuena"

Juan Arbulu
Biologoa > 09



HAUTESKUNDEAK 07

Herritarren iritzia jaso dugu domekako emaitzen harira > 02-03

EROSKI

Ibarreko hamargarren jaki denda zabaltzear, Bergaran > 05

ELKARTASUNA

Afrikaren gaineko astea egingo du Arantzazun Baketik fundazioak > 06

ABIADURA HANDIKO TRENA

AHTren kontrako taldeak topaketa egingo du bihar Bergaran > 06

Kilometroen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 16 orriko gehigarria Bergarako Kilometroen gainean.



ESKORIATZA > XI. FERIXIE

Eskoriatzako azokan 90 saltokitik gora bihar, zapatua

Herriko azoka garrantzitsuen egingo dute bihar Eskoriatzan. Azoka oso herrikoia da, eta horixe da horren arrakastatsua izatearen arrazoietakoa bat. Askotariko 90 saltoki eta hainbat ekitaldi egingo dira herriko kaleetan. 10:30ean hasiko da. > 15 eta 34

JAIA > TRIKITIXA EGUNA

Trikitilariak Bergaran batuko dira

Bihar Debagoieneko III. Trikitixa Eguna ospatuko dute > 45

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarrizketa > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-41
- Kultura > 45
- Sailkatuak > 46
- Eskelak > 47
- Denbora-pasa > 48
- Gazteak > 50
- Komunikazioa > 51
- Telebista-Irratia > 52
- Non-zer > 54-55



ANTOLATZAILEAK Jaialdiaren III. ekitaldia Aretxabaletan ospatuko da. Irudian, antolaketa taldeko ordezkariak jaiaren kartelarekin.

XABIER URTZELAI

G2a > III. MUNDUMIRA JAIALDIA

Munduko kulturen festa Aretxabaletan

MUNDUMIRA Kale ikuskizunak, kultura, mendia eta elkartasuna dira egitarauaren ardatz nagusiak

MUSIKA Protagonismo berezia du: mundu osoko doinuak batuko dira; besteak beste, Kiko Veneno

Gaur hasi eta domekara bitartean Mundumira jaialdiaren hirugarren ekitaldia ospatuko da Aretxabaletan. Munduko kulturen topaleku bihurtzea eta, aldi berean, Debagoieneko natura eta kultura baliabideak ezagutzera ematea da Mundumiraren helburua. Egitarau zabala prestatu dute: kale ikuskizunak, musika emanaldiak, natura ibilbideak eta elkartasunerako tartea izango dira, besteak beste. > 43-44

Mondeo gama: kontsumoa 5,8-9,3 l/100km. CO2 emisioak 199-326 g/km.

Ford Mondeo berria Feel the difference

Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g.
ARRASATE-MONDRAGON

Bat nahi dut

ARKAUZ
GRUPO
ARETXABALETA 1950-2007 ARRASATE

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE-MODEL
ALTZARIAU
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ARKAUZ
MUGELAK
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Etexko aldaketekin amesgaiztoak? Har ezazu lo goxo! Esperientziadunak gara. Arkauz etxearekin ederto amestuko duzu.

Arkauz zure etxea da.

HAUTESKUDEAK 07 > EMAITZEN GAINEKO HERRITARREN BALORAZIOA

Emaitzengatik edo abstentzioagatik, hauteskondeek harridura sortu dute

1 Zeure udalerrian espero zenuen horrelako emaitzarik?

2 Hauteskundeetako emaitzak eskuan hartuta, ze balorazio egiten duzu?

3 Zelan ikusten duzu etorkizuna? Zelan eratu udalak?



Kepa Lizarralde
Irakaslea / Aramaio



Alaitz Jauregi
Hezitzailea / Antzuola



Andoni Urtzelai
Telebistako errealizadorea / Aretxabaleta



Igor Ezpeleta
Irakaslea / Eskoriatza

"Herrian gutxiak aurreikusten zuten horrelako aldaketa"

1 - Nik ez nuen espero horrelako aldaketa bortitzik, eta uste dut herrian gutxiak aurreikusten zutela horrelakorik. Orain arte EAJ-EA koalizioak indar handia izan du, eta Aramaion EAE alderdiak gehien-oso lortu du.

2 - Batetik, nire ustez azken lau urteotan udaletxean egin den lana ezkutukoa izan da. Ez dut esaten lan hori ondo ala txarto egin denik, baina ezkutukoa izan da, ez da herritarren begi bistan egon. EAEko hautagaiek, berriz, argi utzi zuten udaletxeko atear irekitzeko asmoa zeukatela, eta nik uste dut, neurri baten, jendeak horregatik egin duela euren alde.

Horrez gain, AHTren gaineko proiektuak ere eragina izan duela uste dut. Aramaion herritarrek ez dute gura horrelako proiekturik, inork ere ez. Eta, jendeak proiektu horren ardura duen alderdia zigortzea erabaki duela uste dut.

3 - Esango nuke udaletxera sartu behar direnak lanerako ilusioz eta gogoz daudela. Jende gaztea da, aurpegi berriak, eta herritarrek udaletxeko gestioa guztion begi bistan egotea gura dute. Aramaio txikia da, eta hemen jendeak egiten denaren berri izatea gura du.

"Uste dut Antzuolak aldaketarako beharra daukala"

1 - Dudatan nengoen, ez neukan oso argi Antzuolan zelako emaitzak irtengo ziren, batez ere azken urteotan izandako joera ikusita. EAE alderdiak alde handiaz irabazi du, eta hori ez nuen espero.

2 - Nire ustez, hauteskundeetako emaitzei begiratuta herrian egongo den aldaketa positiboa da. Esango nuke Antzuolak horrelako aldaketa behar duela orain. Orain arte Udalean egon direnek erabaki asko hartzeko orduan ez dituzte herritarren iritziak kontuan izan, eta, neurri batean, uste dut botoa emateko orduan jendeak hori kontuan izan duela.

3 - Nik uste dut hemendik aurrera gauza askotan herriak hobera egingo duela, gauzak egiteko mentalitatea aldatu egingo dela. Udalean egongo direnak lanerako gogoz sartuko dira, eta gogo horrek inguruko langileak ere kutsatuko dituela uste dut. EAJko hautagaia ikusi dut telebistan EAEko hautagaia alkate izateko gazteegia dela esaten. Ni ez nago horrekin ados, gazteok ere gauza gara-eta horrelako lanak egiteko. Egia da ez dutela esperientziarik, baina esperientzia handiagoa daukatenekin elkartuko dira. Nik uste dut merezi dute-lau aukera bat.

"Oraingoa bai dela legez kanpkoa, botatuena kanpoan egotea"

1 - Ez dakit zer esan. Arrasaten imajinatzen nuen EAE-ANV alderdiak boto asko jasoko zituela, baina Aretxabaletan, legez kanpo egonda, ez nekien jendeak zelan erantzun behar zuen. Baina, legez kanpkoa izanda ere, jendeak alderdi horren alde egin du, alde handiaz gainera.

2 - Nik uste dut EAEk haserre dagoen jendearen botoa jaso duela. Haserre demokratikoak ez diren hauteskundeak direlako, haserre lehenagoko udal gobernua egindako lanarekin... Nik uste dut EAJri ez diotela onik egin azken asteotan Ogasunean egon diren lapurreta kontuak, eta ezta ere alderdi horrek dituen plan estrategikoak: AHT... Horrek eragina izan du, eta proiektu horiekin jarraitu behar duten edo ez hausnartu beharko lukete.

3 - Egoera ez da batere samurra. Batetik, oraingo egoera da benetan ilegala, boto gehien jaso duen alderdia kanpoan egotea. Panorama eskizofrenikoa da, anormala. Ez dakit Aralarrek ze punturaino har dezakeen alkatetza hori, Alderdien Legearen kontra egonda. Udalbatza ez osatzea izan daiteke irtenbide bat? Ez dakit zein den mekanismo aiposena.

"Paktuak egin behar izatea ona da herriarendako"

1 - Egia esateko, EAE-ANV legez kanpo utziko zuten edo ez, horri jarri diot arreta. Bestela, egia da hauteskondeei ez die-dala kasu handirik egin, eta aurretik ez nekala emaitzen gaineko konturik eginda.

2 - Zalantzak zeuden EAE aurkezten utziko zuten ala ez, eta horren aurrean jendeak gogor erantzun duela uste dut. Bestalde, esango nuke herritarrek dezepzionatuta zeudela udal gobernua egindako lanarekin, eta hortik etorri dela abstentzioaren zati bat, nekatuta zegoen jendea ez dela botoa ematera joan. Bestalde, Eskoriatzan PPK nabarmen egin du behera. Jendea hasi da konturatzen alderdi horrek Espainian boto asko baditu ere, politikoki isolatuta dagoela.

3 - Eskoriatzan EAEk atera ditu zinegotzi gehien, baina ez du gehien-oso, eta hori herriarendako ona dela pentsatzen dut. Paktuak edo akordioak egin behar izateak esan gura du udal homogeneoagoa izango dela, beste alderdi batzuen iritzia ere kontuan hartuko dutela, eta, alde horretatik, nahasketa aberasgarria dela uste dut. Izan ere, gehien-oso daukaten alderdiak lasaitu egiten dira, eta hainbat adibide daude hori erakusten dutenak.

egongelako altzarien **PROMOZIOA**



%12

ko **Deskontua ekainaren 30 arte**
Terra eta Sunkai bildumetan

Zerkaosteta 16, Arrasate www.marrubi.com 943 798367



Joxe Arantzabal
Irakaslea / Arrasate



Haritz Gallastegi
Kazetaria / Elgetan



Jokin Zubia
Kazetaria / Oñati



Elena Laka
Abokatua / Bergara

"EAE, EAJ eta Alderdi Sozialista berdinduago ikusten nituen"

1 - Egia esateko, ez nuen uste horrenbeste alde egongo zenik. Hauteskundeek emaitzak jakin aurretik pentsatzen nuen EAJ, EAE-ANV eta Alderdi Sozialista berdinduago egongo zirela. Besteak, bai, gutxi gorabehera uste bezala irten dira.

2 - Garbi ikusten da Arrasateko herritarrek ez daudela batere konforme aurreko gobernu taldearen gestioarekin, eta hauteskundeetako emaitzek erakusten dute udalbatza aldatzeko gogo garbia erakutsi dutela. Askok eta askok EAE-ANV aukeratu dute alternatibatzat aginterako –kanpaina horretan izan den alderdirik dinamikoa, eta zerikusirik ez duena aurreko agintaldian egon diren gorabeherekin–, eta zigortu egin dituzte aurreko gobernuan parte hartutako alderdiak: EAJ, EA eta Aralar. EBk oso ondo kapitalizatu du oposizioan egin duen lana, eta sozialistek, berriz, ez dute jakin horretan asmatzen. Horrez gain, EAJ eta EA banatuta aurkeztu izanak ere izan du eraginik bi alderdi horien emaitzetan.

3 - Etorkizunari dagokionez, alderdiek abilezia erakutsi beharko dute negoziatzeko, inork ez baitauka erabateko gehiengorik. Alde horretatik, une interesgarriak bizi izango ditugu egun hauetan. Horrekin batera, aprobetxatu beharko lukete hausnarketa sakona egiteko, batez ere EAk eta Aralarrek, Mondragoen, behintzat, desgertzeko zorian dute-eta.

"Aralarrek nik uste baino errazago irabazi du Elgetan"

1 - Aralarrek Elgetan hauteskundeak irabazi izana ez da harrigarria. Duela lau urte alderdi hori ezustekoa ematear egon zen. Hala ere, egia da ez nuela espero horrenbeste alde egongo zenik Oxel Erostarbe eta Patxi Basauri buru izan dituzten zerrenden artean. Aralarrek nik uste baino errazago irabazi du.

2 - Hauteskundeetako emaitzei begiratu gero, bi irabazle eta galtzaile bat ikusten ditut. Alde batetik, Aralar eta EAE-ANV alderdiak dira irabazleak. Lehenengoa boto gehien eskuratu duen alderdia izan da. ANVk, oster, duela lau urte Auzolanianek baino 47 boto gehiago eskuratu ditu. Bestalde, Elgetako Abertzaleak izan da galtzailea. Alderdi horrek aurreko udal hauteskundeetan baino %16 boto gutxiago izan du eta indar nagusia izateari utzi dio. Emaitza horiek ikusita, bistan da elgetarrek aldaketaren aldeko apustua egin dutela.

3 - Nire ustez, hauteskundeetako irabazleak gehiengo osorik ez izatea ona da herriarendako. Horrek esan gura du egitasmo guztiak adostu egin beharko dituztela. Ez dirudi erraza izango denik paktuak egitea. Oxelek merezi du aukera bat. Herriko egunerokoa oso inplikatur dagoen gaztea da. Gauzak txarto egiten baditu beste bi alderdiek izango dute Aralarren proiektuak atzera botatzeko aukera eta ardura.

"Emaitzek baino gehiago, egon den abstentzio handiak harritu nau"

1 - Emaitzak baino gehiago, egon den abstentzio altuak harritu nau. Oñatin, hamar lagunetik lau ez dira botoa ematera joan, eta niretako datu oso deigarria da hori. Nik parte-hartze handiagoa egongo zela uste nuen, baina ez dakit jendea hauteskundeekin nazkatuta dagoen edo...

2 - Abstentzio horrek EAJ eta EA alderdiei egin die min handien, aurreko hauteskundeekin alderatuta boto asko galdu dituzte-eta. Nik uste dut jende asko haserre zegoela, eta euretako askok ez botatzea erabaki dutela; beste askok, berriz, Ezker Batua-Aralar aukeratu dute, horiek zinegotzi bat izatetik lau izatera pasako dira-eta. EAJren jaitsieran, adibidez, uste dut Irungo Ogasunean gertatutakoak eragina izan duela. Hala ere, Debagoieneko beste herri batzuekin alderatuta, Oñatin aldaketa ez da horren handia izan.

3 - Etorkizunari begira, uste dut bideak eraiki behar direla EAE-ANV alderdiak Udaleko erabakietan parte har dezan. Izan ere, ez dakit zen punturaino den onargarria ia 1.300 boto jaso duen alderdia ordezkari barik geratzea. Azken batean, hauteskundeetako emaitzak distortsionatuta daude, eta uste dut alderdi guztiek ahalegina egin behar dutela etorkizunean horrelako egoerarik errepika ez dadin.

Udala osatzeko orduan, berriz, uste dut EAJ eta EA batu egingo direla, orain arte ondo konpondu dira-eta.

"Gobernu plural bat herritarren mesederako dela uste dut"

1 - Iruditzen zait hauteskundeek emaitzak Bergaran ezustekoa izan direla ia guztiendako, bai alderdiendako eta baita botoa eman dutenendako ere. Herrian zebilen bolo-boloaren arabera, bazurdiaren EAJren zerrenda izango zela boto gehien jasoko zuena, eta beraz alkatetza eskuratuko zuena. Oraingo emaitzak ikusita, baina, nabari da hauteskundeak irabazteko gauzak egintzat ematea baino zerbait gehiago egin behar dela.

2 - Emaitzetan ikusi da, hala ere, domekan botoa eman zuten artean aldaketa gogoia zegoela. Nik uste dut EAE-ANVk kanpaina ona egin duela, jende baliotsua aurkeztu du zerrendetan, eta egoera politikoaren presioaren aurkako erreakzio moduan, botoetan irabazi egin du. Hori horrela, gainerako alderdiek autokritika egin beharko dute, boto kopuruan behar zergatik egin duten ikusteko.

Horrekin batera, komeniko litzateke alderdi guztiek ere hauteskundeetan izan den abstentzio kopuru altuaren inguruko gogoeta sakona egitea.

3 - Hemendik aurrera, Bergarako udal-txean gobernatzeko aukeraren gainean, iruditzen zait zerrendarik botatuenak eskuratu beharko lukeela alkatetza, gainerako indarrei aukera emanaz gobernuan egoteko. Izan ere, gobernu plural bat herritar guztien mesederako dela uste dut.



Atera zukua udari !

UDAKO IKASTAROAK
Uztailaren 2tik 27ra

AKADEMIA

BASTIDA

INFORMATIKA

MEKANOGRAFIA

ADMINISTRAZIOA
Kontabilitatea,
Nominak,
Contaplus,
Nominaplus

INFORMATIKA EKIPAMENDUEN KONPONKETA

INGENIARITZA
Dinamika, Kalkulu,
Erresistentziak, Fisika,
SolidWorks, Aljebra,
Termodinamika,
Mekanismoak

DISEINUA
Photoshop, Flash,
Dreamweaver, Autocad

LAGUNTZA KLASEAK
DBH, Batxillergoa,
Enpresa Zientziak



ISO 9001:2000



Araba etorbidea, 3-1º · 20500 · Arrasate-Mondragón · ☎ 943 79 35 33 · Fax: 943 79 06 28 · ✉ bastida@bastida.es

INGURUMENA > EKAINAK 5, MARTITZENA, INGURUMENAREN MUNDUKO EGUNA DA

Ingurumenaren Munduko Eguna ibarrean ere ospatuko da

Arrasaten Aste Berdea antolatu dute; Arizmendik, bestalde, lur kutsatuen gaineko ikasketak aurkeztu ditu

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Datorren martitzenean, ekainaren 5ean, Ingurumenaren Munduko Eguna da. 1972. urtean egin zuen izendapen hori Nazio Batuen Erakundeak. Debagoienean ere ospatuko dute egun hori. Batetik, Arrasateko Udalak Aste Berdea antolatu du. Bestetik, Arizmendi Ikastolak iragarri du lur kutsatuen gaineko formazioa ezarriko duela datorren ikasturtean, 2007/2007 ikasturtean, hain zuzen ere.

ASTE BERDEA

Ekainaren 5a eta ekainaren 10a bitartean hainbat ekitaldi egongo dira Arrasaten, Aste Berdearen egitarauaren barruan.

Martitzenean, umeendako kontsumoaren eta klima aldaketaren gaineko tailerrak egongo dira Seber Altuben, 17:00etan. 19:00etan, Kulturaten, klima aldaketaren gaineko *Una verdad incómoda* filma eskainiko dute.

Ekainaren 7an, eguna, horma-irudi handi bat egingo dute neska-mutikoek, birziklatutako



ERREKAK lazko Aste Berdean, erreka garbitu eta gero batu zuten zaborra pilatuta erremolke gainean.

GOIENKARIA

materialarekin. 19:00etan, Kulturaten, Energiaren Euskal Erakundeke Enrique Monasteriok berbaldua egingo du, bioerregaien etorkizunaren gainean.

Egubakoitzean, 17:30ean, *Glup* filma eskainiko dute Kulturaten. 19:00etan, toki berean, *Basajaunaren Ametsa* filma ikusi ahal izango dugu. Basoen eta gizakiaren eraginaren gaineko filma da.

Zapatu goizerako mendi irteera antolatu dute; 09:00etan uda-

letxe aurretik abiatu eta Ekutioarroa mendira (Ikutixo) joango dira.

Ekainaren 10ean, domeka, amaituko da Aste Berdea, ekimen berezi batekin. Eroski alboan, erreka garbituko dute. 10:00etan hasiko dira lanean. Ekimen horretan parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute, honako telefono zenbakira deituta edo posta elektronikoa honetara idatzita: 943 25 20 09 edo agenda21@arrasate-mondragon.net.

LUR KUTSATUAK, IKASGAI BERRIA

Arizmendi Ikastolak iragarri du datorren ikasturtean ikasgai berria eskainiko duela: lur kutsatuen gaineko ikasgaia. Kimika zikloko ikasleek, hain zuzen ere, izango dute ikasgai hori, euren formazioaren osagarri moduan. Era horretan, Arizmendiko arduradunek nahi dute euren ikasleak gai horren gaineko oinarriko espezialistak bihurtzea, lurren kutsadurak azkenaldian hartu duen garrantzia ikusita.

ONDAREA

Gandiaga II eraikin berria Arantzazun

Erakusketetarako eta bisitariei zerbitzu egiteko erabiliko dute

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Gandiaga II izeneko eraikina egiteko lehen urratsa egin dute Arantzazuko Frantziskotarrek. Hain justu, Foru Aldundiak Gandiaga II eraikinaren proiektua egiteko 150.000 euroko laguntza eman die maiatzaren hasieran. Gandiaga II eraikina erakusketak egiteko eta bisitariei zerbitzuak eskaintzeko izango da, gehienbat.

Horrez gain, Hospederian ere hainbat lan egitekoak dira. Oso egoera kaskarrean zegoen, eta berritze lanak egingo dituzte. Asmoa da lanok datorren udaberrirako bukatzea.

ARANTZAZU SUSPERTZEN

Seminario zaharraren instalazioak eta inguruak susperetzeko prozesuaren parte dira Gandiaga II eraikitzea zein Hospederia berritzea.

Gandiaga I eraikina jarri zuten aurrena abian, eta bertan bilkurak zein kongresuak egiteko gelak eta erakunde-entzako bulegoak daude: Baketik, Naturgintza, Arantzazuko Lagunak eta abar.

Arizmendi Ikastolako LANBIDE HEZIKETA
gure profesionalak

aurrematrikula epea zabalik ekainak 1etik 7ra

>> erdi mailako zikloak <<
ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

>> goi mailako zikloak <<
ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
ANALISIA ETA KONTROLA
INGURUMEN KIMIKA

Arizmendi
ikastola

902 11 20 25
informa zaitez!

www.arizmendi.ikastola.net/lanbide

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Janire Urbieta
Enpresen Administrazio eta
Zuzendaritzako ikaslea.
Proiektua lacor/ibili enpresan.

"Errealitatean gertatzen
diren arazoei irtenbideak
aurkitzeko oso egokiak dira
praktika hauek"

nolako ikasketak, halako etorkizuna

www.mondragon.edu/etorkizuna

MERKATARITZA > BERGARAKO EROSKI CENTER BERRIA EPE LABURREAN ZABALDUKO DUTE

Bergarako Eroski berriko langileen erdia baino gehiago ingurukoak dira

1.756 metro karratuko denda berria, jateko zein garbiketa egiteko produktuak izango dira

Bergarako eta inguru hurbileko kontsumitzaileei zuzenduta dago

MIRIAN BITERI > BERGARA

Lanak amaitzean daude Bergarako Leizeaga industrialdean zabalduko den Eroski Center supermerkatu berria. Orni eta Carpinsa enpresak zeuden eraikinean dago kokatuta. Azken ukitu batzuk baino ez dira geratzen. Izan ere, Eroski Taldeak datozen asteotan zabaltea espero du.

Era berean, salmenta-gune horretarako kontratatutako 53 pertsonetatik, erdia baino gehiago inguruko gizon-emakumeak direla jakinarazi du Eroskik. Leizeagako eraikinean egindako inbertsioa, bestalde, hiru milioi eurotik gorakoa dela gaineratu du.

Astelehenetik zapatara bitartean egongo da irekita Eroski Center berria, 09:30etatik 21:30ak arte. 1.756 metro karratu izango ditu. Oro har, jateko eta garbiketarako egiteko produktuak salduko dituzte hantxe.

Okindegia, urdaitegia, harategia, arrandegia, frutategia, zerbitzu libreak, esnekiak, janariak, likidoak eta drogeriako sailak. Horrela egongo da banatuta denda berria.

3.500 PRODUKTUTIK GORA

Guztira, 3.500 produktu baino gehiago aurkituko ditu kontsumitzaileak. Baina, esan bezala, arroparik eta etxetresna elektrikorik ez da izango Leizeagan. Arrasateko Hiper Eroskira joan behar da horrelakorik gura duenak, produktua Eroski dendetan erosi gura badu, behintzat.

Zentro horren jardun-eremua Bergarari berari eta inguru hur-



EROSKI CENTER Supermerkatu berria Leizeaga industrialdean dago.

E.A.

bileko kontsumitzaileei zuzenduta dago. Gipuzkoan, aipatutako ezaugarriak dituen 28. establezimendua da Leizeagakoa.

Doako 180 auto-aparkaleku baino gehiago izango ditu. Ezin duen ere aparkatzeko leku bereziak izango dituzte salmenta-areto sarrera ondoan.

BIDEBERRIKO EROSKI

Industrialdeko supermerkatuaz gain, Bergarako Bideberri ibilbidean dagoen Eroski berri eta handitu egingo du taldeak. Gaur egun 1.299 metro karratu ditu, eta 537 metro handituko dute denda.

DEBAGOIENA

Bailara osoan, guztira, lau Eroski Center daude, Bergaran, Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan. Hiper eta Eroski City bana du taldeak. Lehena Arrasaten dago eta bestea Antzuolan. Aliprox denda sarearen barruan, Bergarako

Toki Eder, Aretxabaletako Lora-mendi eta Eskoriatzako Eskoriatza aurki daitezke.

EROSKI TALDEA

Eroski Taldeak 190 milioi euroko irabaziak izan zituen iaz. %33 hobetu ditu 2005eko ekitaldikoak. Inbertsioetan 612 milioi euro gastatu zituen.

Merkataritza-sarea handitzen eta modernizatzen erabili dute hori, banaketa-zentroak ireki eta

merkatartitza-zentroak sustatzen. Iazko ekitaldian 88 denda zabaldu zituzten. Hipermerkatu eta supermerkatuek gain, lurrin-dendak, bidaiabulegoak, gasolindegia eta kirol dendak ireki zituzten, baita hiru merkatartitza-zen-

tro ere Mieresen (Asturias), Nueva Condominan (Murtzia) eta Torrelodonesen (Madril).

Merkataritza-sarean 1.835 establezimendu ditu taldeak Espainiako Estatuan. Bestalde, gaur egun 32.652 langile ditu.

INGURUMEN SARIA

'Consumer Eroski' dela-eta, saria lortu du Eroski Fundazioak

Eroski Fundazioak Murtziako Erregioiko Kontsumo Iraunkorren saria jaso du, kazetaritzaren atalean, *Consumer Eroski* aldizkariaren zein web orrian ingurumenaren alde egiten duen lanagatik. Sariak I. Ingurune Erantzukizun eta Garapen Iraunkorren Foroaren esparruan banatu dituzte.

Consumer Eroski-k lehenago ere jaso izan ditu hainbat sari ingurumenari buruz egiten duen informazioagatik. 2003ko abenduan IV. ECOVIDRIO saria lortu zuen Interneteko birziklapen eta ingurumenari buruzko informaziorik onenagatik. Joan zen urteko otsailan, Espainiako Ingurumen Ministerioaren menpe dagoen Biodiversidad Fundazioak biodibertsitatearen inguruko erreportaje saria jaso zuen.

GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP. ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

DEIALDIA

Honen bidez, 2007ko ekainaren 7an, osteguna, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako dei egiten dut.

Batzarra Arrasateko Kulturaren izango da, arratsaldeko 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarren.

GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2006ko ekainaren 1eko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2006ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2006ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
6. 2007ko kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea.
7. Borondatezko ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena.
8. Hasiarako ekarpenak eta bazkideen sarrera kuota eguneratzea, KPIa hartuaz eguneratze indizetatzat.
9. Estatutuen 9. artikulua aldatzea. Bazkideek, aldakuntzaren testu osoa eta proposamenaren arazoak biltzen dituen txostena GOIENAREN egoitzan aztertze eskubidea dute.
10. Mireia Larrañaga Guridi eta Edu Mendibil Garate lan bazkideen ordezkarien agintealdia 2010 urtera arte berretsi Kooperatiben eroldaren gomendioz.
11. Galderak eta eskaerak.

Errektore Kontseiluko lehendakaria.

Arrasaten, 2007ko ekainaren 1ean.

Eroskik ibarrean dituen jakien dendak

HERRIA	KOPURUA	MARKA
Arrasate	2	Hiper Eroski Eroski Center
Bergara	2	Eroski Center
Oñati	1	Toki Eder Eroski Center
Aretxabaleta	2	Eroski Center Loramendi
Eskoriatza	1	Eskoriatza
Antzuola	1	Eroski City

ITURRIA: EROSKI TALDEA

BAKETIK > EKAINAREN 4TIK 10ERA, AFRIKA PROTAGONISTA

Afrikarekiko elkargune izango da Arantzazu

Afrikaren gaineko ikastaroa, hitzaldiak eta kontzertuak izango ditugu aste osoan Arantzazuko Gandiaga Topagunean

AINTZANE IRIZAR > OÑATI

Datorren astea, ekainaren 4tik 10era bitartekoa, Afrikaren gaineko izango da Arantzazun. *Arantzazu, Afrikarekiko elkargune* izenburuaren pean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Baketik Arantzazuko bakearen aldeko fundazioak eta Tau fundazioak. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Sailaren, San Egidio Komunitatearen eta gobernuz kanpoko hamar bat erakunderen laguntasuna izan dute horretarako.

ASTE OSOKO IKASTAROA

Ekitaldi ugari antolatu dituzte aste osorako. Batetik, Afrikako errealitatera hurbiltzeko ikastaroa egongo da aste osoan. 18:00etatik 20:00etara izango dira eskolak, Gandiaga Topagunean. Ikastaro horretan hainbat gai landuko dituzte, hala nola histo-

ria, demografia, egoera politikoa eta ekonomikoa, giza eskubideen eta tragedia humanitarioren ikuspegia, gerrak eta gatazkak, gosea, hiesa eta abar. Gatazkei dagokienaz, aztertuko dituzte, besteak beste, honako herrialdeetako kasuak: Mozambike, Ekuatore Ginea, Liberia, Sierra Leona, Sudan eta Laku Handiak.

Hainbat aditu arduratuko dira egunero ikastaroa emateaz: Ferran Iniesta, Mbuyi Kabunda, Jesus Romero eta Itziar Ruiz-Gimenez, hain zuzen ere.

HAINBAT HITZALDI ETA EKITALDI

Ikastaroaz gain, baina, hainbat hitzaldi eta bestelako ekitaldi izango ditugu asteburuan, ekainaren 9an eta 10ean.

Zapatuan, ekainak 9, Mbuyi Kabundak hitzaldia egingo du *Afrika globalizazioan* izenburupean. 11:30ean izango da berbal-

di hori. Ondoren, herri bazkaria egingo dute eta arratsalderako beste ekitaldi bat iragarri dute: Oskar Epelde kazetari arrasatearraren *Salomonen diamantea* dokumentala estreinatuko dute. Eguna bukatzeko, 18:30ean, Mamadu Cissoko talde afrikarrak kontzertua egingo du.

Domekan, bestalde, 10:00etan, mendi irteera egingo dute Arantzazu inguruan. Eguerdian emango diote amaiera Afrikaren gaineko asteari, antolatzaileen mezuarekin eta M'Lomp Elkarte Kulturalaren musika saioarekin.

Zapatuko hitzaldira, herri bazkarira eta dokumentalaren estreinaldira joan ahal izateko, izena ematea beharrezkoa da. Baita ikastaroan parte hartzeko ere. Honako telefono zenbakira deitu behar da: 943 25 10 05. Ikastaroan parte hartzeko 30 euro ordaindu behar da. Herri bazkaria, bestalde, 15 euro ordaindu behar da.

Azkenik, erakusketa bat ere jarriko dute asteburuan zehar. Erakusketa horrek aukera eman digu hainbat Gobernu Kanpoko Erakundek Afrikan egiten duten lana ezagutzeko.

AFRIKA HURBILTZEA HELBURU

Ekimen horren helburua da Afrikarekiko dugun ikuspuntua aldatzea eta elkartasuna areagotzea. Era berean, antolatzaileen ustez, lagundu diezaguke gure errealitatea eta gatazkak beste ikuspuntu batetik begiratzen.

BAI EUSKAL HERRIARI > NAZIOTASUN EGUNA

Debagoiengan 5.000 EHNA egin dituzte dagoeneko

Bihar, ekainak 2, Naziotasun Eguna ospatuko dute Laudion, Araban

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Bihar Laudion ospatuko duten Naziotasun Egunean parte hartzeko dei egin du Debagoiengoko Bai Euskal Herriari taldeak.

Bai Euskal Herriari herri mugimendua 2000. urtean sortu zen eta Udalbiltzari eskaera egin zion EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena) tramitatzeko, 127.000 sinaduraren babesarekin. Ordutik hona 5.000 tramitatu dituzte Debagoiengan eta EHNA onartzen duten komertzioen gaineko bi gida argitaratu dituzte, Bergaran eta Arrasaten. Laster, Aretxabaletan ere argitaratuko dute.

AHT > BERGARAKO GAZTETXEAN IZANGO DA

AHTren aurkako topaketa antolatu dute zaturako

Gaztetxeak topaketa hartuko du eta domekan Udaltzera martxa egingo dute

ko eztabaida batekin. Ondoren, lantaldeak egingo dituzte. Bakoitzak gai bat landuko du: antolaketa eta auto-organizazioa, komunikazioa eta informazioa eta borroka moldeak. Arratsaldean, talde bakoitzak landutako az hitz egingo dute guztiek.

M.B. > BERGARA

AHTren aurkako topaketa egingo dute zapatuan Bergaran. Ekitaldia 10:00etan hasiko da, gaztetxean, egungo egoerari buruz-

Domekan, AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, Udaltzera martxa egingo dute. Elorriotik 08:30ean eta Atxondotik 09:00etan irtengo dira.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

EKONOMISTAK

ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA

ESKORIATZA / Hoidalga kalea 22, behe
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN

BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA



Ekainaren 16an Bilbon egingo den jaialdiaren kartela.

GOIENKARIA

Topagunearen 10. urtemuga ospatzeko ekimen ugari egongo da

DEBAGUNE > BERGARA

Topaguneak, Euskara Elkarten Federazioak, hamar urte bete ditu aurten. Zehazki, 1997. urteko otsailean eratu zen. Durangon egindako sorrera ekitaldi hartan, 30 bazkide bildu ziren. Haien helburua herri eta eskualdeetan zeuden euskara elkarten arteko harremana sustatzea zen, baita hizkuntzaren aldeko egitasmo bateratuak antolatu eta zerbitzuak eskaintzea ere.

Asko aldatu da ordutik hona Topagunea. Gaur egun, 90 bazkide ditu Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan. Horien artean, Debagoieneko euskara elkarte gehienak daude, hala nola Arrasateko AED, Bergarako Jardun, Oñatiko Laixan eta Aretxabaletako Loramendi. Hamar urte hauetan asko izan dira Topagunean martxan jarritako proiektuak, euskara elkarten jarduera eremu guztietan.

Horren adibide dira, besteak beste, kultura ikuskizunekin loturikoak: Kultur Errota eta film laburrak, besteak beste. Haurren eta gazteen aisialdiaren inguruan ere ez dira gutxi izan; horien artean, *ateburuetan.com* eta mota askotariko tailerrak aipa daitezke. Mintzapraktikari dagokionez, berriz, Mintzakide eguna azpimarra daiteke.

KULTUR ERROTA, KALERA

Urteurrena ospatzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hala, datorren ekainaren 16an, Kultur Errota Bilboko Zazpi kaleetara irtengo da. Martxan jarri zenetik, formatu txikiko 1.300 emanalditik gora antolatu izan dituzte elkarrekin Kultur Errota zirkuituaren barruan. Orain, emanaldi horiek kalera irtengo dira.

Horretaz gain, azaroaren 23an eta 24an, jardunaldiak egingo dituzte Donostian. Ekitaldi horietan, euskara elkarteek azken urteetan egindako lanaren bilakaera aztertuko dute. Era berean, datozen urteetarako erronka nagusiak finkatuko dituzte.

Debaguek ez du Topagunea zoriontzeko aukera galdu gura izan. Etorbizunean ere lanean jarraitzeko konpromisoa azaldu diote ibarreko euskara elkarteek.

Gaur egun 90 bazkide ditu Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan

Gure ibarretik AED, Jardun, Laixan eta Loramendi daude Topagunean

GURE CANCHA BULEGOEK IRAULTZA EKARRI DUTE BANKARA

KONTZERTUAK, MAGIA, IPUIN-KONTALARIAK, BOOKCROSSING, GIZARTE PROIEKTUEN AURKEZPENA... ETA FINANTZA AHOLKULARITZA PERTSONALA ZURE AUZOAN. SARTU ARRASATE ETA BERGARAKO GURE BULEGOETAN ETA JAKIN EZAZU ZERGATIK GAREN AURRENDARI GIZABIDEZKO BANKAN.

EKAINEAN, CANCHA GEHIAGO HARTUKO DUZU.

ARRASATE-MONDRAGÓN

GARIBAI ETORBIDEA, 6. TELEFONOA: 943 794630

HILAK 5, ASTEARTEA

18:00 H

Marrztu Arrasate

Haurrendako marrazketa saioa. Ondoren, egindako marrazkiak jarriko dira ikusgai.

HILAK 12, ASTEARTEA

18:00 H

Arrasate Musical

Musika kontzertua, **Arrasate Musical** eskolako ikasleen eskutik.

HILAK 19, ASTEARTEA

18:00 H

O+Hatz: Euskal musika tresnak

Hainbat euskal musika tresnaren aurkezpen didaktikoa (euskaraz) **Iñaki Plaza** eta **Ion Garmendiaren** eskutik.

BERGARA

IBARGARAI KAL A, 7. TELEFONOA: 943 769921

HILAK 4, ASTELEHENA

19:00 H

Dinbi Danba

Jazz akustiko kontzertua.

HILAK 11, ASTELEHENA

18:00 H

Bigarren printzesa

Haurrentzako ahozko narrazio saioa (euskaraz), **Virginia Imazen** eskutik (**Oihulari Klown**).

HILAK 18, ASTELEHENA

18:00 H

Popi, Zarratrako pailazoak eta Fer jauna

Helduendako zein haurrendako ikuskizun komikoa, **Popi** eta **Zarratrako** pailazoaren eskutik eta **Fer** jaunaren laguntzaz. Ikuskizuna gaztelaniaz eta euskaraz izanen da.

canx+

AURRENDARI GIZABIDEZKO BANKAN

gure artekoak

HONDA CIVIC > Civic izenaren atzean, Civic guztiz eraberritua merkaturatu du Honda etxeak, ez estetikoki bakarrik. Arrasateko Tecnocar-en izan gara automobil horrek eskaintzen diguna ezagutzen.

Jesus Zubiaur > Tecnocar-eko Hondaren arduraduna

"Mekanikari dagokionez, automobil ezin hobea da"

AINZANE IRIZAR > ARRASATE

"Segurtasuna da Honda etxeko automobilaren ezaugarri nagusia; horrelaxe hasi du Jesus Zubiaur Arrasateko Tecnocar kontzesionarioko arduradunak azalpena. Honda Civic automobil guztiek, baita sinpleen ere, segurtasun sistema guztiak daukate: ABS balaztak, VSA (trakzio eta egonkortasun kontrola) eta abar. Gainera, suspentsio-sistema oso ondo garatuta dauka, gurpilen arteko distantziak ere sakon aztertuta daude, automobilari egonkortasun handiena emateko; horrek, noski, segurtasuna ematen du gidatzeko orduan.



Jesus Zubiaur, Tecnocar kontzesionarioa, Civic berriarekin.

A.I.

MEKANIKA

Mekanikaren ganean hauxe azaldu digu Zubiaurrek: "Mekanikoki, automobil ezin hobea da; berrikuspenak 20.000 kilometro-ra egin behar zaizkio. Hondak diesel guztiendako diseinatutako mekanika da Civic-ena; urte luze-etako ikerketaren emaitza da". Hiru urte daramatza mekanika horrek merkaturatzea eta ez du batera arazorik eman.

Gainera, motorrak ez dauka banaketa-uhalik. "Beste ezaugarri esanguratsu bat da oso automobil isila dela, eta oso atsegina gidatzeko".

Honda Civic 2.2 CDTI

Prezioa	23.000 eurotik hasita
Luzera	4,27 metro
Zabalera	1,78 metro
Maletategia	485 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,2 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	205 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	8,6 seg.
CO2 isurketak	138 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

ESTETIKA BERRITZAILEA

Aurreko modeloarekin alderatuta, mekanikoki ez ezik estetikoki ere guztiz automobil berria dugu. Deportibo itxura hartu du oraingo modeloak, hiru ate dituenak bereziki. Barrutik ere itxura berritzailea dauka, batez ere aginte-panelak. Gainera, espazio handia dauka bidaiariendako, baita maletategian ere.

Bestalde, teknologia berrienak ditu: aire girogailua, MP3, ordenagailua, GPS, automobila martxan jartzeko botoia eta abar. Teknologia berrien aukera zabalak eskaintzen ditu, benetan.

begi-bistan



Enborren piramidea (Bergara) 2007/05/31

Argazkia: Aintzane Irizar.
Testua: Aintzane Irizar.

San Martzialen eskultura bitxia dago; Udaleko langileek egin dute eta haren izena da *Hildako enborren piramidea*. Funtzio biologikoa ere badu. A!, eta askok hala uste arren, ez da jolas bat.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

etxeko leihotik



Goiatz Arana > GOITBko erredaktore-burua

Heriotzaren atarian ere, ikuskizun bila

Eneko Aritzaren Lagunak taldeko kideak *Sua* filmaren errodajearen murgilduta dabilta azken hiru urtetan, eta, jada, azken grabaketaren atarian daude: Dimako kobazuloetan akelarrea grabatu behar dute bihar, eta parte hartzeko gonbita luzatu diete haur, gazte eta helduei. Debagoienetik ere aterako dira autobusak eta aukera polita izango da, beraz, artista izateko ametsa duten edota telebistan agertzea gustuko dutenentzat. Zergatik ez? Ondorengoei euskal mitologia ezagutzen lagunduko dien proiektu batean parte hartu izanaren sentsazio gozoa geratuko zaie, behintzat, figurante lanak egiten dituztenei.

Hori baino aitzakia dezent txarragoak baliatzen dituzte askok: protagonismo eta diru truk saltzen dute euren intimitatea inoren latsa eraginez. Eta asteon jakin dugu azkena: Herbehereetako telebista saio baten giltzurrun transplantea behar duten hiru pertsona lehia-tzekoak dira gaur organo bat lortzeko, eta sendabiderik ez duen gaixo batek aukeratuko du nori eman. Nahikoa da! Arazo etikoak argudiatuta, saioa kentzeko eskatu diote bi alderdi politikok kateari. Ez dakit zertan geratuko den.

"Transplante bat jarri dute jokoan Herbehereetako telebista saio batean"

> Audentziek babesa ematen diete halako saioei, ordea! Dokumentalak gustuko ditugula esan, eta besteen bizitzan murgiltzeko bidea ematen diguten saioak ikusten ditugu.

> Aste bukaeran telebista ikusi edo errodajearen parte hartu gura ez dutenentzat, berriz, bada beste aukerarik: gaurtik domekara, Aretxabaletan egingo den Mundu-mira jaia. Ondo pasa!

izen propioak



Leire Poyato
GIMNASTA

Arrasate Dragoi gimnasia erritmiko taldeko kideak bigarren postua eskuratu zuen aurreko asteburuan autonomien arteko txapelketan, gazteen mailan. Zintarekin hirugarren sailkatu zen eta mazoekin laugarren. Horrela, aurtengo denboraldiari amaiera bikaina eman dio.



Inazio Ibarondo
OÑATIKO BANDA

Domekan, ekainak 3, Erretiratuen Eguna ospatuko du Oñatiko Pake-Leku Erretiratuen Elkar-teak. Egun horretan estreinatuko da Inazio Ibarondo Oñatiko Musika Bandako zuzendariak erretiratutako konposatutako kalejira, *Pake Leku* izenekoa.



German Kortabarria
ELA SINDIKATUA

Hiru urtez ELAko idazkariorde nagusia izan eta gero, kargua lagako du German Kortabarria oñatiarrak. Komunikazio arduraduna ere izan da Kortabarria. Adolfo Muñozek hartuko du haren lekua. 1988a ezkerreko batzorde exekutiboko kidea izan da Kortabarria.

Aldaketa klimatikoaren ondorioen gaia aditu askoren ahotan dabil. Horri aurre egiteko neurriak hartzearen beharraz ohartarazten dute, beranduegi izan baino lehen. Ingurumenaren Egunaren helburuetako bat arazo horren eta beste batzuen gaineko kontzientzia-zioa piztea da. Juan Arbulu 46 urteko biologo antzuolarraren iritzia jakin nahi izan dugu.

Juan Arbulu > Biologia

"Ingurumenaren gaiarekin, ez dugu kontzientziazioarekin konformatu behar"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Martitzenean, ekainaren 5ean, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatuko da. Horren harira, Juan Arbulu biologo antzuolarrarekin izan gara berbetan. Ingurumenarekiko kontzientzia piztu bada ere, kutsadura jaisteko ekintzak bideratzen jarraitu behar dugula dio Arbuluk. Arizmendi Ikastolan Lanbide Heziketako irakaslea da; hurrengo ikasturtean kimika zikloko ikasleek lur kutsatuen gaia landuko dute, formazio osagarri moduan.

Ingurumenaren Eguna ospatuko da martitzenean. Osasuntsu al dago ingurumena gurean?

Errekei dagokionez, esan behar da gure ingurune hurbilean, Bergaran (Mekolalden) zein Arrasaten (Epelen) ur araztegiak jarriko dituztela martxan aurki. Kontuan izan behar dugu hemen go errekak Europako kutsatuenetarikoak izan direla, eta, zorionez, aurrerapausoak eman dira azken urteotan egoera hori zuzentzeko. Hemendik hiruzpalau urtera aldaketak nabaritzen hasiko garela uste dut. Bestalde, baso edo mendi inguruei dagokionez, bertako flora edo baso autoktonoa da daukagun arazoa, nahiko murriztuta gelditu delako. Pinu beltzak hartu du azalerarik handiena azken 25 urteotan. Foru Aldunditik ari dira poliki-poliki basoak berritzen eta bertako baso autoktonoa sartzen, nahiz eta mendira begiratzerakoan pinu beltzak oraindik toki handia hartu. Ingurumenaren zaintzan eta babesean ematen diren pausoak bide onetik doaz, baina ez dugu etsi behar.

Ingurumenarekiko kontzientziazioa areagotzea da martitzeneko ospakizunaren helburuetako bat.

Bai, horrela da. Gure kasuan, orokorrean, kontzientziazio maila nahiko altua daukagula esango nuke, baina ez dugu horrekin konformatu behar. Ikastetxe eta herri mailan ekintza gehiago egin beharko genituzke. Aldaketak belaunaldi batetik bestera etorriko dira, eta hauxe interesatzen zaigu: gaur egun ikasten ari den belaunaldi horrek indarra hartzea, ingurumenari duen garrantzia eman diezaioten. Azken baten, beraiek izango dira erantzule zuzenak etorkizunean, eta, zenbat eta sentibilizatuagoak egon ingurumenaren gaiarekin, are eta hobeto. Ekintzetara pasatu ahal izateko kontzientziazio lana egitea



Ingurumena zaintzeko ekintzak bideratzen jarraitzea beharrezkoa dela dio Arbuluk.

GOIENKARIA

derrigorrezkoa da, eta gaur egun arreta berezia eskaintzen zaio gai horri.

Tokiko Agenda 21 delakoarekin, zer-nolako lana egiten duzue ikastetxeetan?

Ibarreko herri guztietan Tokiko Agenda 21 ezartzeko lanean ari gara eta arlo asko ukitzen dituzten ekintzak edo ekimenak bideratzera bultzatzen du. Horietao ekintza batzuek hezkuntzarekin lotura zuzena daukate. Gure ikastolak, esaterako, Arrasate mailan bultzatzen ari den Agenda 21eko hainbat ekintzatan hartzen du parte. Ingurumenaren gaiarekin hobe da denok batera, bide beretik jarraitzea, adostasunak lortuz.

Aldaketa klimatikoaren ondorio latzak aipatzen dizkigute behin eta berriz. Egoera hain kezkagarria al da?

Kezkatzekoa bada, bai. Dena dela, badira egoera hau naturala dela dioten zientzialariak ere. Iri-

EKINTZAK

"Ingurumenaren zaintzan eta babesean ematen diren pausoak bide onetik doaz, baina ez dugu etsi behar"

GAZTEAK

"Gaur egun ikasten ari den belaunaldiak ingurumenari duen garrantzia ematea ezinbestekoa da"

LUR KUTSATUAK

"Gure ibarrean ohiko bihurtu den egoera da lur kutsatuena"

tzi kontrajarriak daude gai honen inguruan. Edozein modutan, egia da datu objektibo batzuetan oinarrituta dagoela aldaketa klimatikoaren ondorioen gaia; tenperaturaren igoerarena, esaterako. Urtetan horren jarraipena egin ostean, agerikoa da aldaketa esanguratsuak izan direla han eta hemen eta horren aurrean neurri bereziak hartu behar gaude. Gizakiak badauka berezitasun bat eta da pentsatzea geuk ez baditugu ondorio horiek jasaten, kaltea gure haragitan ez badugu sufritzen, albo batera utz dezakegula arazo hori. Arazo horren ondorioak hurrengo belaunaldi batek pairatuko ditu ziurrenik, baina argi dago arazo bat daukagula. Gainera, goraka datozen ekialdeko hainbat herrialdetan (Txinan, Indian...) izugarriko hondakin kopuru handia produzitzen ari da. Lehen, mendebaldeko herri aberatsak (AEB eta Europa batez ere) ziren horren errudun nagusiak, eta orain beste herrialde batzuk gehitzen ari dira multzo horretara.

Zeintzuk dira bete beharreko urrezko arauak ingurumenari dagokionez?

Ingurumenarekiko begirunea izatea, ahalik eta hondakin gutxien produzitzea eta produzitutakoak modu egokian biltzea eta energia kontsumoa erantzukizunez egitea, aurrezte zainduz. Alegia, garapen jasangarriaren aurrekusten diren aspektuak zaintzea komeni da.

Lur kutsatuen gaia landuko duzue hurrengo ikasturtean Arizmendin.

Gure ibarrean ohikoa bihurtu den egoera da. Garai batean industriak herri erdian ziren eta horrek arazo bat ekarri du: urtean hondakinak botatzen zituztela inguruan inongo kontrolik gabe eta horren erruz kutsatuta daude lur eremu asko. Bertan edozein eraikuntza egin aurretik, lurra behatu, ikertu eta analizatu behar da orain. Ondoa kooperatibaren laguntzaz formazio osagarri hori eskainiko dugu.



zabalik

Estepan Plazaola

Hauteskunde gaua

Hauteskunde gauak gustatzen zaizkienetakoa naiz. Iluntzeko 8etan hedabideek aieratzen dituzten sondeoen emaitzen zain egon ohi naiz, jakin minez.

Eta esan beharra dut aurtengoan IPSO etxeak ETBrako eta TVErako egindako sondeok poz ikaragarria eman zidala: Nafarroa Bai-k Iruñean UPNk baino boto gehiago. Boto-kontaketak amaitu ondoren, UPNk %42,86 eta NBk 26,26. Neuri galdetu izan ez balidate, sondeotako emaitzak agentziek eurek asmatzen dituztela pentsatzeko modukoa. Eskerrak bukaerako emaitzak ere esperantzarako aukerarik utzi duten. Nafarroan aldaketa gauzatzeak emango lidake pozik handiena.

Ez dakit eskualdean egindako sondeoez zer agertuko zuten, baina esango nuke benetako emaitzak inor gutxi espero zituen modukoak izan direla. Ezker abertzaleak garbi erakutsi du erroka sendo itsatsita dituela gure bailaran. Eta ez diot hori domekako botoei erreparatuta bakarrik. Orain alkatetza utziko duenetako batek komentatua da: "Gu zerrenda bat antolatzeke nahikoa lanekin eta horrekin bi antolatzen dittue". Militanteen atxikimendu eta konpromiso maila hori da edozein alderdientzako indarririk handiena.

Zalantzarik barik, EAJk hartuko zuen ipurdikorik handiena.

Orain arte inoiz ez bezala, alkatetza bakarrarekin gera liteke.

Ez dut uste bailarako sozialistek ere poz beterik izango dutenik. Gipuzkoako herri hazienak euren esku izanik, Arrasaten indar nagusi izatea izango zuten amets eta oso urruti geratu dira.

Kezkarako daturik ere geratzen da: milaka herritarren botoak baliogabe utzi dira. Ez diot gaiari konponbide osorik ikusten, baina ez litzateke agintaldia hasteko modu txarra, alderdiak arazo horri adostasunez ipingiren batzuk jartzeko gai balira. Aretxabaletatik hasita.

"Nafarroan aldaketa gauzatzeak emango lidake pozik handiena"

"Ez dut uste bailarako sozialistek ere poz beterik izango dutenik"

herritarrak galdezka

UDALBATZA BERRIAK NOIZ ETA NOLA OSATUKO DIREN JAKIN NAHIAN

Hauteskundeak igaro berri, udalbatza berriak osatzeko eguna iritsiko da laster. Hain justu, horixe galdetu digu Arrasateko irakurle batek asteon. Udalbatza berriak zein egunetan osatuko diren eta prozedura zein den jakin nahi du irakurle horrek.

Bada, udalbatzak osatzen dira ekitaldi publikoan, beti hauteskunde egunetik hogeitaz egunera. Hori horrela, hauteskunde eguna maiatzaren 27a izanik, eta hogeitaz egun zenbatuta, udalbatza berriak osatuko dira ekainaren 16an, zapatua.

Egun horretan, udalbatza berria osatzeko prozedura haxe izango da: lehenengo eta behin, Adin Mahaia deritzona osatuko dute –hori osatzen dute kargua hartzeko dauden zinegotzi nagusienak eta gazteenak–.

Mahai horrek egiaztatuko ditu kargua hartuko duten zinegotziek aurkeztutako egiaztagirak. Hori egin eta gero, mahaia udalbatza osatuta dagoela erabakiko du –baldin eta zinego-

tzien gehiengo absolutua han bada–. Hala ez bada, bilkura bi egun geroago egingo da eta udalbatza osatuta geratuko da zinegotzi kopurua dena delakoa izanda.

Bilkura berean, hau da, ekainaren 16an, aukeratzen da alkatea. Horretarako prozedura haxe da: izan daitezke hautagai zerrendaburu guztiak. Haietako batek zinegotzien botoen gehiengo absolutua lortzen badu, hura-

xe izango da alkatea. Zinegotzietako batek berak ere ez badu gehiengo hori lortzen, hauteskunde egunean boto gehien eskuratutako zerrendako burua izango da alkatea. Kasu horretan, berdinketarik balego, zozketa bidez erabakiko litzateke alkatea.

MUNDUMIRA JAIALDIA
OSPATUKO DA ASTE
BUKAERAN ARETXABALETAN
Aste bukaeran Mundumira jaialdia ospatuko da Aretxabaletan. Ekitaldiak, askotariko postuak, mendi irteeran, lehiaketak... egongo dira aste bukaera osoan barrena. Horren haritik, irakurle batek galdetu digu ea antolatzailerik aurrekusi duten apar-kalekurik.

Erantzunaren bila Aretxabaletako Udaltzaingora jo dugu, eta, han azaldu digutenez, aparkatzeko guneak izango dira: Azbe lan-tegi ingurua; Copreci lantegiko aparkalekua –zapatuan, 14:30etik aurrera–; eta kiroldegia. Horiek betez gero, Basabe poligonoan ere laga ahal izango da automobila.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrakiz

Alex Ugalde



Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Erredaktarioak Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilú Unamuno.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jauriritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Mahaia solaskideen zain

Pello Urzelai

www.berria.info/blog/pello

Epainiako Gobernuan EAE-ANVren zerrendak inpugnatzeko orduan kalkulagai-lua erabili zuena ez zen oker ibili. Ezker abertzalea kanpoan utzita, UPN eta CDNri gehiengo osoa kentzeko apustua irabazi baitu. Nafarroako Gobernu aldatzeko aukera ireki dute, errealitatea trukatzu baina ezker abertzalearen beharra izan gabe.

Hauteskunde hauetan legez kanporatzearen logikak helburu bat baino gehiago izan ditu. Lehenik, PPri aurre egitea. Hego Euskal Herrian emaitza onak lortu ditu alderdi sozialistak, baina eskasagoak Espainian. Bigarrenik, zerrenda batzuk baliogabetu gabe utziz, konponbide prozesuaren ate guztiak ez direla itxi nahi itxura ematea. Hirugarrenik, ezker abertzalea ahultzea balizko negoziatio bati begira. Hori ez du lortu. Ezker abertzalearen emaitzak, oro har, onak izan dira egoera kontuan hartuta. Duela lau urte baino

boto gehiago bildu ditu –abstentzio handiagora izan arren–. Baita 2005ean baino gehiago ere: boto baliogabeak eta EAE-ANVrenak kontuan hartuta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan legezko EHAK-k bildu baino gehiago eskuratu du orain. Eta Nafarroako udal hauteskundeetan duela lau urte bildutakoaren ia bikoitza. Nafarroako Parlamentuan boto baliogabeen kopurua 2003an baino txikiagoa izan da. Bigarren indarra izatera iritsi den Nafarroa Bai aukeraren eraginez.

(...) Nafarroan parte-hartzea duela lau urte baino handiago

plazara

Arrasaten Zabaleta merkataritza-gunea eraikitzearen gaineko lehenengo berria jaso zutenetik kezkatuta daude herriko dendarien

elkarteko, Ibai-Arteko, kideak. Halako merkataritza-gune bat herriarendako mehatxua dela dio elkarteko kide Jesus Mari Elkorok.

Horrekin guztiarekin, agintari politikoei eskatzen die herri-gunea indartzearen aldeko apustua egin dezatela.

Jesus Mari Elkorok *


Denbora berrien erronka

Jada urtebete pasatu da Arrasaten Zabaleta merkataritza-gunearen eraikitze-proiektuaren inguruan lehenengo berriak jaso genituenetik.

Bitarte horretan, Ibai-Arte merkatarien elkarte herritarrrak behin eta berriz ohartarazten saiatu da jarduera komertziala herri-gunetik desagertzea edo ingurueta eramatea Arrasaterentzat mehatxua dela, eta ezinezkoa izango dela herri-guneko jarduerak mantentzea ingurueta eskaintza komertziala bikoizten edo hirukoizten denean.

Arrasateko Udalak eskatutako inpaktu komertzialaren ikerketan azaldutako datuen arabera, lortu dugu auzunearen zati garrantzitsu batek jakitea proiektuak ekar dezakeen arriskua, baina kezagarria da beste zatiari axola ez izatea Arrasate gaua pasatzeko erabiliko dugun lohiri bihurtzea, non jarduera komertziala, aisia eta jolasa atetatik kanpo egongo diren.

Aipatutako arazo hori, beste leku batzuetan ere gertatzen da. Leku batzuetan, bertan bizi den populazio txikiak garaiak aldatuz doazela onartzea besterik ez duenez, herriko jarduera galdu egin da. Beste leku batzuetan, aldiz, aspalditik ikusi dute arazoaren larritasuna eta lanean hasi dira alternatibak bilatzeko (Eibar, Orereta eta Donostia, besteak beste); herri-gunean benetakoa eskaria asetzen duen erakar-garritasun komertziala jarri dute abian, eta aisialdirako eskaintzak ere indartzen ari dira herriaren erdiguneko merkataritza erakar-garria izan dadin.



OXEL ARRIETA

Eusko Jaurlaritzak, herri-gunearen eta inguruen arteko oreka mantentzeko asmoz, herrien inguruetan kokatu ohi diren merkataritza-guneen pilaketak mugatzeko neurri batzuk hartu zituen 2004an. Neurri horiek, ordea, ez ditu kontuan hartu Arrasateko kontsistorioak, eta Ibai-Arteko egoera hori salatu zuen arren (2007 urteko martxoan), ez du erantzunik jaso.

Arrasateren kasuan, gaur da eguna zeinetan gure zuzendari politikoetako askok pentsatzen duten aisiaren eta merkataritzaren garapena euren ez dagokien arazoa dela, beti garatu dela bere kabuz, euren esku-hartzerik

"Herrien inguruetan merkataritza-guneen pilaketak mugatzeko neurriak hartu zituen Jaurlaritzak; Udalak ez ditu aintzat hartu"

"Ibai-Arteko herria berpizteko plana prestatzen hastea proposatzen du"

gabe. Gaur egun, ordea, korporazio eta multinazional handiak gai dira euren ezarpenekin eskualde oso bateko bizi-ohiturak guztiz aldatzeko, eta horrela, azken garaiotako harreman sozialen egitura segundo bakar batean hankaz gora jartzeko. Europako beste herrialde batzuek (Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta abar) orain, zailtasun askorekin eta kostu ekonomiko handiei aurre eginez, aldatu nahi duten egiturarantz garamatzate korporazioek eta multinazionalak.

Hori horrela izanda, ezinbestekoa da gure zuzendari politiko askok eta askok, mehatxatutako beste leku horien eredu hartzea. Leku horiek herri-gunea indartzeko apustu egin dute aisialdiko jarduerak zein jardura komertzialak bertara eramatean; nahiz eta jakin badakigun ekintza horrek merkataritzaren gaur egungo barne-egituraren suntsiketara ekarriko lukeela.

Panorama horren aurrean, Ibai-Arteko herria berpizteko planaren prestakuntza egiten hasteko proposatzen du. Plan horrek kontuan hartu behar ditu, modu batera edo bestera, herri hau, etorkizunean ere, bizitzeko, harreman sozialak izateko eta aisiarako herria izaten lagunduko duten erabaki guztiak. Gure herria izan dadila guztiontzat erakar-garria, ez dezagun autoa hartu beharrik izan eskaintzan aukera gutxiengo bat jaso ahal izateko.

*Jesus Mari Elkorok, Arrasateko Ibai-Arte dendarien elkarteko kidea

zer deritzozu?

www.goiena.net

Nahikoa garbi jaten dugula uste duzu?

BAI	%66,6
EZ	%33,3

> TONTAKERIA UGARI

Beste gauza askorekin bezala, janariarekin tontakeria ugari dagoela iruditzen zait. Horren garbi jan beharra... Gure guraso eta aiton-amonak tontakeria gutxiagorekin ibiltzen ziren eta ez dut uste horren gaizki joan zitzaienik.

Aitor

> EZ

Bada, nik uste dut, oro har, ez dugula garbi jaten eta kontu gehiago jarri beharko genukeela. Fisikoki zein emozionalki ondo egoteko garrantzitsua da elikadura zaintzea. Beste gauza batzuk ere zaintzen ditugun moduan jatekoa ere gehiago zaindu beharko genuke.

Ainara

> OROKORREAN EZ

Nik ere uste dut gehiago zaindu beharko genukeela jatekoa, baina obsesionatu barik. Dena den, ni, behintzat, zaintze aldera barazki eta fruta gehiago jaten hasten naizenetan sekulako tristura sartzen zait.

Miren

DATORREN ASTEKOA: Zer deritzozu Herbehere-etako 'reality show'-ari?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

izan bada ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan nabarmen txikiagoa izan da. Abstentzio horretan dago hauteskunde hauetako datu nagusietako bat. Behin-behineko datuen arabera, abstentziora joan den kopururik handiena EAJk galdu du, hiru lurraldeetan. Aztertu beharko litzateke galera horrek lotuta ote dagoen bakebidean izandako jarrerarekin, PSOEren arrastotan ibiltzearekin. Emaitzak eta gobernu aliantzak gorabehera, erronka nagusiari heldu beharko diote alderdiek. Konponbiderako mahaia zain dago, solaskideak noiz eseriko zain.

Koalizioa

Joxe Aranzabal
www.goiena.net/blogak/faroa

Koalizio garaia iritsi zaigu. Alderdi politikoek hitzarmenak egin beharko dituzte elkarren artean, alkatetzak eta gobernuak osatzeko. Baina zer da koalizioa?

Baina zer da, bada, koalizioa?

Hona bizpahiru definizio koalizioari buruz:

Euskal Hiztegia: Liga, hitzarmena, elkarte, alderdi

politikoena edo estatuena bereziki.

Wikipedia: koalizio bat da aliantza bat erakundeen artekoa, eta aliantza horrek dirauen bitartean, kideek elkarlanean dihardute, bakoitzak bere interesean. Era horretako aliantza izan daiteke behin behinekoa edo komenientzien arabera. Horrela, koalizioa eta ituna bestelakoak dira oso.

Elections Act (Australia): koalizioa da aliantza edo elkarte bat alderdi politikoaren artekoa, eta egiten da ziurtatzeko gehiengo bat legebiltzarrean.

koplak

Irati Agirreazaldegi

Tabakorik ez, ezin errez

Egutegira begiratuta maiatza denean erre tabakorikan gabe seguru asko zebilen haserre.

Atzo albora utzi behar zen ziotenez tabakoa mundu guztian nahi zen eguna nikotinarik bakoa.

Puru lodia edo gorria berdin-berdin erre beltza bazkal osteko kaladatxo erretzaileen ametsa.

Ingurukook irentsi behar sarri zigarroen kea ta egun batez ere ez dute hortan emango bakea.

Alperrik dira mila debeku alperrikan da legea Kasu izpirik ez egitea sarritan askoz hobea.

Putz egin eta hegan joango da zigarrokinaren hautsa egun bakarra tabako gabe hori da: hautsontzi hutsa.

Atxabaltarron hitza?

Larrait Arando Ilarduia
Aretxabaleta

Harrigarria gaurko *Asteleheneko Goienkaria*-k dakarren titularra eta are harrigarriagoa lehenengo orrian datoren azpititularra: "Aretxabaletan eta Elgetan irabazi du Aralarrek eta Bergaran du giltza". Atzo, atxabaltarren botoek ez zuten horrelakorik esan; herritar gehiengo batek EAE-ANVren aldeko apustua egin baitzuen, berau lehenengo indar bilakatuz. Hau horrela dela jakinik, GOIENKARIAN albiste hau lantzeko izan duzuen era lotsagarria iruditu zait. Komunikabide espainolisten erara, herriak erabakitakoa ezkutatu baituzue. Espainiako legeak esandakoari men egin eta EAE-ANVko zerrenda, pertsona, zinegotzi eta herritarrak balio gabetzeko saiakera egin baituzue. Hau gutxi ez eta, barrualdean zuzenean EAE-ANVko ordezkariak baztertzuz, zinegotzien sailkapena irudikatu duzue. Penagarria benetan.

Penagarri eta kezkarria herri komunikabide deitzen diegun horietan edo hauetan, herritarron hitza ez islatzea. Uste dut euskal herritarron hitzak, oñatiar eta atxabaltarronak barne, duintasun gehiago merezi duela. Zoritxarrez, horrelako duintasunik ezak komunikabidea bera ahultzen duen ustea dut eta horrelakoek sarri herritarrongandik gertuen egon beharko litzatekeen hori urruntzen dutela.

Azkenik, hauteskudeen erreportaje horretan bazterturik geratu diren horiek zoriondu nahi nituzke. Zorion bero bat, beraz, hainbeste traba politikoa eta mediatikoren gaintetik, Euskal Herriko gatazka konponduko duen prozesu politikari bai esan diezuen guztioi. Baina bereziki atxabaltar eta oñatiarroi, zorionak! EAE-ANVko zerrendak espainiar legeditik kanpo egon arren, bai indartsu bat esanez erantzun duzuelako. Zorionak!

Aretxabaletan Aralar irabazle?

Olatz Altuna
Aretxabaleta

Bai, horrela irakurri nuen, baina ez Madrilgo komunikabide baten, bailarako errealtateak islatu behar zuen GOIENKARIAn baizik. Matematika ez da izan neure

ikasgai gustukoena, baina 839, 593 baino kopuru altuagoa dela ikasi nuen behintzat. Ez dakit *Asteleheneko Goienkarian* irakurri nuena gaizki asimilatutako matematikaren kontua hala *apartheid* mediatikoaren arazoa den. Espero dut lehenengo izatea, bestela ez nuke ulertuko bailarako eguneroko bizitzan errotutako komunikabide honen jarrera. Bukatzeko, zorionak eman EAE-ANV osatzen duten emakume eta gizonei oztopo guztien gaintetik lortutako emaitzengatik eta Aretxabale-tako alderdi politikoei ausardiaz eta zintzotasunez jokatzea eskatzen diet.

Dagoenean bonbon

Iñigo Louvelli (Mesedeetako AM ikastetxeko irakaslea eta LABeko ordezkaria)

Arrasate

Arantxa, ondo jakingo duzu zuk ikasturte amaieraren usaina ate joka dugunean zelan ibiltzen garen ikastetxekoak; hortaz, berandu xamar, baina hitz gutxi batzuk nahi nituzke esan zure *Zorretan* iritzi artikuluari erantzunez (apirilaren 27ko GOIENKARIAn argitaratua, *Zabalik* atalean).

Ez dakit zoritxarrez ala zorionez, baina bai zuen "prozesua" eta bai gurea nahikoa gertutik ezagutzeko parada suertatu zait. Hortaz, uste dut esan diezazukedala ezberdintasun nabarmenak egon direla bien jokaeran.

Zuenean, oker ez banago, momenturo langileei ahalik eta irtenbide duinena emateko saiakera egin zenuten (jakin arren halako negoziatioak ez direla errazak), bai eta ikasle-en familiei informazio zuzena eman. Gurean, ordea, eta hori da behin eta berriro salatu duguna, inongo momentutan ez dugu informazio gardenik jaso, kongregazioak abokatu eta gestore trajez eta jarrerez jantzitako pareta jarri digute aurrean, eta gure sentsazioa izan da pilotatxoan moduan erabili gaituztela, batetik bestera. Gaur da eguna, ikasturtea bukatzeko hilabete exkax falta denean, ez dakigula gure etorkizunari buruzko ezer garbirik; uda etorri eta abuztuan gutako batzuk kale gorrian gaudela esanez burofax bat jasotzeko beldurrez (hoztasun horrez, Arantxa, nire kasuan, 8 urtez lanean egon ondoren egin zidaten moduan). Horrenbeste urtez elkarlanean egon ondoren, merezi al dugu guk halako traturik?

Zorretan ez ote gauden diozu, emakume talde horrek hainbat urtetan bere onena herriaren alde eman ei duelako; eta eurak, eurak ez al daude bada gure ikastetxe hau azken 20-30 urte hauetan mantendu eta altza duten irakasle eta andereñoekin zorretan? Lanerako mojarik geratu ez denean, nork atera du bada ikastetxea aurrera? Hori al da gure lana eskertze-ko modua, egun batetik bestera ikastetxea ixten dutela esanez, 30 langile, 30 familia kale gorrian utziz? Eta eureta-ko gehienak emakumeak dira, Arantxa, hortik jotzea nahi baduzu. Eta horrekin ez dut esan gura hemengo mojek ere asko egin ez dutenik, eta guk argi dugu honen guztiaren errudunak ondoan ditugun hauek ez direla, euretako asko gu lain sufritzen dabiltzala. Horregatik, guk momenturo Kongregazioa salatu dugu, bere osotasunean. Hortik aurrera norberak jakingo du bere errezoak nora bideratu.

Debagoienak solidaritatezko beste sen bat zeukala uste zenuenaz kexu zara. Arraioa! Guk guztiok uste genuen Eliza santuak ere bere predikutan "beste sen" bat ere bazuela, baina ohartu gara hemen esaten denetik egiten denerako koherentzia mantentzea zaila dela, are gehiago Eliza bezalako enpresa handi batean. Eta, zorionez, zuk diozunaren kontrara, Arrasateko herri kooperatibistak, bere ordezkari politikoa guztien bitartez, erabaki du ikastetxe honen lurrak diren horretan mantendu nahi dituela, zerbitzu-lur moduan, egon litekeen bestelako asmo inmobiliarioak baztertzuz (ikastetxeko gestoreei larregi gustatu ez zaien erabakia, portzertio).

Dirua, dirua da, euren Jeneralaren ahotik entzunda, behar dutena, jada zaharkitua duten mojen plantilla mantentzeko, eta itxuraz egun ikastetxeak ez dira diru-iturri. Hori bai, diru-iturri izan zirenean ederki asko bete zituzten poltsikoak, "solidaritate handiz". Baina, esaerak dioen bezala: "Dagoenean bonbon eta ez dagoenean, hor konpon".

Gipuzkoa ekologikoa?

Peio Rubio Urbietta

(Biolur Gipuzkoako presidentea)
Bergara

Nekazaritza ekologikoa gora doa Gipuzkoan. Hamar urte pasatxo direla hasi ginen lanean eta gaur egun 60 baserritarretik gora lan egiten

gabilta ingurumena, bizimodu eta baserriak modu ekologiko batean zaintzeko asmotan. Zenbaki apalak dira, baina beste sektoreekiko nekazari munduak duen egoera kontuan hartuta, nabarmena da gorakada.

Gutariko gehienok Biolur Gipuzkoako kideak gara, baserritarrez eta kontsumitzaileez osatua dagoen eta Gipuzkoan nekazaritza ekologikoa hedatzeko helburua duen elkarte, hain zuzen. Biolur izan da hamarkada pasatxo honetan gure apustu ekologikoa bideratzeko aukera bakarretakoa.

Biolur Gipuzkoa elkarteak, ibilbide honetan, administrazioak bete izan ez duen papera bete du: nekazari eredu berri bati ekin eta tendentzia bati erantzun, hain zuzen. Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako lau txakur txikirekin eta elkartekide askoren esku zabaltasunari esker, lan polita egin dugu eta emaitzak eguneroko ikusten ditugu; izan ere, gero eta baserritar gehiago, gero eta proiektu gehiago, gero eta lan ildo gehiago dauzkagu esku artean.

Politiko eta beraien menpe dauden teknikariek azken hamarkadetan saldu diguten nekazari eredu produktibistak dakartzan arazo anitzak konpontzen galtzen dituzte baliabideak. Nekazaritza ekologikoa erantzun argia ematen die arazo hauei, bilatzen duen ekoizpen sistemak ez baitu lurra eta ingurua kutsatzen. Gainera, elikagai osasungarriak ematen dizkigu eta baita gure baserritarrei bizimodu duin bat eskaini ere. Hain modan dagoen jasangarritasun hitza borobiltzen duen nekazari eredu bakarra da.

Administrazioak nekazari eredu ekologikorantz zuzendu behar den ideia gurekin konpartitzen omen du; apustua hortik bideratu nahi omen dute; etorkizuneko bidea hori omen da. Hitz politikak. Baina benetan konpromiso serioago bat eskatzen diegunean, ezezkoa dator eta puntu: baliabide gehiago? Ez; laguntza administratibo eta ekonomikoa gehiago? Ez. 2007an, berriz ere, Biolurrek aurrekontu barregarri batekin Nekazaritza Ekologikoaren alde lan egiten jarraituko du.

Paper berdedun txortan saltzen digute gure politikoei Gipuzkoa. Turismoa, ingurugiroa, garapen jasagarria. Izan ere, buruan daukagun Gipuzkoako irudi bukolikoa berdea da, baserri zosia. Bazenekiten Gipuzkoak duen azaleraren %80 baino gehiago

gure baserritarrek kudeatzen dutela? Ba al dakizue Aldundiak duen aurrekontu osotik zenbat bideratzen den nekazari arloetara? %1, atera kontuak.

Momentu honetan horrenbeste promesa egiten dabil-tzan politikoei esan, ondo pentsa dezatela hitz egin aurretik. Azkenean gezurrak entzuteaz nazkatuko gara eta etxera bidaliko ditugu.

ERANTZUNA

Larrait Arando eta Olatz Altunari: Azken *Asteleheneko Goienkaria*-ren titular nagusian hauxe irakur zitezkeen: "EAE-ANV eta Aralar irabazle eta EAJk Oñatin bakarrik eutsi dio". Zer dauka horrek harrigarria izateko? EAE-ANV ez da irabazle izan? Eta Aralar? 31 urtetan karguan egon den Elgetako alkateari irabazi izanakez du irabazle bihurtzen? EAJri dagokionez, azken agintaldian zortzi alkatetza izan dituenen bakarrari eustea ez da albiste?

Uste dugu *Asteleheneko Goienkaria*-k islatu duela domekako bozketan Debagoienean gertatutakoa. Gauzak hobeto ere egin zitezkeen eta onartzen dugu azpitoluko aipuetarako aukeraturako berba batzuk, agian, egokiak ez zirela.

Bestalde, emaitzak aurkeztu ditugu herriz herri, grafikoen bitartez. Eta grafiko horietan ageri dira alderdi guztiak, baita EAE-ANV ere, logotipo eta guzti, zerrendak lege balio gabe utzi zituzten herrietan ere, Oñatin eta Aretxabaletan. Horretaz gain, lege baliodunak diren zerrenden botoekin osatuko den udalbatza irudikatu dugu, baina, era berean, EAE-ANVko botoak baliodunak izango balira Oñatiko eta Aretxabaletako udalbatzak nola osatuko liratekeen ere jaso dugu. Ez hori bakarrik, EAE-ANVk Gipuzkoako Batzar Nagusietarako lortu dituen botoak (lege balio gabeak) ere jaso ditugu eta baita zenbat ordezkari lortuko litzuzkeen Gipuzkoako Batzar Nagusietan gure barrutian, zerrenda balioduna izango balitz.

Beraz, ez da egia Larrait Arandok dioena: "Komunikabide espainolisten erara, herriak erabakitakoa ezkutatu baituzue". Izan ere, ez dugu ezkutatu herriak erabakitakoa. Herritik sortutako hedabide honek, GOIENKARIAk, herritarrek domekan bozkatu zutena islatu duela uste dugu. Debagoieneko herritar guztiondako gabiltza lanean eta, hala, herritar guztiei (kolore guztietakoei) eskaintzen diegu tartea. Hala egin dugu orain arte. Horren adibide da hauteskunde kanpainan Goienako hedabideetan aurkeztu diren zerrenda guztiei eskaini izana tarte bera, kontuan izan barik ordezkaritza maila ere balio gabea zen edo ez. Aurrerantzean ere berdin jokatuko dugu.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01






Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Etxebizitza bifamiliarrak Eskoriatzako hirigunetik 5 minututara oinez



207 m2 eraikiak,
234 m2-ko lur
sailarekin

(Etxebizitza baten adibidea)



Ingurune
naturalean



Ekipamendua
barne

* Gutxi gorabeherako argazkiak

(BEZ gabe)
540.000 €



Elorreta
Bizitegi-Gunea
Conjunto Residencial

943 79 20 48
www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

KUTXA AURREIKUSPEN-PLANAK

Adituak planik-plan

Aurreikuspen-Plan berriekin etorkizun segurua izango duzu.

Oraintxe bertan lor dezakezu zeure etorkizuna ziurtatzea. Erakunde aditu batek bakarrik eman diezazuke, benetan, Aurreikuspen-Plan berriak zure esku jarritz, zeure aurrezkien errentagarritasuna bermatzeko aukera.

Kontrata itzazu ekainaren 29a baino lehen. Kopuru mugatua.

Kutxa Aurreikuspen-Planak Kutxa eta Kutxa Bi BGAEtara atxikita daude.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
EAE-ANvk aukera handiak ditu alkatetza eskuratzeko > 18



> **BERGARA**
Alderdi guztiekin hitz egingo du EAEk datorren astean > 24



> **ARETXABALETA**
Herriko egoera bereziari irtenbidea topatu beharko diote > 31



> **OÑATI**
Itxura guztien arabera, EAJk eta EAK osatuko dute gobernua > 33

ESKORIATZA > XI. FERIXIE

Eskoriatzako Ferixie, herrian guztiz sustraituta dagoen 11 urteko ekimena

11 URTE

Eskoriatzako azoka garrantzitsuenak 11 urte bete ditu

HERRIKOIA

Azoka horretan 160 bat herritarrek lan egiten dute urtero

90 SALTOKITIK GORA

jarriko dituzte, eta horietako batzuk tailerrak izango dira

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Eskoriatzako Ferixie herriko ezinbesteko hitzordu bilakatu da. Aurtengoa egiten duten hamai-kagarrena da, eta antola-tzaile zein herritarrek azaldu digute azoka guztiz finkatuta dagoela herrian: "Honek ez dauka atzera-pausorik, urtero-urtero egin behar dugu", azaldu digu urte hauetan guztietan azokaren koordinatzaile izan den, Rosa Elizburu Arizmendiko irakasleak.

Hain zuzen ere, Arizmendi ikastola da ferixiaren antolatzailea, baina ikastolako arduradunek euren nabarmendu dute "Ferixiek daukan gauza garrantzitsuenetakoa bat" dela "herritarrek egun horri lotuta duten inplikazio handia".

ELEMENTU BERRIAK GEHITU

Ferixien antolatzaileek orain arteko hamar edizioen gainean oso balorazio ona egin dute: "Herritarren artean oso harrera ona du, eta horrek eskatzen du azokari eustea eta, ahal den heinean, indartzea eta ondo zaintzea".

Bestalde, aitortu digute urtez urte jaia gauza berriekin elikatzea zaila dela: "Artisau mota asko ekarri ditugu orain arte, baina baserri produktu ugari ere". Horren harira, egia da baserriko produktuak ekartzeko orain-



BASERRIKO PRODUKTUAK Zapatuko azokan baserriarrek eta haien produktuek protagonismoa izango dute, urtero moduan.

ARIZMENDI

goa ez dela sasoi onena; fruitu arbolak eta orain ekartzea oso zaila da, eta horrek, neurri baten, mugatu egiten ditu.

ARRAKASTA, HERRIKOIA DELAKO

Arizmendiko arduradunen usteetan, gaur egun herri askotan egiten diren ekitaldiak udalek antolatzen dituzte; eta horrek esku-hartzea zeharo mugatzen du. "Guk Udalaren dirulaguntza bat daukagu gastu batzuk estaltzeko, baina jai batek arrakasta izan dezan oso garrantzitsua da herritarren esku-hartzea, eta hori gure kasuan hala da. Joan den urtean, adibidez, 160 bat herritar ibili ziren Ferixie egunean eta bezperako egunetan ere lanean. Hainbeste jende lanean eta eguna ondo joan dadin arduratuta ikustea oso esanguratsua da".

Egunean lanean ibiltzen direnetatik hainbat Arizmendiko ikasleen gurasoak dira, baina, horiez gain, beste jende askok ere lan egiten du: "Iraganean gure ikasle izan ziren askok ere lan egiteko konpromisoa hartzen dute, eta hori ere oso pozgarria da guretzat".

IKASLEENDAKO EREDUGARRIA

Horrekin guztiarekin lotuta, Arizmendiko arduradunek uste dute gurasoen, ikasle ohien eta bestelako herritarren esku-hartzea erdugarria dela ikasleendako ere. Hala, "ikasleek ikusten dute posible dela jendearen borondatearekin gauza asko eta handiak egitea, eta hori oso garrantzitsua da".

Bestalde, Ferixie eta eguneko ekitaldi ia guztiak antolatzaileek autofinantzatu behar dituztenez,

horren giltza lana, esku-hartzea eta irudimena direla azpimarratu dute: "Horiek barik, ezingo genuke halakorik lortu".

90 BAT SALTOKI ETA TAILER

Ferixie eguna Eskoriatzako egun garrantzitsuenetakoa da eta erdigunea saltokiz eta bestelakoz betetzen dute. "Urte baten 100 saltoki jarri genituen, eta muga txikiagoa jartzea erabaki genuen". Hala, aurtengoa, esaterako, 91 saltoki ekarriko dituzte herrira; horietatik bost tailerrak ere izango dira.

Aurtengo berrikuntzen artean, Elorriotik eta Atxondotik etorritako harginak arituko dira jendearrean harria lantzen; Gasteiztik eta Laudotik etorritako zeramikagileek umeei irakatsiko diete euren lanbidea, batek tor-

nua erabilia eta besteak eskuz egindako langintza. Horrez gain, mota askotako perretxikoak ere ekarriko ditu arrasatear batek; eta pastelak salgai izango dituzte lau bat saltokitan.

Bestalde, urtero moduan, artisau ugari izango dira, eta baita baserriarren saltokiak ere. Hain zuzen ere, eskoriatzarrek 20 saltoki jarriko dituzte azokan: horietatik, zortzi baserriko produktuekin eta beste 12 artisautza lanekin beteko dituzte.

IKASLEEN SALTOKIAK

Baina ikasleak ere izango dira protagonistak. Hain zuzen ere, LHko hiru zikloetako hainbat ikasleek bitxi, galleta eta txokolate saltokiak jarriko dituzte.

(34. orrialdean jarraitzen du)

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 2	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Domeka, 3	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Astelehena, 4	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Martitzena, 5	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguaztena, 6	Español	Araba 14	943 79 18 65
Eguena, 7	Ruiz	Magdalena 31	943 79 14 09
Egubakoitza, 8	Zabala	Zarugalde 42-44	943 77 16 30

BERGARA

Zapatua, 2	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 3	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 4	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 5	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguaztena, 6	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguena, 7	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 8	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 2	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 3	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 4	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 5	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 6	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguena, 7	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 8	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28

ARETXABALETA

Zapatua, 2	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Domeka, 3	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Astelehena, 4	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 5	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 6	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 7	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 8	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietia, Mugertzta, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	08:05	
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezerperan deitu: 629 54 59 23


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 2

Egubakoitzetik zapatua igarriko dugu hobekuntza. Eguzkia aterako da, baina tenperatura berdintsu mantenduko da, haizea ibiliko delako.




Domeka, 3

Giro bikaineko eguraldia aurreikusten da domeka honetarako. Hala ere, zeharhaizeak jotzen jarraituko du datorren aste osoan zehar.

EUSKAL HERRIAN

Gaur egunsentian lainotuta egon arren, hobetzen joango da eguraldia. Ziri-miri pixka bat egin lezake iluntzean, baina eguzkia nagusituko da gehienbat. Kostaldean haizea bizi egongo da, eta oro har, nahasia izango da. Eguraldiak hobera egingo du datozen egun hauetan.



oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA

> Euskal Herria Zuzenean jaialdirako laguntzailerik bila dabil Jardun eskara elkarteak

Ekainaren 29tik uztailaren 30era bitartean ospatuko da Euskal Herria Zuzenean jaialdia, Idauze Mendin (Zuberoa). Hala, laguntzailerik bila dabil Jardun elkarteak. 17 urtetik gorakoak izan behar dute, eta ekainaren 15era arte daukate izena emateko epea. Argibide gehiago: 943 76 36 61 zembakira deitu.

BERGARA

> Mariaren Lagundiko zembaki saritua

Mariaren Lagundiko egindako zozketaren zembaki saritua da: 1.928. Zembaki horren jabeak Zumaiaiko Zelai talasoterapiari bi lagunendako tratamendu eta afaria irabazi ditu. Irabazlea hiru asteren barruan agertu ezean, errepikatu egingo dute zozketa.

ANTZUOLA

> Erretiratuen irteera Arantzazura

Hilaren 6an egingo dute eta egun erdiko irteera izango da. Informazio gehiago erretiratuen elkartearen.

DEBAGOIENA

> Saskibaloi entrenatzailerik izateko ikastaroa antolatuko dute

Ordizian izango da, uztailaren 9tik 13ra eta 16tik 20ra, 10:00etatik 13:30era. Gipuzkoako

Saskibaloi Federazioak antolatuko du. Izena emateko azken eguna ekainaren 18a da. Informazio gehiago: 943 47 33 24 edo 943 80 56 22.

ELGETA

> Baztanera irteera egingo dute erretiratuek

Ekainaren 7an, eguena, egingo dute irteera hori. Herriko Plazan egingo dute hitzordua, 08:30ean. Izena emateko Kutxako bulegora jo behar da.

DEBAGOIENA

> Mundumirako elastiko solidarioak salgai

Mundumira jaialdiaren antolakuntzak eta Ternuak elastiko solidarioak jarri dute salgai. Dirua eskualdeko GKEendako izango da. 24 euro balio dute eta saldatuko bakoitzarengatik 3 euro jasoko dira. Salgai daude honako lekuetan: Antzuolako Itziar liburu dendan eta Aretxabaletako Jauregi okindegian, Durana

kaleko kioskoan, Artano tabernan eta Asensio jantzi dendan.

DEBAGOIENA

> Gurean enpresa berriak sortzeko auzolandegia antolatuko da Saiolanek

Bergarako Elosu auzoan izango da. Inoiz enpresa propioa sortzeko ametsa izan dutenei dago zuzenduta; parte hartzeko baldintza da ikasketak bukatutako gaztea edo langabea izatea. Uztailaren 16tik 29ra izango da auzolandegia berezi hori. Izena emateko epea zabalik dago, 943 71 20 72 zembakian edo alarrea@eps.mondragon.edu posta helbidean.

ARRASATE

> Arrasate Musikalen matrikula egiteko epea zabalik dago

Ekainaren 21era arte egongo da zabalik matrikula egiteko epea. Astelehenetik eguenera izango da hori, 17:00etatik 20:00etara. Hain

TENPERATURAK

MINIMOA
Eguena, 15

9 °C

MAXIMOA
Eguena, 15

28 °C

ASTEKO
EURIA (l/m²)

60,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	22 °C	14 °C	1,3 l/m ²
Eguena, 24	28 °C	15 °C	11,9 l/m ²
Egubakoitza, 25	24 °C	15 °C	15,9 l/m ²
Zapatua, 26	14 °C	14 °C	2,5 l/m ²
Domeka, 27	18 °C	10 °C	20,6 l/m ²
Astelehena, 28	16 °C	9 °C	8,2 l/m ²
Martitzena, 29	17 °C	9 °C	0 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA EKAINEAN

Ilbehera	Ilberri	Ilgora	Ilbete
8	15	22	1

zuzen, 4 urtetik gorakoendako instrumentu eta ballet eskolak daude. Baita helduendako talde bereziak ere.

BERGARA

> 1968 kintoek afaria egingo dute

Ekainaren 9an egingo dute afaria. Izene-matea Zuhaitzi tabernan. Izena emateko orduan 10 euro aurreratu beharko dira.

ARETXABALETA

> Kirol elkarteko zuzendaritza batzordea osatzeko dei egingo dute

Egungo zuzendaritza batzordeak hiru urte bete ditu. Hori horrela, hilabeteko epea ireki dute batzordeko hautagai berriak aurkezteko. Hautagaitzak bidali behar dira Aretxabaletako 10. posta-kutxara.

BERGARA

> Irteera Pol-Pol eta Gora Alpino taldeekin

Ekainaren 16an eta 17an egingo dute irteera, Sierra de Hajar-Alto Campora. Irteera ordua 18:00etan izango da, Fraiskozuritik. Izena emateko jo Pol-Pol taldearen bulegora.

ELGETA

> Bi begirale behar dituzte uztailako aisialdi zerbitzurako

Uztailaren 2tik 20ra izango da aisialdi zerbitzua, eta bi begirale behar dituzte. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena ekainaren 1a aurretik.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Gustuko duzu zapatuko azoka? Zer duzu gustukoen?



Juan Ignazio Oion
Erretiratua
Eskoriatza

Bai, oso gustuko dut. Herriko egun garrantzitsuetako bat dela uste dut, eta antolatzen duten guztia oso gustuko daukat: artisautza, baserriko produktuak... Luzaroan jarrai dezala azokak.



Edurne Agirregabiria
Langilea
Eskoriatza

Bai, egun oso polita izaten da. Jartzen dituzten saltokiak oso gustuko ditut, eta nabarmenduko nuke egunean herrian egoten den giroa. Herri bazkaria ere gauza ederra izaten da, jende asko batzen da-eta.



Dori Hernandez
Langilea
Eskoriatza

Oso gustuko dut azoka. Orokorrean antolatzen duten guztia ondo dagoela uste dut. Batez ere, artisaunen saltoki eta tailerak ikustea gustatzen zait. Ez legoke txarto jaia arratsaldean ere egitea.



Dorleta Aperribai
Langilea
Eskoriatza

Bai, oso ondo. Herrian egiten den beste gauza polit bat da. Jende asko etortzen da herrira eta giro oso ona egoten da egun horretan. Urtetik urtera azoka hobetzen dabilela uste dut.



Jose Antonio Lorente
Langilea
Eskoriatza

Oso egun polita da, primerakoa. Gehien gustatzen zaidana da baserrietako produktuen saltokiak ikustea eta horietan erosketak egitea. Bestalde, eskertuko nuke herri kirolen erakustaldiak-eta egitea.

5 galdera...

Karlos Larringan

Larringan Autoeskola
Aretxabaleta

1. **Gidabaimenaren puntuak berreskuratzeko kurtsoak hasi dira?**

Hala da. Maiatzaren 16tik 18ra bitartean, Gipuzkoako lehena egin zen Aretxabaletan, hiru pertsonarekin. Zirkulazio Zuzendaritzaren epai irmoa iritsi zitzaizen haiei, galdutako puntuekin eta oraindik geratzen zaizkien kopuruaren ziurtagiriarekin. Ikastaroa egiteko, ziurtagiri hori aurkeztu behar da autoeskolan. Ziurtagiririk gabe ezin da kurtsorik egin.

2. **Debagoienean zenbat puntu galdu dira dagoeneko?**

Oraindik ez dugu jaso horri buruzko datu zehatzik. Ez dakigu zenbatek galdu duten gidabaimena, ez eta galdutako puntuaren kopurua zein den ere. Datu horiek izan beharko genituzke dagoeneko, baina astiro samar doa guztia.

3. **Atzerapen horrek eragina izan dezake ikastaroetan. Alegia, ahal baino jende gehiagorekin aurki zaitzekete kurtsoetan?**

Ez dut uste horrelakorik gertatuko denik. Hilabete behin ikastaro bat egitea aurreikusita dugu, baina, puntu galtzaileen kopurua handituz gero, kurtsoak ere ugartu daitezke. Hala ere, Zirkulazio Zuzendaritzaren eskutian dago horrelakorik ez gertatzea. Epai irmoak apurka-apurka bidaltzean dago gakoa. Denak batera bidaliz gero, pilaketa sor daiteke.

4. **Zenbat pertsonarendako eta zenbat ordukoak dira ikastaroak?**

Gehienez, 20 pertsona egon daitezke. Puntuak berreskuratu behar dituenak gura duenean egin dezake ikastaroa. 12 ordukoa da hori. Horietako zortzik irakasle batek ematen ditu, eta gainontzeak ordenagailuarekin bete behar dira. Gidabaimena galtzen dutenek sei hilabete itxaron beharko dute berreskuratzeko.

5. **Zenbat balio du gidabaimena bera eta puntuak berreskuratzeko?**

Puntuak berreskuratzeko kurtsoak 174 euro balio du. Gidabaimena berreskuratzekoak, 320 euro.



txistuak



M.B.

Irisgarritasun Legea ez da bete Bergaran



Bergarako Ipintza institutua eta Matxiategi lotzen dituen errepidea gurutzatzeko dagoen zebra bide ondoko lanak amaitu dituzte orain dela egun batzuk. Irakurle bat kexu da, Irisgarritasun Legea ez delako bete. Hori ahalik eta bizkorren konpon dezatela eskatu du.

ustek uste

Mirian Biteri

Hamaika ikusteko jaiok gara!

Azken egunotan, Abiadura Handiko Trenaren inguruan, Aramaion gertatutakoak ez du izenik. Alegia, udalerriko eta herritarren etorkizunearagin zuzena izango duen azpiegitura erraldoi baten inguruan iritzia ezin ematea.

Orain arte egin izan diren galdeketez aurrera egin dute. Joan zen uztailaren 16an, Urbinako Administrazioa Batzarrak antolatuta, herriak ezeke borobila eman zion tren horri. Udazkenean, Gasteizko hogeitabat Kontzejuk eta Itsasondok gauza bera egin zuten.

Aramaion egindako lan nekezarekin kolpe batez amaitu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan Espainiako gobernuko ordezkari Paulino Luesmak, kontsulta bat antolatzeko legeak zehazten dituen pausoak ez direla bete eta galdeketa hauteskunde egunean egiteak ez ote zuen nahasmena sortuko argudiatuta.

Azaroan lanekin hasi baziren ere, herritar gehienok oraindik ez dakigu gure udalerrinari zehazki nola eragingo dion. Eta eskatu bada ere, inork ez digu galdetu tren hori gura dugun edo ez. Hori gutxi balitz, orain herri galdeketez debekatzen hasi dira. Hamaika ikusteko jaiok gara herri honetan!

asteko datua

330

Debagoienako Mankomunitateak 330 konpostagailu banatu ditu ibarrean. Banaketa aste honetan amaitu da. Konpostagailua eskuratu gura zenuenak, Mankomunitatean izena eman eta ordu eta erdiko ikastaroa egin behar zuen aurretik. Kurtsoak martxoan eta maiatzean egin izan dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

UDAL HAUTESKUNDEAK 07 > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

Ino Galparsoro: "Lehentasuna izango dute bake prozesuaren inguruko ekimenek"

PSE-EEK ez du argi ikusten Galparsorok alkatetza lortuko duela; eurek ez diote babesik emango

PPk dio EAEn gobernaren ekimenak babestuko dituela baldin eta proposamenak bat badatoz

UBANE MADERA > ARRASATE

Emaitzak esku artean, ekainaren 16ari begira daude orain alderdi politikoak zein herritarrek, udal gobernu berria zelari osatuko den ikusi nahian.

Arrasaten, zenbait alderdi hasi dira elkarren artean berba egiten, baina, oraingoz, ez dute ezer zehaztuta. Edozelan ere, nondik nora joko duten jakiteko haiengana jo dugu.

HAMAIIK ZINEGOTZI BEHAR DITU

Duda barik, boto gehien eskuratu dituen Eusko Abertzale Ekin-tza alderdiak aukera handiak ditu Arrasateko alkatetza lortzeko; are gehiago, herriko alderdi politiko ia guztiak segurutzat ikusten dute hori.

Ekainaren 16an, zapatua, bi bozketa egingo dituzte alkatea aukeratzeko. Lehenengo bozketan 11 boto behar ditu alkategai batek alkatetza lortzeko. Halakorik gerta ezean, hauteskundeetan boto gehien eskuratu dituen alderdiko zerrendaburua izango da alkate: Ino Galparsoro.

Ino Galparsorok berak hauxe dio horren gainean: "Beti defendatu dugu boto gehien irabazi duen alderdiko zerrendaburua izan beharko litzatekeela alkate".

Dena den, eta alkatetza lortu arren ere, zazpi zinegotzi irabazi ditu EAE-ANV eta beste lauren babesik beharko luke gehien-goia lortu eta lasai gobernatzeko.

LANKIDETZA "ZOR" ZAIO HERRIARI

Eta bidelagunen gainean galde-tuta, Ino Galparsoro alkategaiak lehenengo eta behin hauxe nabarmendu gura izan du: "Gure egoera gogorra izan da eta izaten jarraitzen du; begira Aretxabaleta eta Oñatiko kasuei. Beraz, egoera osotasunean hausnartu

beharko dugu. Hortik aurrera, gure programaren eta politika orokorraren arabera, gurekin ados ipin daitekeen alderdia izango dugu bidelagun".

Edozelan ere, hauxe gaineratu du Galparsorok: "Gutxiengoa ere goberna genezake; zazpi izanda, posible da. Hala ere, ez dakit hori den herriari komeni zaiona. Aztertu beharko dugu. Izan ere, herriari zor zaio politikan gabiltzanen arteko lankidetzak, politika egiteko beste modu bat, denontzat irekia".

BAKE PROZESUAK LEHENTASUNA

Era berean, baina, Ino Galparsorok argi ikusten du alderdi batzuek eurekin gobernatzeko beste batzuek baino aukera handiagoak izango dituztela: "Lehentasuna izango dute bake prozesuaren inguruko ekimenek, eta kasu horretan distantzia handia dago alderdi batzuen eta besteen artean".

PSE-EE-K EZ DIO BABESIK EMANGO

Alderdi Sozialista da boto gehien eskuratu duen bigarren alderdia, eta ezkerreko alderdia da, gainera. Hala ere, Paco Gartzia boze-

ramaileak argi du ez diola babesik emango EAE-ANVri: "Ahaleginduko gara aurkitzen bestelako akordioak EAEk alkatetza lor ez dezan; bakarrik bazterten dugu EAeri babesik ematea alkatetza lortzeko, gainerako guztia zabalik dago".

HIRUKORIK EZ

Hirugarren indarra da EAJ-PNV. "Hasierako pentsaera da boto gehien lortu duenak alkatetza izatea", dio Apraitz zerrendaburuak. Hala, ekainaren 16an ez diote botorik emango EAeko alkategaiari, baina oztoporik ere ez diote ipiniko, Apraitzek dionez. Osa daitekeen gobernuaren gainean, berriz, zera dio: "Arrasaten hirukoak ez du gehiengoa eta hortik jotzea ez da erraza izango. Bestela, bi aukera ditugu: gobernuan sartu edo oposizioan geratu. Sartzea ez dugu baztertzeko, baina etzundakoak entzun eta ikusitakoak ikusi eta gero, ez da erraza izango. Baina, ez dugu aterik ixten".

EB-ZUTIK KOALIZIOAK BADU GILTZA

Hirugarren indarrak, EB-Zutik koalizioak, berriz, zeresan handia izan dezake gobernuan. PSE-EE kenduta, gainerako ezkerreko alderdiak batuz gero, batuketek gehiengoa ematen diete: EAE, EB-Zutik, EA eta Aralar (12 zinegotzi).

Gainera, badute esperientzia. Esaterako, 1999-2003ko agintaldian gobernatu zuten, Eusko



ALKATEGAIA EAEk eskuratu du boto gehien; Ino Galparsoro alkategaia buru dute. u.m.

Alkartasunarekin batera, Eusko Herriarrok alderdiak alkatetza izan zuenean.

Hala ere, ekainaren 16an, argi dute eurek EB-Zutik koalizioa alkategai Joseba Ugaldere emango diotela botoa. Hortik aurrera, gobernu posibleren bat osatzeko aukeren aurrean, honakoa diote: "Gelmako kontua merkatuko ekonomia onduria izan dela pentsatzen duten alderdiekin argi

dago zaila izango dela hitzarmen bat lortzea. Hortik aurrera, gure programa aurkeztuta dugu; hala, gomendatu gura diogu Arrasateko alkate posibleari errepasa dezala gure programa, hortxe dago-eta giltza. Guri ez dagokigu iniziatiba, eurek deitu behar digute, deitu behar digutela pentsatzen badute".

(19. orrialdean jarraitzen du)

Udal hauteskundeetako datuak, auzoz auzo

ALDERDIA	ERDIKALDEA	SANTA MARINA	MUSAKOLA	SAN ANDRES	URIBARRI	AUZOAK	GUZTIRA	ZINEGOTZIAK
Hautesleak	6.141 (100%)	2.176 (%100)	2.251 (%100)	2.757 (%100)	4.577 (%100)	909 (%100)	18.811 (%100)	
Abstentzioa	2.181 (%35,52)	1.047 (%48,12)	802 (%35,63)	1.081 (%39,21)	1.812 (%39,59)	597 (%65,68)	7.520 (%39,98)	
EAE-ANV	1.361 (%34,97)	170 (%15,33)	472 (%33,08)	365 (%22,24)	855 (%31,53)	110 (%36,30)	3.333 (%30,07)	7
PSE-EE	338 (%8,68)	457 (%41,21)	245 (%17,17)	446 (%27,18)	572 (%21,09)	18 (%5,94)	2.076 (%18,73)	4
EAJ	798 (%20,50)	86 (%7,75)	253 (%17,73)	278 (%16,94)	399 (%14,71)	68 (%22,44)	1.882 (%16,98)	4
EB/Zutik	465 (%11,95)	201 (%18,12)	204 (%14,30)	183 (%11,15)	379 (%13,97)	20 (%6,60)	1.452 (%13,10)	3
EA	430 (%11,05)	42 (%3,79)	129 (%9,04)	117 (%7,13)	180 (%6,64)	32 (%10,56)	930 (%8,39)	1
PP	192 (%4,93)	121 (%10,91)	85 (%5,96)	173 (%10,54)	184 (%6,78)	33 (%10,89)	788 (%7,11)	1
Aralar	308 (%7,91)	32 (%2,89)	39 (%2,73)	79 (%4,81)	143 (%5,27)	22 (%7,26)	623 (%5,62)	1

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

IEFPS Aretxabaleta GLHBI

Etxebarri auzoa, z/g
Tel.: 943 79 79 00 / 943 77 09 55
E-mail: ia@iaretxabaleta.com
Web orria: www.iaretxabaleta.com

INSKRIPZIO EPEA
Ekainaren 1etik 7ra



Aretxabaletako Lanbide Heziketa institutua Eskaintza akademikoa A eta D ereduetan

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Ibilgailuen elektromekanika
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

- Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa

- Praktikak atzerrian (Leonardo programa)
- Orientazio zerbitzua (LANBIDE)
- Enplegu zentrua

(18. orritik dator)

PROGRAMAK AGINDUKO DU

Eusko Alkartasunari dago-kionez, zinegotzi bakarria eskuratu du oraingoan. Hala ere, lehen esandako moduan, matematikak erakusten dute gobernuak kide izan daitekeela, 1999-2003ko agintaldian egin zuten moduan. Hauxe dio Pello Urizar zerrendaburuak: "Iniziatiba da alkatetza lortzeko aukera duenarena. Gu itxaroten gabilta ea EAE-ANV zein planteamendurekin datorren. Gure aldetik, ez dugu planteamendurik; programa politikoa kontuan hartuta erabakiko dugu. Hori bai, arraroa irudituko litzai-guke eskaera PSE-EE edo EAJrengandik etortzea, orduan oso amalgama handia egin beharko genuke-eta".

PP-K EZ DU EAE BAZTERTUKO

PPko bozeramaile Itziar Lamarainek kontatu digu ekainaren 16a "lasaitasunez" hartuko duela, eta Arrasate-rengatik lanean jarraitzeko gogoz.

Hortik aurrera, Itziar Lamarain seguru dago EAE-ANVn gobernatuko duela, eta azaldu digu bere babesa emango diola EAERI berak hala ikusten duenean: "Alor ideologikoan egon naiteke EAERengandik antipodetan, baina euren proposamenak onak badira eta nireekin bat baldin badatoz, nire botoa emateko gertu izango naute. Era berean, nik neure proposamenak aurkeztuko dizkiet, eta, batek daki, akaso gustatu egingo zaizkie!".

ARALAR LANERAKO GERTU

Bukatzeke, Aralarrek onartu du gurean ez duela emaitza onik lortu. Hala baloratzen dute: "Orain lau urte guregan jarritako ilusioari ez diogula behar bezalako erantzunik eman da emaitza horrek ekar dezaken lehen gogoeta. Hala ere, itxaropen handiz ikusten dugu beste datu hau ere: lehen guran konfiantza jarri zuten askok mantendu egin dutela, eta badirela lehen aldiz oraingoan eman digutenak ere. Batzuek zein besteek, herri honetan eta jende arteko harremanak "modu diferentean" josi eta eraiki dezagun nahi dutela erakusten digute. Partidu eta siglen gainetik pertsona baloratuz. Bihotz-bihotzez esker-rak. Banan-banan ematea gustatuko litzai-guke, eta astia izango dugu. Bitartean, hau-xe gogoratu nahi dizuet: dale-txean egokituko diguten bule-goan izango nauzuela, kezka, kexu eta udal eremuan erant-zuna behar duten abar luze hori entzun eta, ahal den neur-rian, soluziobidean jartzeko. Talde txikia izan arren, ez zaigu gogoa eta kemena falta, eta errespetoan, berdintasunean eta jasangarritasunean oinar-ritutako harremanak sendotuz, isildu ohi den guztion aho-tsa ozen entzun dadin egina-halak burutuko ditugu."

UDALA > EKONOMIA

Datorren gobernu berriak "zerga bako" Udala aurkituko du

Lakuntza jarduneko alkateak dio "gastu eta diru sarreraren arteko harremana orekatua" izan dela

44 milioi euro pasako inbertsioak egin ditu Udalak, baina 22 milioi euro lortu ditu dirulaguntzekin

UBANE MADERA > ARRASATE

2003-2007 agintaldiko datu ekonomiko esanguratsuenak helarazi ditu Udalak, erakusteko, oro har, lau urteotako jardunaldia positiboa izan dela.

Labur esanda, zenbakiek erakusten duten ondorio esanguratsua da Udalak inbertsio handiak egin arren (44 milioi euro), Udalaren zorpetze maila oso txikia dela (%5,91). Halaxe argitu du Inazio Lakuntza jarduneko alkateak: "Inbertsio asko egin ditugu, baina lortu ditugu, baita ere, kanpoko diru sarrerak; Eus-

ko Jaurlaritza eta Foru Aldundienak, adibidez (22 milioi euro pasatxo). Hala, gastuen eta diru sarreraren artean oreka lortu da. Horri esker, Udalaren ekonomia zerga bakoa da, zorpetze maila da ia anekdotikoa. Legeak %20ra arteko zorra onartzen du eta Udalak dauka %5,91ko indizea. Horrek esan gura du orain etorriko den udal gobernu berria zerga bako ekonomiarekin hasiko dela lanean, eta, gainera, proiektu mordoa abiarazita daudela: Olandixoko tunela eta autobidea, esaterako".

KANPAINA POLITIKOTIK KANPO

Lau urtetotan egin dituen inbertsio garrantzitsuenak ere aipatu ditu: "Kulturale, Mojategi, Biteri, Akei berreskuratzea, alde zaharreko urbanizazioak (Mondragones, Zerkaosteta...), Makatzena, Agerre eta Santa Teresa auzoak birgaitzea eta Iturbide egoitza, batzuk aipatzearen."

Halaber, argi utzi gura izan du orain ez dagoela "kanpaina", beraz, ez dituela datu ekonomikoak eman arrazoi horregatik.

Bukatzeke, gogorazi du 2007ko aurrekontua onartu barik dagoen arren, gutxi gorabehera 50 milioi euroko kopurua dagoela eta hortik 20 milioi euro daudela auresikuta inbertsioetarako.

Bilakaera urtez urte

URTEAK	ZORPETZE MAILA	INBERTSIOAK
2002	%9,80	-
2003	%8,60	543.463,51
2004	%8,60	3.026.419,32
2005	%9,27	6.733.920,46
2006	%5,91	5.820.564,16
GUZTIRA	%5,91	44.424.432,61

ITURRIA: ALKATETZA

POLITIKA > PRESOEN ALDEKO ELKARTASUN EGUNA

Badator presoeren aldeko ekimena: Elkartasun Eguna, ekainaren 9an

Presoen egoerak okerrera egin duela salatu zuten Elkartasun Egunaren aurkezpen ekitaldian

25 elkarte, erakunde eta sindikaturen atxikimendua lortu dute; baita hainbat musika talderena ere

U.M. > ARRASATE

Portaloira elkarteak martitzenean iragarri zuen aurtingo Elkartasun Eguna ekainaren 9an egingo dutela. Horrekin batera, kezka erakutsi zuten, euren esanetan, hainbat presoeren egoerak okerrera egin duelako. Jon Agirre, Josu Uribeberria, Jose Inazio Gaztañaga, Xabier Urizar eta Jesus

Mari Zabarte presoak aipatu zituzten, bereziki. Edozelan ere, Arrasateko gainontzeko preso politikoa ere gogoan izan zituzten.

Halaber, hauxe eskatu zuten: larri gaixorik dauden presoak eta zigorra beteta dutenak aska ditzatela. Eta "euskal preso politikoa guztiak, eskubide guztien jabe, Euskalo Herrira ekar ditzatela".



PRENTSAURREKOA Portaloira elkarteok, martitzeneko prentsaurrekoan.

T.M.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE


LOS VAQUEROS

- 2 praka (8 kolore aukeran) **40 €**
- Prakak erosiz gero, kamiseta opari!
- Kamisetak **6,95 €**-tik aurrera
- Gazteentzako jantziak **20 €**-tik aurrera.

Iragarki hau erakutsiz gero, **%10**eko deskontua (Aipatzen diren eskaintzetan bakarrik aplikagarria)

Zerkaosteta kalea 3 - ARRASATE

IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Maila goreneko diplomatura
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33



HISTORIA ARGAZKITAN Erakusketako argazkien bitartez, Zerrajerak izan duen bilakaera ikusteko aukera izango da.

GOIENKARIA

ONDAREA > ZERRAJERAREN GAINEKO ERAKUSKETA KULTURATEN

Zerrajeraren ehungarren mendeurrenean, argazki eta bideo erakusketa

Gaurtik, egubakoitza, ekainaren bukaera arte Zerrajeraren gaineko erakusketa Kulturaten

Erakusketan fabrikako artxiboko 200 bat argazki eta bideo-elkarrizketak batu dituzte

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Zerrajera enpresak 100 urte bete ditu, eta horregatik hainbat ekintza egiten dihardute. Horren barruan, gaur, egubakoitza, enpresaren beraren gaineko erakusketa inauguratuko dute Kulturateko klaustroetan. Argazki eta bideoz osatuta egongo da, eta hilabete bukaera arte egongo da ikusgai.

Enpresa horretako langile Juan Ramon Garai arrasatearrak zuzendari erakusketa egiteko ideia eman zien. Josemari Velez de Mendizabalek eta beste lagun batzuek babesa eman zioten. Zuzendariak begi onez ikusi zuten asmoa, eta erakusketa-komisario bi izendatu ostean lanean jarri ziren.

200 BAT ARGAZKI

Orain dela 13 bat urte Zerrajerak Udalari eman zion fabrikaren beraren argazki artxiboa. Orain, bilduma horretatik aukeraketa egin dute, erakusketa horretan hainbat argazki erabiltzeko. Hartu dituzten argazkietatik zaharrena 1910ekoak dira; eta berrie-

nak, berriz, 80ko hamarkadakoak. Argazki horiekin lagunduta, fabrikak zer-nolako bilakaera izan duen eta zelan aldatu den ikus daiteke.

Horiez gain, badira izaera artistikoa duten argazkiak ere. Hain zuzen ere, Cristina Prat argazkilari bartzelonarrak sarrailagintzaren eta gorputzaren arteko lotura irudikatzen duen argazki sorta egin du erakusketa osatzeko.

Erakusketa-komisarioek, Ainara Elgoibarrek eta Manuela Chiapponik, azaldu digute aurretik Isabel Aramendiak eta Leire Parrak erakusketa industrialaren gainean egindako lana ere baliatu dutela erakusketa diseinatze orduan: "Izugarrria da arrasatear horiek egin zuten lana, eta oso baliagarria egin zaigu, herriko industriaren historian Zerrajerak garrantzi handia izan duelako".

BIDEO-ELKARRIZKETAK

Aipatutako argazkiez gain, Itsaso Del Castillo kazetariak lau elkarrizketa-bideo egin dizkie

jartzea, baina ez dute bazterten etorkizunean beste nonbaiten ere egitea.

DONOSTIAN AURKEZTU DUTE

Izan ere, herenegun, eguaztena, Donostiako Koldo Mitxelena aurkeztu zuten erakusketa. Erakusketa-komisario biek, Arrasateko jarduneko alkate Ignazio Lakuntzak, Josemari Velez de Mendizabal historialari arrasatearrak, Juan Ramon Garaik eta Zerrajerako gerente Luis Carrasconek esku hartu behar zuten ekitaldi horretan.

Horrekin lotuta, Kulturateko klaustroetan gaur, egubakoitza, jarriko duten erakusketaren lagin bat eraman zuten eguaztenean Donostiara, Koldo Mitxelena, hara hurbildutako kazetariak eta bestelako interesatuak erakusketa horretan aurki daitekeenaren berri zehatza izan zezaten.

HISTORIA ETA BITXIKERIAK LIBURU BATEN

Fabrikaren gaineko 'Ama, Zerrajera' liburua ekainaren 22an argitaratuko dute

Urteurreneko ekintzekin lotuta, Zerrajera enpresak *Ama, Zerrajera* izeneko liburua argitaratuko du ekainaren 22an, enpresa sortu zela 101 urte beteko diren egunean.

Liburua elebiduna izango da, eta hiru atal nagusi izango ditu: bata, fabrika horren historiaren gainekoa, Josemari Velez de Mendizabalen eskutik; beste bat, fabrika eta langileen artean izandako anekdoten gainekoa, Zerrajerako praktikante Jose Angel Barrutiabengoaren eskutik; eta hirugarrena eta azkena, enpresan jazotako sindikatu-mugimendu eta langileen borroka jasotzen duena. Azken atal horren ardura hartu du Juan Ramon Garaik, Zerrajerako langile eta sindikalista.

Liburuan 110 bat argazki batuko dituzte. Horieta batzuk Kulturateko erakusketan ere izango dira ikusgai, eta beste batzuk, berriz, ezezagunak izango dira. Bestalde, euskaraz eta gazteleraz, hizkuntza bakoitzean 65 orrialde batu dituzte liburuan.

Lehenik eta behin, enpresako zuzendaritzak liburua langileen artean banatzeko asmoa du. Horrez gain, zuzendaritzak oraindik ez du eman aditzera gerora liburua salgai jarriko duten edo ez.

Bestalde, jakin badakigu Zerrajerak herrian izan duen garrantzia eta herritar ugari bertan lan egin dutela kontuan hartuta, Arrasaten interes handia egongo dela liburu hori eskuratzeko. Horren gaineko informazioa eskuratu ahala jakinaraziko dugu.

JAIK

San Juan jaien egitaraua ia prest dute

Vanexxa 'pin-up' eta musikaria, Toom Pak perkusio taldea eta beste, berrikuntzak

I.B. > ARRASATE

Udaleko Kultura Saila lanean dabil San Juan jaien egitaraua finkatzeko. Dagoeneko lan handia aurreratuta dute, eta ezagutzera eman dizkigute hainbat ekintza.

Monterongo musika ikuskizunei dagokienez, hilaren 24an Vanexxa *pin-up* eta musikariak ikuskizuna egingo du, eta Gose taldea izango du lagun agertoki gainean.

Bestalde, hilaren 25ean, Toom Pak taldeak perkusioa eta koreografiak uztartuko ditu. Mayumana taldearen ildo darama Alcalá de Henaresko talde horrek.

PILOTA PARTIDUAK

Norgehiagokei dagokienez, hilaren 25ean, Uarkapen pilota partidu profesionalak egingo dituzte: Saralegi eta Apraiz Mendizabal eta Oteizaren kontra; eta Olaizola II.a eta Argote Bengoetxea IV.aren eta Zearraren kontra.

Bestalde, Dragoi Jana, Errementari Dantza, bertso saioa eta halako ekitaldi finkoak ere izango dira.

LITERATURA

Poesia gida kaleratu du Udal Bibliotekak

I.B. > ARRASATE

Udal Bibliotekak poesiaren irakurketa bultzatzeko gida kaleratu du. Gida hori osatzeko, hamar poeta aukeratu dituzte, Euskal Herrikoak batzuk eta kanpokoak beste batzuk.

Gida hori egiteko koordinazio lanaren ardura Rikardo Arregik hartu du; eta gida horien aleak eskuragarri daude Kulturaten bertan, edozeinek har ditzan.

GENEROA EZAGUTZERA EMAN

Udal Bibliotekako arduradunek azaldu digute gida hori kaleratzearren helburua dela arrasatearren artean poesiaren generoa ezagutzera eman eta irakurleak poesia irakurtzera gonbidatzea.



Costa Rica

899 eurotik aurrera

Erreserba 30 egun lehenago
eginez gero, %8ko deskontua*
(Uztailaren 28tik abuztuaren 20ra ezik)

ALMERIA

(Uda guztian - San Juan jaia
eta abuztua barne)

HLG hoteletan
%25eko deskontua

SALOU

(San Juan jaia + UDA)

Astebetez - Mantenu erdian
277 eurotik aurrera
(umeak doan)

TUNISIA

Astebetez - Mantenu erdian
290 eurotik aurrera

Eta honetaz gain aprobeitza itzazu, ekainerako ditugun **HEGALDI BEREZIAK!**
Mexiko, Tenerife, Punta Cana, Kanaria handia...
Aukera hauek eta gehiago Arrasate Bidaiak-en!

SASKIBALOIA > MUGARRI ALKESA

Domekan jokatuko dute EB Ara igotzeko finala

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Domekan (18:30) jokatu du Arrasateko Mugarri Alkesak denboraldiko final handia, Zaragozan. Zurutuzaren mutilek joan den urteko lorpena errepikatu dute, EBA ligara igotzeko finala jokatu dute; orain, baina, partidu bakarrera izango da lehia eta Aragoiko txapelduna izango dute aurrean.

Mugarri Alkesak Lauko Finala jokatu zuen iaz Iruñean, eta orduan, Arrasateko taldeak ezin izan zuen aurrera egin. Aurten, berriz, denboraldi bikaina errepikatu eta berriro ere egoera berean daude, EB Ara igotzeko azken urratsean. Aurten, baina, federazioak erabaki du finalak beste modu batean egitea.

Hala, Aragoiko onenak –Desarrollo Utebo– Euskal Herriko eta Errioxako bigarren sailkatuaren kontra jokatu du –Mugarri Alkesa–. Aragoiko taldeak saria du, bere multzoan lehenengo sailkatu delako: etxean jokatu dute final hori.

DOMEKAN, 18:30EAN

Hori horrela, *Zuru*-ren mutilek partidua jokatzeko Zaragozaraino egin beharko dute bidaia. Ez dira, baina, bakarrik joango, klubak autobusak jarri dituelako zaleek taldea gertutik jarraitzeko (20 euro). Kontrarioaren kantxan jokatu dutela kontuan izanda, Ointxe! klubekoek ahalik eta zale gehien izan gura dituzte ondoan; hitzorduak merezi du.

Kontrarioari dagokionez, Mugarri Alkesako hainbat lagun Uteboren azken jardunaldiak jarraitzen ibili dira. Horren berri eman digu Jagoba Gamarrak: "Eurak ondo nagusitu dira ligan, eta *play off*-etan ere lehenengo sailkatu dira. Esloveniako bi jokalaririk dituzte; euretako batek 2,15 metro ditu, eta, baloiarekin oso abila ez bada ere, gogor defendatuko du. Hala, talde hori Cai Zaragozako filiala dela jakinda, kontrario gogorra izango da".

TALDEA, GOGOTSU

Arrasatekoek orain dela hiru aste amaitu zuten igoera fasea, baina tarte horretan ez dira geldi egon. Lagunarteko norgehiagokak jokatzearekin batera, aste barruan entrenatzen ibili dira. Taldekideak gogoz daude finala irabazteko, nahiz eta azken orduko ezbeharrak izan duten: *Zuru*-k *Astelehenerako Goienkaria*-ri aurreratu moduan, Iñigo Biainek orkatila bihurritu zuen, eta aste barruan makuluarekin zebilen.



Alartzia izako Lauko Finalerako sailkatzeko partidu erabakigarrian, Gasteizen. X.U.



GOIENKARIA

Dribling, bikotea egiteko gertu

Kopan nagusitu den Driblingek azkeneko partidua irabazi behar du ligan ere jaun eta jabe izateko: finala. Horretarako, Betraye gainditu beharko dute bihar, 17:30ean. Lehenago (16:30), urtea biribiltzeko finalerako sailkatzea falta izan zaien Iluntz eta Saukelu izango dira hirugarren postuagatik lehian. Argazkian, izako finala.

ATLETISMOA > ASTEBURUKO EMAITZAK

Eskola arteko eta klubetako txapelketan, ondo

Jonathan Perezek gutxiatik ez zuen 5,10 metroko saltoa egin (4,90)

Josu Revuelta (brontzea altuera saltoan) eta Iñigo Uribarren (zilarra salto hirukoitzean).

ANOETAN BOSGARREN

Atleta nagusiagoak, berriz, Anoetan lehiatu ziren, klubetako txapelketan. Aipatzekoa da arrasatearrek 4x400 txandakako lasterketan irabazitako urrea; izan ere, Zufiriaren mutilek ondo menderatzen dute modalitate hori. Horrekin batera, Jonathan Perezek gutxiatik ez zuen 5,10 metroko saltoa egin; dena dela, 4,90 metroko saltoarekin ere, hura izan zen onena. Hala, klubetako sailkapenean arrasatearrak bosgarren sailkatu ziren.

X.U. > ARRASATE

Asteburuan bi hitzordu izan dituzte Arrasateko atletak. Batetik, gazteenek Eibarren jokatu zituzten eskola arteko txapelketak. Hala, Arrasatekoek lan ona eginda bost domina ekarri zituzten etxera: Ukene Dorronsoro (urrea 80 metrokoan), Chen Yian (urrea 1.000 metrokoan), Asier Amutxastegi (brontzea 3.000 metrokoan),

EAE

EUSKO ABERTZALE EKINTZA

ANV

ACCION NACIONALISTA VASCA

3333 bozka, ZAZPIAK BAT lan egiteko

3MILA333 ESKER, ARRASATEAR GUZTIOI

Arrasateko EAE-ANV

Kanpotarrak Arrasaten

Lidia Alexandra Costa > Portugaldarra da
Arrasaten bizi da

"Gauean kalera ateratzeko ohiturarik ez dago Porton"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Porto atzean utzi eta Arrasatera etorri zen orain dela bi urte Lidia Alexandra Costa, 5 urteko semearekin. Urtebete lehenago senarra heldu zen ibarrera, lana dela-eta. Gustura daude, baina ez dakite noiz arte izango diren Debagoienez.

Jaioterria uzten zuen lehen aldia zen. Portugalgo egoera ekonomikoa oso ona ez dela-eta, lana topatzea ez dela erraza dio. Hori dela-eta, lan egiteko irten beharra dagoela azaldu du 28 urte gazteak. Hasieran, Madrilera joatekotan zen, lana dela-eta, baina azkenean Arrasaten amaitu zuen. Era-

baki zuzena hartu zuen, orain "askoz hobeto" bizi dira-eta.

Momentuz, ez du kanpoan lan egiten Costak. Semeaz eta etxeaz arduratzen da. Ez du baztertzan egunen batean zerbait bilatzen hastea, baina "oraindik ezinezkoa" da, "umea zaintzeaz arduratzen den inor ez dut-eta". Lagun

"Oraindik ez dut lan egiten; 5 urteko umea daukat eta hura zaintzeaz arduratzen den inor ez dut"



Irudian, Lidia Alexandra Costa.

portugaldarra du Arrasaten, baina ez du askotan ikusten, hark bi seme-alaba dituelako eta oso lanpetuta dabilelako beti.

"GASTEIZ GUSTUKO DUT"

Astegunetan ez du ezer berezirik egiten, baina asteburuan Euskal Herria ezagutzea du gustuko: "Gasteizera joatea gustatzen zait, hiri bat da eta mugimendu handiagoa dago han". Bizitzeko, hala ere, nahiago du herri bat. Debagoienera jendearen jarrera ere gustuko du Costak: "Ez naiz sekula diskriminatuta sentitu", dio.

Portoren eta ibarraren artean aldea dagoela esan du: "Gauean kalera ateratzeko ohiturarik ez dago han, bizi kalitatea okerragoa da-eta". Jakiak ere ezberdinak direla gaineratu du; hori eta familia sumatzen ditu faltan.

Hala ere, askotan joaten da jaioterrira bisitan. Bi hiletik behin, gutxi gorabehera. Portora joateko asmoa duenari, hondartzak ezagutzea eta ardoa dastatzea gomendatu dio Costak.

bere ustez



Jokin Etxebarria

Kirol ikasketak ingeniari-tan

Ingeniaritza eskola (edo Mondragon Unibertsitatea esan beharko?) geroz eta gehiago zabalitzen ari dela ezin ukatu daiteke. Dagoeneko Iturripeko kiroldegia ere guztiz inguratuta du eskolak, pelikuletako poliziek gaizkileak inguratzen dituzten antzera. Hori dela eta ez da harrizkoa egunero kiroldegiko kantxak beteta ikustea. Bizia ematen diote, hori bai, baina bide batez baita herri-tarrei aukera kendu.

Urteak daramatzat lagunekin asteen zehar futbito

"Askotan pentsatu izan dut ingeniari-tza beharrean kirol ikasketak ematen dituztela"

partidak botatzen. Futbole-an eskasak garenok, Zaldibarko txapelketan parte hartzeko entrenatu beharra izaten dugu, baina horretarako ere zailtasunak!

Egunez lanean dabiltza lagun gehienak eta arratsalde partean gelditzen gara noizean behin futbole-an egiteko. Bada Iturripen ezinezkoa zaigu jokatzeko, nahiz eta guztiok kiroldegiko bazkide izan. Kantxa guztiak hartuta egoten dira (frontoiekin ere berdina gertatzen da) Ingeniaritza eskolakoengatik. Libre badago jokatzeko hasi gaitzke, baina ikasleren bat etorri gero, alde egin beharra daukagu.

Askotan pentsatu izan dut ingeniari-tza beharrean kirol ikasketak ematen dituztela Eskola Politeknikoan.

Hau be badaukogu



HARREMAN

Zapatuan egindako azoka solidarioarekin oso pozik azaldu dira antolatzaileak

Elkartasun Eguna egin zen zapatuan Arrasateko Seber Altube plazan. Han izandako taldeak pozik azaldu dira arrasatearren erantzunarekin. Mundukide, Bidezko Merkataritzakoak, AMS, Txatxilipurdi, Arizmendi Ikastola, Copade, ISF, Harreman, Medicus Mundi, Nubi Elkartea eta Ankur proiektua izan ziren. Bidezko Merkataritzako postuan, adibidez, 1.200 euro inguru jaso ziren. Ibai Arteko merkatarien produktuen tonbola ere arrakastatsua izan zen. 4.000 euro baino gehiago batu ziren. Diru kopuru hori Bonbayra (India) bidaliko dute, Ankur proiektura. Antolatzaileek eskerrak eman gura izan dute parte hartu zuten guztiei.



ausartu zarela
Eskerrik asko, Arrasate



UDAL HAUTESKUNDEAK 07 > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

Alderdi guztiekin hitz egingo du EAk datorren astean

EAk uste du komeni dela gehiengoa lortzea, alde batetik edo bestetik

Aralarrek uste du logikoa dela alkatetza EAk izatea, boto gehien lortu dituelako

OIHANA ELORTZA > BERGARA

EAE-ANV alderdiak lortu zituen domekan boto gehien eta zinegotzi gehien, sei, baina ez bakarrik gobernatzeko beste. Orain, datoen lau urteetan egongo den udal gobernua eratu behar dute alderdiek. Ekainaren 16a baino lehen egin behar dute, orduan osatuko baitute gobernu berria.

"UDAL ABERTZALE ETA AURRERAKOIA"

EAE-ANV alderdia datorren astean bilduko da gainerako alderdi guztiekin aukerak aztertzeko. "Domekako emaitzak erantzukizunez hartuko ditugu. Argi gelditu da herriak ez duela berriro EAJ nahi agintean eta hori aintzat hartuko dugu", esan du Agurne Barruso EAeko alkategaiak. Norekin elkartuko diren galdetuta, nola Udal osatu nahi duten esanaz erantzun du: "Guk Udal abertzalea eta aurrerakoia egin nahi



HAUTESKUNDEAK Domekan izan ziren Udalerako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak.

GOIENKARIA

dugu eta horretan saiatuko gara". Beste alderdiek egin dezaketen hitzarmenez ere hitz egin du berba Agurne Barrusok: "Gu gobernatzeko prest gaude, baina ez dugu botere antisarik. Gainerako alderdiek euren arteko paktua egiten badute eta oposizioa joan behar badugu, joango gara", esan du. Bide batez, Agurne Barrusok eskerrak eman nahi izan die eurengan

konfiantza jarri duten herritarrei eta domekatik hona laguntza eskaintzera hurbildu zaienei.

AUKERA GUZTIAK AZTERTU

Aralar Mikel Etxanizen iritziz, emaitza onak lortu dituzte, duela lau urte baino boto gutxiago jaso duten arren. Aurrera begira, uste du Aralarrek duela Udalerako gobernua osatzeko giltza, baina giltza horrek zein ate zabal-

duko duen ez daki oraindik: "Logikoa izango litzateke EAeko zerrendaburua izatea alkate, alderdi horrek lortu dituelako boto gehien, baina oraindik ez dugu inorekin hitz egin. Guk eskaintza guztiak aztertuko ditugu. Argi gelditu dena da herriak aldaketa nahi duela".

EAJko German Muruamendiarendako onena izango litzateke gehiengoa lortzea, proiektuak aurrera atera ahal izateko. "Gehiengoa izan daiteke alde bateko edo besteko alderdiak batuta. Aralar eta EAekin jarraitzen badugu, guk izango dugu, baina oraindik ez dugu inorekin hitz egin eta ez dakigu zein asmo duten. Aukera guztiak aztertuko ditugu", esan du EAJk aurkeztu duen alkategaiak. Alderdietako goi karguek boto gehien lortu dituzten zerrendak kontuan hartu beharko litzukeela ere uste du Muruamendiarendak.

> KILOMETROAK
Eskolarteko bertso finala jokatuko dute gaur frontoian

Gipuzkoako eskolarteko 27. bertsolari txapelketako finala jokatuko dute gaur, egubakoitzea, arratsaldean Bergarako udal frontoian. Kilometroak 07 festaren kultura programaren barruan sartzen da ekitaldia.

Bat-batean arituko diren finalistak bi taldetan daude banatuta: lehen taldean 14 urte artekoak lehiatuko dira; lau talde. Bigarren taldekoak 15 urtetik 18 urte bitartekoak dira eta zortzi gaztetxok egingo dute bertsoan maila horretan. Andoni Egaña bertsolaria izango da txapelketako finalaren aurkezlea eta gai jartzailea. Bertso saioa 16:00etan hasiko da.

> HIRIGINTZA
Osintxuko zubia argizatzen lanak adjudikatu dituzte

Osintxuko zubia argizatzen proiektu teknikoaren eta baldintza administratiboaren plegua onartu du maiatzeko osoko bilkurak aho batez. Kontrata bidez obra hori egiteko aurrekontua da 26.800 euro, eta astelehenean amaitzen da eskaintzak aurkezteko epea. Adjudikatutako lanak lanon kontratua sinatu eta hilabeteko epean bukatu beharko dituzte.

> ODOL EMAILEAK
Eguaztenean da odola emateko hurrengo hitzordua


Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, hurrengo eguaztenean, ekainak 6, da odola emateko hurrengo hitzordua. Oraingo honetan ere betiko tokira eta ohiko ordutegi barruan etorriko dira Donostiatik odola ateratzera: Seminarioan izango dira 18:00etatik 20:30era.

Odola emateko hurrengo eguna hamabost egun barru izango da, ekainaren 20an.

Udal hauteskundeetako emaitzak, hauteslekuka

ALDERDIA	SEMINARIOA	POLIGONOA	OSINTXU	MARTOKO	LABEGARIAIETA	GUZTIRA	ZINEGOTZIAK
EAE-ANV	1.131	477	102	280	196	2.186	6
EAJ	950	512	78	281	153	1.974	5
Aralar	596	206	29	144	81	1.056	3
PSE-EE	274	196	22	152	40	684	2
EA	316	108	20	60	42	546	1
EB	123	51	10	73	17	274	0
PP	114	64	3	52	3	236	0

ITURRIA: BERGARAKO UDALA



ausartu haizelako
Eskerrik asko, Bergara

aralar



AGORROSIN > LEHENENGO FASEA BUKATZEKO FALTA DENA

Bainuetxea ekainaren 9an zabalduko dute eta berdegunea, 16an

Kirol txartela Bergaran atera dutenek bakarrik erabili ahal izango dute Agorrosingo bainuetxea

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Agorrosingo bainuetxea ekainaren 9an zabalduko dute. Jarri dituzten saunak, ur putzuak, txorrotak eta dutxak probatu dituzte, eta ingurua garbitzea eta txukuntzea baino ez zaie falta.

50 PERTSONARENTZAKO LEKUA

Guztira 50 pertsona egon daitezke batera bainuetxean eta Agorrosingo sarreratik sartu ahal izango da barrura; igerilekutik ez da sarbiderik egongo. "Bi arrazoi nagusi hauengatik: barruko aforoa kontrolatzea askoz zailagoa izango delako horrela eta kirol txartela Bergaran atera dutenek izango dutelako baka-

rrik bainuetxea erabiltzeko aukera. Txartel mankomunatuak ezin dira sartu", azaldu du Unai Asurmendik, Kirol teknikariak.

Bainuetxeko aldagelak pasa eta gero, eremu lehorra, bustia eta atsedeen eremuak daude. Hiru eremuen artean, lau dutxa dauden plaza txiki bat dago. Dutxa bakoitzak gorputzeko atal batera botatzen du ura eta derrigorrezkoa izango da dutxatzea eremu batetik bestera pasatzeko. Eremu lehorrean, esaterako, sauna lehorra, hezea eta hotza daude; atsedeen gunean etzanda egoteko eserlekuak egongo dira eta eremu bustian, bi ur putzu: bat hotza eta bestea beroa. Ur hotzeko putzua txikiena da eta 14 graduan egongo da ura. Putzu handiko ura, berriz, 33 gradutan egongo da eta hiru zatitan egongo da banatuta: ur txorrotak lepora botako duten gunea, ur txorrotak botatzen dituzten bederlatzi txorroz inguratuta dagoen eser-

tzeko gunea eta putzuaren erdian, etzanda egoteko hiru ohe. Ur txorrotak dituen ibilbide bat ere egongo da.

Bainuetxean ere irisgarritasuna kontuan hartu dute, baina gutxitu fisikoek ezingo dituzte zerbitzu guztiak erabili: "Saunak, dutxak eta atsedengunea bai, baina ur putzuak ez", esan du Unai Asurmendik.


BAZKALTZEKO TOKIA KANPOAN

Kanpoko berdegunea ekainaren 16tik irailaren 10a arte egongo da zabalik. Igerilekueetatik eta tabernatik joan ahal izango da. Dutxak eta komunak daude izkina batean eta erdigunean belarra; erindako belarra duten alfonbrak: "Ezin izan ditugu zuhaitzak landatu gerizpea egiteko, eta aurten toloak jarriko ditugu", dio Asurmendik. Kanpoko terrazan jan ahal izango da eta berdegunearen ondoan barra txiki bat jartzea ere proposatu die Kirol teknikariak tabernako arduradunei.



BAINUETXEA Etzanda egoteko hiru ohe daude putzu handiaren erdian.

O.E.



O.E.

Mikel Urdangarin Gorlako kantuan

Gorlako kantina egunero dago zabalik: eguerditik itxi arte. Bazkaltzen eta afaltzen ematen dute, kartara nahiz plater konbinatuak. Horrez gain, pintxoak eta mota askotako ogitartekoak ere ematen dituzte.

Zapatuan, ekainak 2, Mikel Urdangarin abeslaria etorriko da kantinara eta kontzertua eskainiko du. 21:30ean hasiko da.

PAZKOAK 07 > EURIAGATIK EGIN EZ ZIREN EKITALDIAK

Skate festa eta moto-krosa ekainean egingo dituzte

Ander Mugurutza eta Sara Rodriguez dira aurtengo Mister eta Miss Jatorrak

O.E. > BERGARA

Aurtengo Pazkoetan ekitaldi batzuk lekuz aldatu dituzte eta beste batzuk bertan behera gelditu dira euriagatik; moto-krosa eta skate txapelketak, esaterako. Antolatzaileek erabaki dute ekainean egitea bi txapelketa horiek: skate txapelketa zapatuan, ekainaren 2an, egingo dute, Labegaraietan, 16:00etan, eta moto-kros txapelketa ekainaren 16an, goizean eta arratsaldean. Zezenzaleek ere eskatu diote Udalarari bertan behera gelditutako saioak asteburuan egitea, baina ezetz erantzun die.

Koadrilen eguneko antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu zuten guztiei. 420 lagun egon ziren herri bazkarian eta aurtengo Mister eta



Rodriguez, Gartzia eta Mugurutza. O.E.

Miss Jatorrak erabakitzeke lehiaketan, adibidez, bost parte-hartzaile izan ziren. Javier Gartzia -Bizkaiko Misterra- tartean zegoen epaimahaiak erabaki zuen Sara Rodriguez eta Ander Mugurutza izatea irabazleak. Iñigo Alkorta animatzaile onenaren sari berezia jaso zuen.



Talleres
FILBER S.L.

Makina-erremintendako
filtrazio ekipamenduen eta
garraio zinten fabrikazioa.

Talleres
FILBER S.L.

Amillaga 14 - 71 P.K. • Tel.: 943 76 17 45 • Faxe: 943 76 97 46



Andoni Sierra > Musika Eskolako orkestrako zuzendaria

"Jende berria sartu da, eta orkestra momentu onean dago"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Andoni Sierra 36 urteko donostiarra Musika Eskolako orkestrako zuzendaria dugu. Hirugarren urtez ari da gaztetxoek orkestra zuzentzen. Domekan, kontzertua eskainiko dute Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 13:00etan. Musika Eskolako orkestraz gainera, Conductus Ensemble taldea ere zuzentzen du Sierrak.

Zein da hiru urteotako balantzea? Gustura orain arte egingdako lanarekin?

Bai, oso esperientzia positiboa izaten ari da. Hasiara baten, hutsune moduko bat nabaritu genuen belaunaldien artean, baina azkenaldian jende berria sartzen dabil eta orkestra momentu onean dagoela esango nuke. 8 eta 12 urte bitarteko 15 bat neska-mutiko hasi dira aurten gurekin eta gaur egun 35 gaztetxo inguru dira taldean. Orkestra majoa osatu dugu.

Nolatan donostiar bat Bergaran jardunean?

David Azurtza orfeiko zuzendari ohiaren bitartez iritsi zitzaidan Bergarara etortzeko proposamena, eta berehala onartu nuen. Gustura nabil.

Zein da gaztetxoek horrelako orkestra bat zuzentzearen gauzarik onena?

Adin horietan asko daukate ikasteko eta gertu egoten dira irakasten zaiena barneratzeko. Orokorrean ilusio eta arreta handia erakusten dute ikasleek. Astean behin egiten ditugu entseguak, egubakoitzetan.

Eta buruhauste handien zerk ematen dizu?

Umeeekin eta gazteekin konstantzia izaten da arazorik handiena. Saltsa askotan murgiltzen dira: ingelesa dela, kirola dela... eta, logikoa denez, guztietan konstantea izatea ez da erraza.

Zer-nolako emanaldia egingo duzue domekan Elgetako Espaloian?



Andoni Sierrak zuzendutako Musika Eskolako orkestrak emanaldia egingo du domekan Elgetan.

EDURNE BURGAÑA

"Aurten 15 bat neska-mutiko hasi dira gurekin eta 35 gaztetxo inguru dira taldean"

"Orokorrean ilusio eta arreta handia erakusten dute ikasleek; konstantzia da arazoa"

Egia esan, oraindik [astelehenean] egitaraua guztiz zehaztu gabe daukagu. Kontzertuaren lehenbiziko zatian txikienekin zerbait egingo dugu, ondoren ganbera taldearekin beste hainbat kantu eta bukatzeko, denon artean hainbat pieza joko ditugu, tartean *Star Wars* filmeko soinu banda, Schuberten martxa militarra eta *Pello Joxepe* pieza herrikoia. Emanaldia Elgetara

"Adin horietan asko daukate ikasteko eta gertu daude irakasten zaiena barneratzeko"

"Euskal Herri osoko jendea gabilta Conductus Ensamblen: musika barrokoa egiten dugu"

hurbiltzen diren ikusleen gustukoa izatea espero dugu.

Ikasturteko azken emanaldia izango da domekakoa?

Ez, ekainaren 15ean beste emanaldi bat egingo dugu ikasturtea agurtzeko. Kantuko ikasleekin batera Purcell-en opera txiki bat prestatuko dugu: *Dido eta Eneas*. Mariaren Lagundian egingo dugu emanaldi hori.

Eta hurrengo ikasturterako helbururik?

Ikusi behar ikasleen kopurua... Orain ari gara matrikulazio kanpainarekin.

Bergarako Orkestra Sinfonikoren harrobia al da Musika Eskolakoa?

Ez da hori helburua. Ondo ari direnei handik deitzen diete, baina, hasiera baten, ez dago loturarik bataren eta bestearen artean.

Conductus Ensemble taldean ere zuzendari zabilta...

Bai, orain dela lau urte sortu genuen taldea eta Euskal Herri osoko 50 bat lagun izango gara. Taldekideen kopurua aldakorra izaten da prestatutako emanaldien arabera. Musika barrokoa egiten dugu; abuztuaren, Bizkaiko Jaialdian izango gara, urrian Frantziako Tolosan eta abenduan Bilboko Euskaldunan.

> LITERATURA

Koldo Eleizalde lehiaketaren sari banaketa bihar

Bihar, zapatua, Koldo Eleizalde lehiaketaren sari banaketa ekitaldia izango da, 12:00etan, Zabalotegiko aretoan. Aurten lehiaketaren 22. ekitaldia izan da. Bertso eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte aurten. Bihar, esan bezala, saridunak emango dituzte jakitera.

> ERAKUSKETA

Bergara Hiria Argazki Lehiaketako lanak, Aroztegin

Gaur, egubakoitza, Bergara Hiria Argazki Lehiaketako lanen erakusketa zabalduko dute Aroztegi aretoan. Erakusketa ekainaren 10era arte izango da ikusgai, martitzetik zapatara 18:00etatik 20:30era eta zapatuan eta domekan goizez ere bai, 12:00etatik 14:00etara.

> JARDUN

Euskal Herria Zuzenean jaialdirako laguntzaile bila

Ekainaren 29tik uztailaren 30era bitartean Idauze Mendin (Zuberoa) ospatuko den Euskal Herria Zuzenean jaialdirako laguntzaile bila dabil Jardun elkarteak. 17 urtetik gorakoek ekainaren 15era arte daukate izena emateko aukera. Argibide gehiago 943 76 36 61 telefonoan.

> MUSIKA

Musika Eskolako combo taldeak, Zumarragara

Bergarako Musika Eskolako bi combo taldeek parte hartuko dute oraingo aste bukeran Zumarragan jokatu den talde moderno lehiaketan. Zumarragako Musika Eskolak antolatu du aipatutako lehiaketa eta saioak bihar, zapatua, eta etzi, domeka, izango dira.



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

Uda osoko beltzaran-kolorea erakuts ezazu!

Bost minutuan bakarrik
Oso kolore naturala
%100 naturala
(azukre-kanaberarekin egindakoa)

Estetika zentroa
Igaro



Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

Zorionak, Bergara!




baiezk
borobila!



prozesu demokratikoari bakeari

ASTE BERDEA Arrasate

Ekainak. 5etik-10era



Ekainak 5

17:00 – Seber Altube: Neska-mutilentzako tailerrak - kontsumoa eta aldaketa klimatikoa

19:00 - Kulturate "Una verdad incómoda" pelikula (aldaketa klimatikoa) (Al Gore)

Ekainak 7

17:00 – Seber Altube: Neska-mutilentzako hormirudi handi-handia, birziklatutako materialez

19:00 – Kulturaten Hitzaldia: Bioerregaien etorkizuna Euskadin - Enrique Monasterio Beñaran

EEE/EVE taldeko CADEMEko Garraio Ataleko arduraduna

Ekainak 8

17:30 – Kulturaten: Glup pelikula (marrazki bizidunetako filma:

“Erosi, erabili eta bota. Bai erraza!” Adin guztietarako

19:00 – Kulturaten: Basajaunaren Ametsa dokumentala (basoak eta gizakiaren eragina) Adin guztietarako

Ekainak 9

09:00 – Irteera, udaletxe aurrean Mendi irteera: Ekutioarroa (Ikutixo)

Ekainak 10

10:00 – Eroski alboko berdegunean Erreka garbiketa

*Parte hartu nahi duenak idatzi edo deitu dezala Ingurumen sailera

Tel.: 943252009 agenda21@arrasate-mondragon.net



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ESKUBALOIA

Euskadiko txapelketa jokatu dute bergararrek

M.B. > BERGARA

Asteburu honetako emaitzei ez diete itxaron beharko bergararrek datorren denboraldian, Euskadiko txapelketan jokatu duten edo ez jakiteko; izan ere, automatikoki igo dira.

Igoera faseko lehen postua eskuratu zuten joan zen zapatuan, Usurbil taldeari 27-30 irabazita. 12 puntu dituzte bergararrek; Urdaneta dago bigarren, 11 punturekin; eta hirugarren Urduliz, puntu berekin.

HIRUGARRENA EZ DA IGOKO

Denboraldia amaitzeko partidu bakarra falta dela eta lehen biak igotzen direla kontuan hartuta, automatikoki sartu da Euskadiko txapelketan. Hirugarren dagoena ezin da igo, dagoeneko Urdulizko beste talde bat dagoelako maila horretan.

Eskubaloizaleek domekan, 12:15ean, Labegarietan hitzordua dute. Alipendiren aurka jokatu du Bergarak.

PILOTA > BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Erroizenean-Bengoetxea eta Gorka-Beroiz nagusitu dira

Aurtengo Bergara Hiria txapelketak badu txapelunik: nagusietan Bengoetxea eta Erroizenean nagusitu ziren eta 22 urte azpikoetan, berriz, Gorka eta Beroiz

MIRIAN BITERI > BERGARA

Txapelketa osoan ohikoa izan den moduan, 22 urte azpikoen norgehiagoka jokatu zen lehenengo. Doate-Etxeberria bikotea gogotsu irten zen kantzara, eta hasieran aurreratzea lortu zuen. Baina, seigarren puntura iritsi zirenean, eskuan mina sentitu zuen Doatek.

Beroiz eta Gorka hasi ziren handik aurrera partidua menderatzen. Ederto aritu zen bikote hori eta azkenean, 7-22 irabaztea lortu zuen. 22 urte azpiko mailako txapelkunak dira.



TXAPELDUNAK Joan zen astelehenean jokaturako finalen ostean, finalistekin ateratako irudia.

GOIENKARIA

Ondoren, nagusien txanda iritsi zen. Ordurako, pilotazale asko bilduta zegoen harmailetan. Oso partidu ona ikusi zuten Udal Pilo-

talekura joan zirenek. Onsalo eta Jauregi 15-7 irabazten hasi ziren, Erroizenean eta Bengoetxea aurrean zituztela. Handik aurrera, mar-

kagailua aldatu zen eta azken horiek 20-22 irabazi zuten. Txapelketa osoko pilotari onenak Beroiz eta Bengoetxea izan dira.

Ohorezko mailan jokatu du infantil mailako lehen taldeak

Denboraldi bikaina egin du infantil mailako mutilen lehen taldeak aurtun. Jokaturako partidu guztiak irabazi dituzte bergararrek, bat izan ezik; partidu hartan berdinketa lortu zuten.

Denboraldiko txapelkunak dira eta datorren urtean ohorezko ligan jokatu dute. Irudian, Karlos Gorrotxategi eta Jabi Oregiren mutilak.



BERGARA KIROL ELKARTEA

> MOTO-KROSA

Jaietako proba hilaren 16a atzeratu dute, euriagatik

Joan zen zapatuan jokatu beharreko Euskadiko Open motokros txapelketa ezin izan zen jokatu euriagatik. Candy lantegi ondoko zelaia lokaztuta zegoen, eta, ondorioz, proba bertan behera uztea erabaki zuten. Ekainaren 16a arte atzeratu dute antolatzaileek.

Bergarako Mendekosteko jaien egitarauaren barruan zegoen aurreikusita esandako ekitaldia. Partaidetza mantenduko dela jakinarazi du horren antolatzaile Asier Blazkezek. Azken horrekin batera, Imanol Zalakain, Mikel Gomez eta Josu Mentxaka bergararrak izango dira.

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

Ion Murgizu
PinturakMargoketa
orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialak

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behe • SoraluzeTel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

CAMACHO

Drogeria
UsaindegiaBidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35GURIA
TabernaBidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Mondeo gama: kontsumoa 5,8-9,3 l/100km. CO₂ emisioak 199-326 g/km.

Ford Mondeo berria

Feel the difference

Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g.
ARRASATE-MONDRAGÓN



Bat nahi dut



■ ELKARRIZKETA: UNAI AZKARATE ETA IGOR ELORTZA / KILOMETROETAKO KOORDINATZAILEAK

"Aranzadi Ikastola hobe baten alde lanean dihardugu"

NEREA GARMENDIA

Unai Azkarate bergararra eta Igor Elortza ormaiztegiarra dira aurtengo Kilometroetako koordinatzaileak. Urriaz geroztik buru-belarri dabilta Kilometroak 07 antolatzen. Jai horren inguruko antolaketaren gorabeheren berri eman digute.

Zeintzuk dira aurtengo Kilometroak jaiaren helburuak?

Unai Azkarate eta Igor Elortza: Kilometroen baitan helburu desberdinak biltzen dira, eta nagusiak bi direla esan dezakegun arren, beste bat aipatu nahi genuke, lanean dabilta boluntarioak gogoan: Kilometroetako antolaketan gozatzea. Hau da, ikastolako guraso, ikasle, langile eta ikasleen artean harremanak estutzea eta, ongi pasatuz, jai egun eder bat antolatzea. Helburu nagusi bi horiek dira: batetik, Bergarako herria dinamizatzea eta girotzea, eta horretan ari gara urte guztian hainbat ekimen antolatuz; beste batera esanda, herrian ikastolaren bizitasuna islatzea eta antolatzen ditugun ekitaldien onurak elkar dastatzea. Bestetik, onura ekonomikoa lortzea. Aranzadi Ikastolak, kalitatezko hezkuntza euskalduna ematen jarraitzeko, bere eraikinean inbertsio berriak egiten dihardu. San Martin plazako eraikina berritzen gabilta eta inbertsio horiei aurre egiteko diru-sarrerara sendoak lortu nahi ditugu 2007ko Kilometroak festarekin.

Nolako izan da Kilometroak 07 antolaketaren hasiera?

Unai: Niri neuri kostatu egin zait jai honen dimentsio guztia- ren jabe egitea, nahiz eta lehen egunetik eduki esku artean aurreko Kilometroetako memoriak. Boluntario asko mugitzen dituen antolakuntza da gurea eta nik

ikasketa guztiak, baita DBH ondorengo ikasketak ere, Aranzadi Ikastolan bertan egin arren, orain beste ikuspegi batetik ikusten dut ikastola, eta zenbait aspektu berriak dira niretzat. Bestalde, mota askotako jende desberdina ezagutzen ari naiz.

Igor: Kilometroetako hasiera guztiak bezala. Boluntarioak bildu, lan batzordeak sortu eta arduradunak izendatu behar izan dira; irudia eta leloa sortu, arropak erosi, biltegia eta denda lortu eta prestatu. Urte guztian lanean izango den egitura sortu behar izan da. Lana egon da, baina merezi izan du. Jam aretoan egin genuen moda desfilea ikusita, lan horiek guztiak bere fruitua ematen hasi direla ikusteak merezi duen sententzia gozoa uzten du. Gustura nago eman genion hasierarekin.

Zer iruditu zaizue herritarren orain arteko inplikazioa?

Unai: Apartekoa. Herriarekin batera ari gara ekitaldi guztiak prestatzen. Nire iritziz, oso jai herrikoia da Kilometroak, eta nik, behintzat, argi daukat norekin eta norentzat ari naizen lanean.

Igor: Ona. Jende asko dabil lanean eta jende asko erakutsi du lanerako prestutasuna. Dagoeneko 200 lagunetik gora dabilta lantalde desberdinetan lanean, edo, modu batera zein bestera, laguntzen. Dena den, azken egunera begira jende beharra handia (2.000 lagun inguru) izango da eta lehenbailehen nahiko genuke boluntarioen zerrenda gizentzen hasi, azken uneko estatusunik ez izateko. Izan ere, ez da erraza izango 2.000 boluntario antolatzea. Izenik eman ez duzun irakurle, beraz, anima zaitez!

Zertan ari zarete momentu honetan?

Unai: Urteko ekitaldiak antolatzen aparte, egunekoak prestatzen lanean diharduten lantalde desberdinekin batzarrak egiten.



Igor Elortza eta Unai Azkarate (makurtuta) Aranzadi Ikastolan.

JAVIER VICENTE

"Bergararrek gogoz eta mimoz ekin diote Kilometroen antolaketari"

Abestiaren aurkezpen ekitaldia ere prestatzen gabilta, baita bideo-klipa eta abar ere.

Igor: Batetik, Kilometroak egunera bitarte aurreikusten ditugun ekimenen prestaketan; bestetik, azken egunaren prestake-

"Oraingoz nahikoa osasuntsu ari gara lanean, eta hori beharrezkoa da jai hau antolatzeko"

tan. Guneen diseinua, ibilbidean konpondu beharrezkoak aztertzen, publizitatea eginez lagunduko gaituzten babesleak topatzen, arropa saltzen, metxeroak saltzen, autoaren zozketa, ardo salmenta, otarreak... Jende martxosoa gara,

ikastolaren hezkuntza proiektuarekin konprometituak, Bergarako haurrentako ikastola hobe baten alde lan egiten.

Hemendik aurrera zer?

Igor: Uztaileko KMK eguneko proiektua itxita laga behar dugu. Gune guztiak definitu behar ditugu, hornitzaileekin tratatu egin, erakundeekin larrialdi plana koordinatu, baliabide materialak eta giza baliabide beharrak zehaztu. Urriaren 7ko eguna nola izango den argi izan behar dugu uztaileko; beraz, orain definizio fase horretan gaude. Iraila boluntarioen formaziorako erabili ahal izateko eta azken unekoak konpondu ahal izateko, aurreko dena prest uzten, alegia.

Unai: Motorra martxan daukagu eta lantaldeak lanean fin ari dira. Orain, Kilometroak eguneko etorriko diren milaka lagun beharrei ahalik eta era egokienean irteera ematen saiatzen ari gara. Hor dago, esaterako, aparkalekuak lortzeaz arduratzen ari den udaltzain lantaldea, urriaren 7an Bergaran aparkatzea ahalik eta erosoan izan dadin lanean ari dena; hor daude, baita, ingurumen eta prebentzio lantaldeak lanean, zirkuituan ahalik eta arrisku gutxien izateko lanean ari direnak, eta abar.

Zerbaiten hutsunerik nabaritu duzue?

Igor: Ez dugu hutsune nabarmenik igarri, nahiz eta jakin bat edo beste izango ditugula. Jendea ilusioz, gogoz, ari da lanean eta halakoetan ez da hutsuneetarako tarterik izaten. Bergararrek gogoz eta mimoz ekin diote Kilometroak jaiaren antolaketari, eta, horrek ematen duen indarrarekin, nola egongo dira ba hutsuneak?

Unai: Ez, oraingoz nahikoa osasuntsu ari gara lanean, eta hori beharrezkoa da horrelako dimentsioak dituen jai bat antolatzeko. Lantaldeen giro ona azpimarratuko nuke.

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



Tel. : 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, I-D. BERGARA

- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologia
- Aho zirurgia
- Ortodontzia
- Odontologia orokorra

Aseguruak: PADI (Osakidetza)
LAGUN-ARO,
AEGON

■ ARANZADI IKASTOLA

Ikasle arduratsuak, herritik eta herriarendako sortuak

ANE BARRUSO

Aranzadi Ikastola orain dela 36 urte sortu bazen ere, ikastolaren historia luzea da. 1933-36 urteen bitartean du bere lehen ibilgua, Ariznoako Euzko-Ikastolarekin, hain zuzen ere. Aranzadi Ikastola izenarekin 1971n sortu arren, legezko erdi-ibilgua 1975ean izan zen, orduan eman baitzioten behin betiko legalizazioa.

Aranzadi Ikastolak lehen pausok eman baino lehen, Bergarak izan zuen haren aitzindari bat: Ariznoako Euzko-Ikastola, 1933-36 urte artean herrian martxan jarri zena eta 36ko gerrak suntsitu zuena. 1933ko urtarrilaren 8an zabaldu zenetik 1936an Francoren tropek Bergara hartu zuten arte, herriko ume askok euskaraz ikasteko aukera izan zuten Maria Oianguren irakaslearen eskutik. Horrela, urte batzuk geroago Bergaran sortu zen ikastolaren hazia ereinda utzi zuten herriko euskaltzaleek.

ARANZADIREN AURRETIK

Bergarako Aranzadi Ikastola sortu aurretik, euskarazko eskolak eskaintzen zituzten bi akademia zeuden Bergaran: Koldo Eleizalde akademia eta San Martin Agirre. Esan daiteke bi horiek Aranzadi Ikastolaren aitzindari izan zirela, hain zuzen ere Mizpildin zegoen Santa Infancia ikastetxe elebidunarekin batzean sortu baitzen Aranzadi Ikastola, 1971ko ekainean. Azkenean, Domingota-



Aranzadi Ikastolako neska-mutikoak, ikastolako Seminarioko eraikineko patioan.

JAVIER VICENTE

rrek eta erakunde ofizialetan ondo ikusita zegoen maisu batek egindako bitartekari lanei esker, 1975eko uztailearen 10ean behin betiko legeztapena jaso zuen Aranzadi Ikastolak. Eskertu

beharra dago, beraz, hamaika oztopo legal eta inguruko mesfidantzak gainditurik, ikastola sortzeko ausardia eta kemena izan zutenen lana, herri honen hizkuntza eta gizarte normalizatorako jar zitekeen oinarririk sendoena jarri baitzuten.

KOMUNIKATU, PENTSATU, IKASI...

Eta ibilgu horri jarraitzen dio gaur egun ere Aranzadi Ikastolak. Gure erronka da ikasleek, gure laguntzaz, komunikatzen, pentsatzen eta ikasten, egiten eta ekiten, norbera izaten eta elkarrekin bizitzen ikas dezatela, eta

horretarako behar ditugun baliabide material nahiz pedagogikoen eskuratzea. Hori da, hain zuzen ere, aurtengo Kilometroak jaia Aranzadi Ikastolak antolatzearen arrazoietakoa bat.

Herriak sortutako ikastola izanik, herriari itzuli nahi dizkiogu herritar arduratsuak

HERRIARENA ETA HERRIARENDAKO

Bide honen azken ibilgua herria izatea nahi dugu. Deba ibaiak bere urak itsasora itzultzen dituen legez, guk, herriak sortutako ikastola izanik, herriari taxuzko herritar arduratsuak itzuli nahi dizkiogu: autonomo eta helduak, gogoetarako eta erabakiak hartzeko ahalmena dutenak, ingurura eraginkortasunez egokituko direnak; jarrera kritiko eta eraikitzailea dutenak, lan eta ahalegin pertsonala nahiz taldean ekarpenak egiteko gaitasuna izango dutenak; elkartzasuna, tolerantzia, elkarrizketarako eta laguntzeko prest daudenak.

ELKARLANA SENDOTU

Kilometroak jaiari esker lortu nahi duguna, beraz, hau da: arestian aipaturiko bost kompetentziak (komunikatzen, pentsatzen eta ikasten, egiten eta ekiten, izaten eta bizitzen ikasi) landu eta garatu ahal izateko, beharrezko baliabideak lortzea: batzuk pedagogikoak izango dira; beste batzuk, ordea, fisikoak dira; hala nola, instalazioak, materiala...

Horretaz gain, Kilometroak jaia, ikastolen jaia, herriaren jaia ere izatea: herriak eta herriarendako elkarlanean garatutako proiektua izatea, egitarau zabal eta oparoa prestatuz; Bergarako herriaren eta Aranzadi Ikastolaren arteko elkarkidetzaren trinkotzea eta herriaren interes orokorren alde aritzea; Euskal Herriko lurralde guztietako ikastolekiko elkartzasun bideak sustatzea, besteak beste.

Aranzadik izan zuen aitzindari bat: Ariznoako Euzko-Ikastola, 1933-36 urteetan

PESCADERIA
JOXAN
ARRAINDEGIA

Orain Super
Amaran ere!!

■ ELKARRIZKETA: PATRICIA URRUTIA / ARANZADI IKASTOLAKO ZUZENDARIA

"Ilusio eta atsegin handiz gabiltza lanean"

ENEKO AZKARATE

Aurtengo Kilometroak jaia antolatzea egokitu zaion Bergarako Aranzadi Ikastolaren zuzendaria da. 35 urte ditu eta 8 urte daramatza karguan. Lan askorekin, baina ilusio handiarekin dihardu urte berezi honetan.

Zelan doa orain arte Kilometroetako antolaketa?

Oro har, aurreikusten genuen moduan doa. Urtean barrena aurrera eroaten diren ekintzetarako eta Kilometroak egunerako herritarren parte-hartzea ezinbestekoa bada ere, antolaketa mailan azpimarratu beharra dago Ikastolen Elkarte-tik eskaintzen zaigun laguntza, bertatik jasotzen baititugu herri eta urte desberdinetako esperientziak.

Zelan erantzun du jendeak orain arte?

Oso-oso ondo. Jende pila bat dabil lanean, 200 bat boluntario, eta aurten, aparteko esfortzua egiten badihardu ere, ilusio eta atsegin handiz dabilzala ikusten ari gara. Benetan pozik gaude.

Zertarako antolatzen du Aranzadi Ikastolak aurtengo Kilometroak jaia?

Bergaran, ikastolen proiektuaren alde jendea biltzeko eta sostengu ekonomikoa lortzeko.

Helburu sozialak, didaktikoak eta ekonomikoak izango dira tartean. Ekonomikoei dagokienez, zertarako erabili nahi da batutako dirua?

San Martin plazako eraikinean, Errege Mintegian, erabiltzen ditugun instalazioak berriztatze-ko eta ezarri nahi dugun hainbat berrikuntza pedagogikok eskatzen dituzten espazio berriak egokitzeko.

Zelako ikastola da Bergarako Aranzadi?

Irabazi asmorik gabeko gurasoen kooperatiba bat da Aranzadi, eta langileak eta Udala bazkide laguntzaileak dira. Herri Onurako irakaskuntza kooperatiba

izendapena ere badu, Eusko Jaurlaritzak emanda, herriaren interes orokorren alde egiten duen lanaren errekonozimendu gisa.

Zenbat ikasle ditu gaur egun Aranzadik?

Azken urteotan kopurua nahikoa aldakorra izaten ari da, batez ere beste herrialde batzuetatik datorren ikasle kopurua aldatzen duelako. Ikasturte honetan 700 ikasle inguru dabilzala esan dezakegu.

Eta zenbat langile?

Batez beste 82 lankide gabiltza ikastolan aurten, irakasle eta beste zerbitzuetakoak barne.

Une honetan Aranzadi Ikastolak esku artean daukan erronkarik nagusia zein da?

Betikoa, herritarren parte-hartzearen eta elkarlanaren bitartez, ikastolen Hezkuntza Proiektua aberasten jarraitzea.

Zelako Kilometroak festa izango da aurtengoa?

Egitarau zabal eta oparoa eskainiz, adin eta jatorri desberdinetako herritarrei ikastolen mugimendua ezagutzera ematea da gure nahia. Era berean, antolaketa lanetan gabiltzanondako, oso da garrantzitsua jaia naturarekiko eta osasunarekiko giro sanoan ospatzea, eta horretarako, jakina, ezinbestekoa da guztion inplikazioa. Ea, ba, denok ondo-ondo pasatzen dugun... *pasatu gabe!*

"Oso da garrantzitsua jaia naturarekiko eta osasunarekiko giro sanoan ospatzea"

"Parte-hartzearen bidez, ikastolen proiektua aberasten jarraitu nahi dugu"



Patricia Urrutia.

ENEKO AZKARATE

Zein da Euskal Herri osoari zabaldu nahi diozuen mezua?

Etengabeko eraikuntza prozesuan dagoen Hezkuntza Proiektua garatzen dihardugula ikastoletan, gizartearen beharretara ahalik eta ondoen egokitzea dela gure helburua, eta ikasle, guraso, irakasle eta, oro har, herritarren parte-hartzearen aldeko apustu garbia egiten dugula. Izan ere, elkarlana da gure barne funtzionamendu estiloaren kontzeptua batzen duen hitza.

Aranzadik antolatu zuen 1991n Kilometroak jaia ere. Zelan gogoratzen duzu hura?

Orduan ETEOn nengoen ikasten eta ez nuen antolaketa barruko atalak aurten bezala ikusteko aukerarik izan. Gogoratzen dut eguraldi eskas samarra izanda ere, zein jendetza etorri zen herrira! Izan ere, lagun batzuk lanez gainezka zeudela-eta, laguntzea egokitu zitzaidan! Ea aurtengo Kilometroetan eguraldi hobea eta herritarren aldetik orduko marka apurtzen dugun!



IÑAKI BERASATEGI
ELISABETH ENA
XABIER BERASATEGI
IÑAKI ARREGI
arkitektura estudioa

Barrenkale 7, 1. esk. 20570 Bergara Tel.: 943 76 03 46 Faxa: 943 76 71 81
e-maila: iba.beb@telefonica.net

■ KILOMETROETAKO JANTZIAK

Udako moda koloretsua



Adin guztietako neska-mutikoendako jantzi koloretsuak dira aurtengo kilometroetakoak.

KMK 07. KOMUNIKAZIO BATZORDEA



Izerditako moderno askoak...

KMK 07. KOMUNIKAZIO BATZORDEA



Jantzi bakeroak, kamisetak...

KMK 07. KOMUNIKAZIO BATZORDEA



Lisoak, arraidunak...

KMK 07. KOMUNIKAZIO BATZORDEA



Estilo eta kolore askotako kamisetak: hamaika estilo, hamaika aukera...

KMK 07. KOMUNIKAZIO BATZORDEA



Modan egoteko, argi da: jantzi Kilometroak 07!.

KMK 07. KOMUNIKAZIO BATZORDEA



- Bitxitegia
- Erlojutegia
- Aintzinako hormako erlojuen konponketa eta zaharberritzea
- Gure bitxitegi tailerra
- Edozein bitxi mota itxuraldatzen dugu

Bidekurutzeta 16 • Tel. 943 76 23 94 • 20570 BERGARA



KMK ABESTIAREN AURKEZPEN JAIALDIA

Eguna: ekainak 8

Ordua: 22:00h

Lekua: Bergarako Udal Pilotalekua

Parte hartzaileak

- San Joxepe abesbatza
 - Aritzeta abesbatza
 - 91ko kanta
- Osintxuko Dantza Taldea
 - Alai Taldea
- KMK 07ko abestiaren aurkezpena
 - Belceblues
 - Bertsolariak
 - Emon Taldea
- Ariznoa Gimnasia Erritmikoa
- Musika Eskolako Haurren Abesbatza
 - Abarka Dantza Taldea
 - Txalaparta
 - Alboka

Sarrerak salgai

Frontoian, Elkar liburudendan eta Aranzadi Ikastolan

Prezioa

nagusiak 5 euro eta umeak 3 euro

www.kilometroak.net



■ KILOMETROAK 07, BATZORDEZ BATZORDE

Kilometroen antolaketan lanean fin ehunka bergarar



TRAFIKOA ETA APARKALEKUAK



ARROPA SALMENTA



EKONOMIA



URTEKO IKUSKIZUNAK: KULTURA



URTEKO IKUSKIZUNAK: KIROLA



KILOMETROAK EGUNEKO IKUSKIZUNAK



MUNTAKETA



PREBENTZIOA



ZIRKUITUA

EDEL

TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Hostal BERGARA

**Helbidea: Bidekurutzeta kalea, 34 Telf: 943 76 47 23
BERGARA**



KOMUNIKAZIOA



OSASUNA



BATZORDE GORENA



GIZA BALIABIDEAK



PROTOKOLO TALDEA




TXOSNAK




BATZORDE IRAUNKORRA



INGURUMENA



D. Irala kalea 3
BERGARA
Tel.: 943 76 21 17



D. Irala kalea 2
BERGARA

■ KILOMETROAK 07-KO ABESTIA

Kilometroetako abestia, country doinu dantzagarria



Abestiaren oinarri erritmikoa Belceblues hirukoak grabatu du, baina 25 bat lagunek jardun du grabaketan.

ENEKO AZKARATE

UNAI AZKARATE

Komunikazioaren eta irudiarren ikuspuntutik, abestia da Kilometroetako ikur nagusietakoa, leloarekin eta logotipoarekin batera. Aurtengo Kilometroetako abestia oraingo astean grabatu dute Arrasaten eta ekainaren 8ko jaialdian entzun ahal izango da lehenengo aldiz Bergarako Udal Pilotalekuan.

Belceblues talde bergararreko Asier Elortzak (Aranzadi Ikastolako irakaslea ere bada) egin du abestiaren musika; letra, ostera, Jarduneko bertso eskolakoek.

Country tankerako abesti alai eta dantzagarria da, lehen entzundian sartzen den horietakoa. Horixe zen baldintzetako bat, hau da, komertziala edo erraz harrapatzekoa izatea, irrati formulatan ere entzuteko modukoa. Ikastola, Kilometroak eta ikastolen

inguruko aipua ere behar zuen abestiaren letrak. Horretaz gainera, elkarlana eta kultura aniztasun kontzeptuak islatzea ere beharrezko ikusten zuen Kilometroetako Komunikazio batzordeak, abestiaren ardura eduki duenak.

KULTURA ANIZTASUNA

Asier Elortzak abestiari buruzko zehaztapen teknikoak eman dizkigu: "Kilometroetako abestia alaia izan behar denez, country erritmo bizia eman diogu abestiari eta ahotsak blue-grass estilok landu ditugu. Kultura aniztasunak eta baita musika estilo honek Ipar Amerikako influentziak aipatzera eramaten gaitu. Haizezko laukote baten dotorezia eta indarra ere aipatu behar ditugu. Azkenik, eta hau guztia borobiltzeko, trikitiak eta soinuk euskal kultura kutsua eman diote, eta biolinek folk eta zeltar ukituak". Garrantzitsuak izan dira umeen ahotsak ere.

Goiz Argi

Etxez etxeko laguntza

- Pertsona nagusiendako edo ezinduendako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza.
- Pertsonal aditua.

Simon Arrieta 2a (Solairu artea B)
Tel.: 943 76 72 16 Faxa: 943 76 07 23

TALDE HANDIA

Bergaran jaiak izan direla-eta, jaiegun horiek aprobetxatu dituzte azken entseguak egin eta abestia grabatzeko. Arrasaten grabatu dute. Dozena bat lagunek osatu dute taldea, bizkarrezurra Belceblues hirukoak osatzen badu ere. Eta beste dozena bat neska-mutikok -Aranzadiko ikasleak-umeen korua osatu dute.

Honako hauek izan dira grabazioan parte hartu dutenak: Asier Elortzak, Aitzol Muxikak eta Uxue Rodriguezek ahotsak ipini dituzte. Umeen korua, berriz, Uxue Olaziregi, Danel Urtzelai, Hodei Perez, Xabier Iñurieta, Martin Oteiza, Andoni Etxezarreta, Mikel Arantzabal, Itsaso Kalbano, Paulo Garitano, Mireia Arana, Mikel Vaz eta Irati Murgiondok.

Musikariak, bestalde, honako hauek izan dira: Oihan Vega (bateria), Ibon Larrañaga (gitarra elektriko eta akustikoa), Asier Elortza (baxua eta tronpetak), Josu Zeziaga (esku soinua) Eduardo Txurruka (biolina), Miguel Angel Maniega (tronpetak), Mikel Markiegi (tronboia), Aitor Elortza (saxo altua) eta Josu Alvarez (saxo tenorra).

ELKARLANA

Abestiaren letra egiterakoan, bertsoaren neurriari dagokionez, bertso neurri konkretu baten egitura hartu nahi izan dute Jarduneko bertso eskolakoek, baina betikotasunetik urrun. Horregatik hautatu dute erabilitako neu-

rria, bertso doinu zahar bat, motza eta bizia. Leloa, berriz, neurri konkreturik jarraitu barik erai-ki dute, erritmikotasunari eta melodikotasunari erreparatu.

"Kronologikoki antolatutako bertsoak idatzi nahi izan ditugu: atzo, gaur eta bihar. Ikastolak azpimarratu nahi izan duen ideietako bat elkarlana izan da, jende askoren lana beharrezkoa izan dela, alegia, eta horregatik bertso bakoitzean hitz hori aipatzen da, aditz forma desberdinetan". Enaitz Alustiza, Jarduneko bertso eskolako kidearen berbak dira.

"ERRONKA POLITA"

Alustizak dioenez, "bertso eskolakoendako erronka polita izan da Kilometroetarako kantu hau egitea. Lan desberdin eta garrantzitsua, izango duen sona handia dela badakigulako. Jende askok parte hartu duenez, guztiak koordinatzea izan da lanik zailenetarikoa. Antolaketako arduradunen iritzia kontuan hartu da eta aldaketa batzuk egin behar izan ditugu. Prozesu guztiaren ostean, lortutako emaitzarekin harro eta pozik gaude".

"Azpimarratu nahi izan den ideietako bat da elkarlana, jende askoren lana beharrezkoa dela"



Goian, Asier Elortza eta Aitzol Mujika. Behean, Unai Azkarate eta Uxue Rodriguezekin. ENEKO AZKARATE

ARGI DA

Historia hartuaz oroimenean, Elhuyarren bonbila piztu zenean, elkarlanean, Herriatik ikastola modu berean.

Gurean aitzindari da Aranzadi, Herriaren gogotik indar ugari, elkarlanari, ikastola eredu eta gidari.

Geroaren distira. Aurrera begira. Argi daukagu. Argi da.

Argi izpiak doaz zirrikitutik, euskara ihesean ezpain artetik, elkarlanetik, etorkizuna sortuz iraganetik.

Gure esku daukagu, gero giltza, oinetan garraioa, ahoan hitza elkarlangintza, hori da arrazoi eta baldintza.

Geroaren distira. Aurrera begira. Argi daukagu. Argi da.



Servimasa

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Haitz-Iturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
20570 BERGARA

**GU ERE KILOMETROAK-EN
ALDE!**

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 51 57 57
20100 LEZO



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

■ KILOMETROETAKO EKITALDIAK

Datorren astean aurkeztuko da abestia jaialdi erraldoian

ENEKO AZKARATE

Datorren egubakoitzean, gaur zortzi, entzun ahal izango da lehenengo aldiz aurten-go Kilometroetako abestia. Hogeitik gora lagunek eskainiko dute, eta Belceblues hirukoa izango da ardatz. Jaialdi horretan beste hainbat talde izango dira.

Egitarau zabal eta oparoa presatu du Kilometroetako ikuskitzen lantaldeak ekainaren 8ko jaialdirako. Denetarik izango da: dantzariak, kantariak, musikariak, gimnasia erritmikoa... Mikel Laskurain bergarar aktore ezaguna izango da ekitaldiko gidari, aurkezle lanetan jardungo du-eta.

Honako hauek hartuko dute parte jaialdian: San Joxepe abesbatzak; Aritzeta abesbatzak; Aranzadiko neska-mutikoeak 1991ko Kilometroetako kantua



Belceblues da datorren asteko jaialdian izango den taldeetako bat. Argazkian, Asier Elortza abeslaria.

JOSETXO ARANTZABAL

abesten; Osintxuko dantza taldeak; Alai taldeak; Belceblues-ek; Emon taldeak; Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak; Musika Eskolako haurren abesbatzak; eta

Abarka dantza taldeak. Horretaz gainera, izango dira txalapartariak, alboka jotzaileak eta bertsolariak. Eta sorpresak ere izango dira, ziur.

Jaialdia, esan bezala, ekainaren 8an, egubakoitzean, izango da, Udal Pilotalekuan, 22:00etan hasita. Sarrerak salgai daude pilotalekuan, Elkar libu-

ru-dendan eta Aranzadi Ikastolako idazkaritzan. Nagusiek 5 euro ordaindu behar dute eta umeek 3 euro.

EKITALDI UGARI URTEAN BARRENA

Urtean barrena ekitaldi piloala antolatu dituzte Kilometroetako lan batzordeek. Era askotakoak, gainera: moda desfilea, rock kontzertua, pilota jaialdia, Kilometroetako logotipoen erakusketa, herri kirolen jaialdia, Alberto Iñurrategiren berbaldia eta ikusentzunezkoa, mendi bizikleta irteera...

Eta oraindik izango dira gehiago, urriaren 7ra arte, Kilometroak egunera arte. Esaterako, gaur bertan, arratsaldean, Gipuzkoako eskolarteko bertso txapelketako finala jokatu da Udal Pilotalekuan, 16:00etan, eta ekainaren 23an, Realeko eta Bergarako beteranoeak futbol partidua jokatu dute Agorrosin futbol zelaietan.

LAUDION

HIRU LĀGUNETĪK BĀTEK
EUSKĀRĀZ DĀKI

Zure esku dago erabiltzea

LAUDIO UDALA
EUSKARA ARLOA





ITXAS EDER ARRAINAK

Primitiva Morenoren oinordekoak
Arrain freskoa eta konjelatua
Mota guztietako mariskoak

Toki Eder kalea • BERGARA
Tel.: Arraindegia: 943 76 47 41 • Etxea: 943 76 21 08 • Mobila: 608 77 04 88



BILTOKI

ASPIZA S.L.
BERGARA

BILTOKIK markarik onenak eskaintzen dizkizu

**1955. urtean sortua
52 urte herriaren zerbitzura**

Erlojutegi

IRUDI

Bitxitegia

Osasuna + edertasuna + ongizatea =
ELITium

Tratamendu personalizatuetan onena

Tratamendu erosoak eta ez erasokorrak:

- Estresaren aurkakoa
- Likidoen erretentzioa
- Zelulitisaren aurkakoa
- Zirkulazio arazoak
- Sendotzailea
- Drainatzailea
- Izter lodiak

Estetika zentroa
Igaro

**Zure gorputza
udarako
presta ezazu!**

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Zunbeltz

taberna

BERGARA



Atebi

APAREJADOREAK

OBREN PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZA LANAK

Ibargarai 35, behea Ezk. Tel.: 943 77 70 00
e-mail: atebi@atebi.net

ARREGI AROZTEGIA



Tailerra: Urteaga 20
Tel./Faxa: 943 76 11 73

Erakuslekua: Bidekurutzeta 38
Tel./Faxa: 943 76 31 03



AENOR
ER
ER-02382/97

ferrovial



CESPA

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Kale garbiketa, zabor bilketa, Lorezaintza

Santalaitz 6 behe 2 - BERGARA Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88
mondragon_cespa@cespa.es



ARRETA, C.B.

Eraikuntzak

Era guztietako igeltseritza
Enkofratuak
Inpermeabilizazioak

Aranerreka 25 20 570 BERGARA
Tel: 943 76 10 17 - 943 76 05 67
Mobila: 610 25 42 21 - 678 43 31 32



lbargarai hiribidea 35 • 20570
Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 17 65
• Faxa: 943 79 73 24
bzsistemas@bzsistemas.com
www.bzsistemas.com

bulego
altzariak





Patxi Azkargorta Azpeitian, Urola ibaia atzean duela. Umetan, Bergaran, gerra aurreko ikastolako ikasle izan zen; 1960ko hamarkadan, Azpeitiko ikastolaren sortzaileetarikoa izan zen.

ELENA LAKA

■ ELKARRIZKETA: PATXI AZKARGORTA / AZPEITIAKO IKASTOLAREN SORTZAILE BERGARARRA

"Francoren tropek ikastola erretzen ikusi nuen umetan"

ELENA LAKA

Patxi Azkargorta bergararra 1930ean hasi zen ikastolan. Gerra garaian, tropa frankistak ikastola erretzen ikusi zituen. 60ko hamarkadaren buketan Azpeitiko ikastolaren sortzaileetarikoa izan zen. 60 urtean Azpeitian bizi izandakoa, badu ikastolen inguruan zer kontatu, oraindik ere, Bergarako berbetan.

Zelan hasi zen zeure erlazioa ikastolarekin?

6 urte nituela hasi nintzen ikastolan, ze komunio txikia, 7 urterekin, ikastolatik egin nuen. Orduantxe sortu zen ikastola Bergaran. Hori 1930ean izan zen. Azken urtea 1936a izan zen.

Non zegoen ikastola?

Oraindik ere Bergarara joaten naizen guztietan begiratzen

dut hara. San Pedro kalean, batzokiaren ondoan, farmazia bat dago, Mozos farmazia [orain Eki-lur parafarmazia eta belar-denda dago han, eta Mozos Iparragirre kalean]. Ba hantxe zegoen ikastola, toki hartan.

Zeuek hasi zenuten ikastola?

Bai. Hura ordaindutako eskola bat zen, gurasoen inizatibaz hasitakoa, ze beste eskolak ere handik gertu zeren, juzgadua dagoen leku horretan.

Orduko zer oroitzapen daukazu?

"Maria Alejandra Oianguren zen gure irakaslea; pedagogia berria geneukan"

Zoragarria. Irakasle bakarra zegoen, denondako, baina benetakoa, e? Emakumea zen. Geuk irakasle esaten zotsagun. Ez naiz egon ados harrezkero esaten zituzten zera horrekin: *andereñua. Andereñua* neretako, igual erru batean egongo naiz, erdaldunei kopiaturako gauza bat da. Irakaslea da *profesor*. Geuk hala esaten zotsagun, irakasle. Asko maite ginuzen. Hogei eta hamar umerekin-edo emongo zotsan hasiera. Irakasleak Maria Alejandra Oianguren

"Frankoren tropek atea apurtu eta sartu ziren barrura; negar egin neban"

zeukan izena. *Txantxotenekua* esaten zotsen.

Pedagogia berria ere erabiltzen zen orduan: gure irakasleak egiten zoskun mendira joatea eta goroldioa ekartzea. Gero linternero bati zinkezko bandeja handi bat eskatu, hura ura balitz bezala. Eta ipini han goroldioa, eta zeuri galdetzen zotsun: "A ber, kabo bat egizu, Kabo Matxitxako". Eta geu, raka-raka, eskuekin. Eta hurrengo batean ugarte bat, lago bat, edo... Eta horrek denak zeuri egin eragi-

"Ikastola barik, aita kartzelara eroan zeben, eta gure bizi guztiko tintoreria itxita"

ten zotsun. Horrek denak nik 6 urtetik 10era urte bitartean egiten nituen Bergarako ikastolan. Hori nik gero kontatu diet oraingo irakasle askori, eta horrek txokatu egiten zotsen.

Dena euskaraz ikasten zenuten?

Ez, erdarazko liburuak ikasten ginuzen, beste eskoletan bezala. Eta harezaz gainera, euskaraz. Irakurtzen, idazten, horrek denak. Baina denbora gutxira, gerra etorri zen. Nik 10 urte neuzkan. Frankoren tropak sartuta, handik bi-hiru egunera-edo, atea apurtu egin zeben eta sartu ziren barrura, nik ikusi egin neban, negar egin neban hari begira. Pupitreak eta mapak, oso ederrak geneukan, kategoria. Euskadikoak eta Amerika osokoak, Europakoak, Afrikakoak, Ozeaniakoak, Asiakoak, bakoitzak berea geneukan. Eta tropek denak erre



Kruz Gallastegi 3 BERGARA
☎ 943 76 07 37

zituzten. Hura dena ikusi neban, erretzen.

Ikastola barik geratu zineten.

Bai, ikastola barik, aita kartzelara eroan zeben, eta gure bizi guztiko tintoreria itxita. Nire ama Zegamako zen, eta ni aitona zaharrari laguntzera artzain bidali ninduten. Artzain ibilitakoa naiz.

Eta gero Azpeitira.

Gero hazten nihoan bezala, hasi ziren politikako erresistentziako gorabeherak eta han sartu ginen, edo sartu gintuzten. Harra-patu gintuzten eta bi urtetan kartzelan egon nintzen. Eta gero kartzelatik irten eta, lanean. Orduan pentsatu genuen Azpeitian tintoreria zabaltzea, tinte-etxeetako saltzaileak-eta esanda. Azpeitian lokala bilatu eta hantxe. Eta gainera frontoiaren aurre-aurrean, nire afizino handiena izan dan horretan! Eta gaur arte. Seme-alabak ere hemen izan ginuzen.


Gero hemen ere, Azpeitian, berriro hasi zineten ikastolarekin. Zelan izan zen?

Nik hemen, Azpeitian, lagun bat neukan, azpeitiarra izatez, baina Bergaran ikastolan umetan ibilitakoa, Artekalean bizi ziren. Aita *alanbrerua* esaten ginuan, telegrafoko enplegatua, Goenaga abizena zeukana. Umetako ikastolako lagunak berriz elkartu ginen Azpeitian. Eta hemen beste batzuekin batera hasi ginen Donostia, Errenteria, Lazkao aldean, leku haietan hasi ziren ikastolak banaka-banaka sortzen, eta hortxe, gurdi hortantxe sartu ginen. Hortik Loiolako horretara.

Joan ginen horko ikastola guztiak ikustera, Donostiara, Errenteriara, Lazkaoa. Gero horrelako alkartasun bat egin genuen, federazio bat izango balitz bezala, eta hilerro Lazkaon elkartzen ginen. Beste batzuk gu baino aurrerago zebizenak, ze pausu eman zituzten, horrek denak jakinaz. Hori 1970. urte inguruan izango zen.

Zelako arazoak eduki zenuztuzten; enfrentamendurik bai?

Ez, ez, horrelakorik ez, jendeak ez zuen aurka egin, igual lagundu ez, baina aurka egin, ez. Baina guk entzuten genuen "los ultras de Azpeitia" ginela, nahi ez zutenen aldetik, eskoletan zertarako euskara, eta horrelakoak. Baina gu defenditzen ginen esanez bageneziela beste toki batzuetan, beste hizkuntza bat, bi daukanak, bat daukanak baino erraztasun gehiago dauzkala gauzak



Patxi Azkargorta, beti ikastolen alde.

ELENA LAKA

"Hasieran entzuten genuen 'los ultras de Azpeitia' ginela"

ikasteko, ez zela euskararengatik bakarrik.

Tituludun andereñoak exijitzen zeben. Eta guk lortu genuen gerra aurretik eskola nazionalen izandako maistra batekin egotea. Guk problema azaldu zotsagun, eta esan zigun: "Etortzen badie, ba dihar egin neri eta etorriko naiz". Bera egongo balitz bezala egiten genuen. Gauza hauetan elizaren babesa ere bilatu genuen. Apaiz bat ipini genuen direktore bezala, karreradun gizona zelako.

Zein lokaletan hasi zineten?

Lokal bat lortu genuen, eta hor hasi ginen. *Goenkale*-ko Maria Lui-

"Maria Luisa 'Goenkale'-koa izan zen lehen andereñoa"

sa, Kontxu Odriozola, Mari Tere Garmendiarekin batera, izan ziren lehenengo andereñoak. Baina berehalaxe ume asko hasi ziren eta bete egin zen. Eta orduan beste lokal baten bila hasi ginen. Eta ikusita jesuitek Loiolan toki asko zeukatela, haiengana joan ginen toki bila. Hasieran esan zoskuena Erromako baimena behar zutela. Nik, erdi brometan, esan notsen: "Erromara joan behar bada, ba joango gara", ze nik han baneuzkan lagunak, eta banekien nora joan. Esan zidaten ez zela beharrik egongo, eta baimena eskatu zeben, eta horrela sartu ginen Loiolako lokal handi hartan. Gero denborarekin, Ikas-berri egin zen.

Deba ibaian ezkailuak hartzen zituztenekoak...

ELENA LAKA

Orain ikastoletan diharduten ikasleek ezin dute iruditu ikastolarik gabe-ko gizarte bat; beraien-zako ikastola txorrotako ura bezala da, naturala, betidanikoa.

Haien gurasoek, 70eko hamarkadan haurtzaroa ikastolan eman genuenok, badakigu ez dela horrela, ezagutzen ditugu geure gurasoen lanak eta nekeak geuk euskarazko hezkuntza aitzindari bat izan genezan.

Garai gorabeheratsu haietan beharbada eduki genuen impresioa ikastola geurekin asmatu zela, geurekin batera abiatu zela. Euskarazko hezkuntzak, ordea, izan zuen lehenagoko garairik. 30eko hamarkadan aber-tzaletasunari lotuta sortu ziren lehenengo ikastolak, baita Bergaran ere. 40 urteko iluntasunaren ostean, dena berriro asmatu eta erai-ki behar izan zen, berria balitz bezala, gaur egungo egoera normalizatu arte.

Patxi Azkargorta XX eta XXI. mendeetako ikastolen bilakaeraren lekuko eta partaide izan da. Ezagutu zuen has-tapena, ilunaldia, ekimen berria eta gizartean errotuta-ko gaurko egoera. Mutikoa zen irakasleak geografia goroldioa eskuekin landu bitartez irakasten zuenean. Negar egin zuen bere ikastola erretzen ikusi zuenean. Erreketaren ardura-dunen kontra aritu zen.

Eta ondoren, herriko ume-ek euskarazko hezkuntza izan zezaten lan egin zuen. Jesu-itei argi erakutsi zien asmoa-ren tinkotasuna: "Erromara joan behar bada lokala lortze-ko baimena eskatzea, Erroma-ra joango gara", adierazi zien zalantza izpirik barik. Dio egin-

dako lan guztia, eta asko izan da, beti borondate onez egin duela, ideia batean sinisten zuelako eta helburuaren zuzentasunaz konbentzituta zegoelako, sekula ez duela izan inori kalterik egiteko asmorik. Eta oraindik kanikia eztarrian ipintzen zaiola Ikas-berri ikastolan omenaldia egin zioten egunean aureskua dantzatu zuten umeek "beraienak" izan zirelako.

Bizitzaren azkeneko tantotetan, pentsatzen du ahal zue-na egin duela, ikastolaren eta pilotaren alorretan ibilitakoa ondo eskertu diotela. Familia hazi du, eta zoriontsu bizi dela begitandu zaio, batez ere, auzo-koekin eta herritarrekin ondo konpontzen delako eta maita-tua sentitzen delako.

Gogoan dauka jaioterria, Bergara, nahiz eta urte asko diren ezin dela Deba ibaian ezkailurik harrapatu eta Aran-donean prestatu eta jan, muti-kotan Zubietako tindategitik irtetean aitarekin egiten zuen moduan. Bergaran ospatuta-ko azken Kilometroen zirkui-tua egin zuela kontatu digu, eta asmoa duela, ahal izanez gero, datorren urriko Kilometrotan parte hartzeko.

Patxi Azkargorta izan da ikastolen bilakaeraren lekuko eta partaide

Ikastolen alde egin duena ideia batean sinisten duelako egin du beti

Unea aukeratzea, denbora aurrezte da.

Francis Bacon



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. **Zatoz Bastida Sukaldeak-era.**

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. 8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:

azpeitia 943 150 510
zarautz 943 894 999
bergara 943 767 058

www.bastidasukaldeak.com

bastidasukaldeak



SAIZAR

Betiko Sagardoa



Argi daukagu

KMK'07 ARANZADI IKASTOLA BERGARA

Saizar Sagardoa ikastoleen laguntzaille.

Kale-zahar Auzoa, 39
20.170

USURBIL
GIPUZKOA

Tel. 943 364 597

Fax 943 366 412

e-mail: sidreria@sidrassaizar.com



mingainari tiraka

Joxe Mari Leturia > Garbi enpresako teknikaria

"Alde zaharretan izaten dira izurriteak"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Joxe Mari Leturia bergararrari betidanik gustatu izan zaio egurra. Gaztea zela aroztegi batean ibilizen lanean. Ostalaritzaren sekretuak ezagutu ostean, egurra du berriro ere esku artean.

Zer egiten du Garbik?

Eguraren saneatze lanak egiten ditugu. Zomorro guztiak kentzen ditugu: pipia eta termitak, besteak beste. Horretarako, sistema aurreratuenak erabiltzen ditugu.

Horrelako arazoak non agertzen dira gehien?

Edonon aurki daitezke, baina herrietako alde zaharretan izatea da ohikoena. Hango etxe gehienek egitura egurrezkoa da. Horixe da izurriteendako toki aproposena.

Bailarako eraikin asko ezagutuko dituzue, beraz...

Hala da. Etxe partikularretan ibiltzeaz gain, eraikin publikoetara ere joaten gara. Ibarreko herri guztietan lan bereziak egin ditugu. Elizetako erretaulak eta udaletako egitura saneatu ditugu, besteak beste.



Hezetasunaren kontrako tratamenduak ere badituzue Garbin...

Bai. Gutxi daramagu, baina emaitza onak jasotzen ari gara. Kontuan hartu behar da Euskal Herriko klima oso hezea dela.

Inoiz gertatu zaizu bezero baten etxera joan eta espero ez zenuen zerbaitekin topo egitea?

Askotan esan behar izan diot bezero bati egurra aldatu behar duela. Izurriteen eraginez ezinezkoa dela saneatzea.

Zein da gutxien gustatzen zaizun izurritea?

Ez dakit. Nire lana da eta egurrak har ditzakeen izurrite guztietara nago ohituta.

Zergatik horrelako lanbide bat?

Egurra betidanik gustatu zaidalako. Hasieran, aroztegi bat izan nuen. Ondoren, ostalaritzan ibili nintzen, eta, egurrekin lan egiteko aukera berriz sortu zitzaidanean, ez nuen zalantzarik izan.

Lanbide honetan erretiratzea espero duzu?

Bai. Nire asmoa hori da, behintzat.

bere ustez



Unai Lopez

Biharamuneko aste luzea

Lan-astea bukatzeaz gauden honetan, begirada atzera botaz gero azken zazpi egun hauetan gertaturiko gorabeherak oraindik ezin irentsi gabiltzala dirudi. Bitorianatxo, zinegotzi, txaranga, bozka, bigantxa, estatistika, txosna edo abstentzio hitzok gure belarrietan dantzari diraute, belarrietan soilik balitz...

Herritik kanpo bizi garenontzat beti da atsegina Bergarara Mendekostetan bueltatzea, etxera. Hau marka, batzuk herritik alde egiteko

"Herriko bazterrak majo astindu dituen Udal Hauteskundeak izan direla ezin ukatu"

jaiak noiz etorriko eta besteok herriminez jai giroaz irrikan. Asteburuan eguraldiak gutxi lagundu arren ederki astindu genituen herriko bazterrak, biharamuneko kontuak eta logalea.

Herriko bazterrak majo astindu dituen Udal Hauteskundeak izan direla ezin ukatu. Bergararontzat datarik aproposena ez bazen ere, ahal zuen heinean herriak hurrengo lau urtetarako hitz egin duela da funtsezkoena. Ur handiak baretzeko unea da orain, hausnarketa sakonarena. Kontuak kontu, guztion ahotik hitz egiteak dakarren arriskuak gainean hartuz, lerro hauetatik herri eder honen eta herritar guztion alde gau eta egun lan egiteko eskaera luzatzea nahiko nieke agintari berriei, merezi dugu-eta.

hau be badaukogu

Ingurugiroari buruzko horma-irudien lehiaketa irabazi dute Aranzadiko ikasleek

Arrasateko ingurugiro eskolak zaborraren gaia lantzen duen horma-irudien lehiaketa antolatzen du urtero, "50 urte barru" izenekoa. Aurtengo edizioan, Aranzadi ikastolako 6. mailako 47 ikasleek irabazi dute. Bi taldetan banatuta daude horiek. Saritutako irudian bi egoera azaltzen dira: "zer gura duten eta zer ez konparatzen saiatu dira", azaldu du ikastolako irakasle Ikerne Iturbek. Teknika ezberdinak erabili dituzte horma-irudi koloretsuak egiteko. Sari moduan, motxila bat eta ingurugiroarekin loturiko materiala jaso du talde irabazleak. Aranzadi ikastolak, berriz, material didaktikoa lortu du irudi irabazlea izateagatik.



GOIENKARIA



PARAFARMAZIA • BELAR-DENDA • DIETETIKA

Marian Ortiz Iriondo
Farmazian lizentziaduna
1.578 elkargokide zenbakia

San Pedro 4 Bergara • Tel.: 943 76 44 41
e-posta: eki-lur@hotmail.com • www.eki-lur.com

Esku aldaketagatik eskaintza berezia

Ordutegi berria:
09:00 - 13:30
16:00 - 20:00

Zapatuetan:
09:00 - 13:00

%10eko beherapena txartel hau ekarrita

* beste eskaintzekin ez da bateragarria izango
** epea: 2007ko ekainaren 1etik ekainaren 15 arte



**Maulanda
merenderoa**

Ondo ibili
ferixen!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



euskara

AMAITTU DIE ELEZIÑUAK
DANON ZORIONERAKO,
ZENBAT PROMESA, ZENBAT ILUSIO
SASOI BARRI HONTARAKO,
HAUXE GUZTIAU IZANGO ETE DA
ATXABALTARREN ONERAKO,
LEGEALDIXA HASI AURRETIK
MILLA ESKER DANONDAKO.

aralar

INDEPENDENTEAK



HAUTESKUNDEAK Anjel Bergaretxe (EAE-ANV) botoa ematen Kurtzebarri eskolan, joan zen domekan.

GOIENKARIA

UDAL HAUTESKUNDEAK 07 > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

Herriko egoera bereziari irtenbidea topatu beharko diote alderdiek

Legez kanpo dagoen EAEk jaso zituen boto gehien; eta alderdi bozkatuenek onartu dute irtenbidea topatu beharra dagoela

tuan hartuz gero lau zinegotzi izango lituzke EAEk: Anjel Bergaretxe, Larraitz Arando, Iñaki Iturri eta Nerea Altuna; eta alkatetza negoziatzeko aukera.

EMAITZAK KALEZ KALE

Udal hauteskundeetako emaitzak kalez kale jaso ditugu ondoko taulan. 1. mahaia: Bedarreta, Elkano, Guridi, Murubide, Otorra, Santa Kurtz... 2. mahaia: Andramari, Errekabarren, Herriko plaza, Lausitta, Mitarte... 3. mahaia: Araba ibilbidea, Belorrieta, Iralabarri, Loramendi... 4. mahaia: Baintxe, Markole, Solohandi eta elizate guztiak. Botoa emateko eskubidea 5.426 herritarrek zuten.

EAE-REN BALORAZIOA

Oso gustura daude emaitzekin EAEko kideak, eta eskerrak eta zorionak eman gura dizkiete botoa emandako guztiei: "Aretxabaleta-

rrek aldetaren alde egin dute, gobernuan izan den EAJ laugarren tokiraino jaitsi da-eta. Ez hori bakarrik; aretxabaletarrek eta euskal herritarrek bake prozesuaren eta soluzio bideen alde egin dute", dio Anjel Bergaretxe alkategaiak.

Legez kanpo egonda Udalean zelan lan egin da zalantza orain: "Parte hartzeko moduak egon badaude, eta aurreko legealdian toki batzuetan frogatu zuten, Azkoitian kasu. Baina hori beste alderdien borondatearen esku dago. Aretxabaletarren borondatea eta Espainiako legea aurrez aurre daude eta alderdi bakoitzak esan beharko du zeri ematen dion garrantzi handiagoa; horrek ahalbidetuko edo oztopatuko du gure parte-hartzea", dio Bergaretxek.

Hain zuzen, horixe eskatzen die gainerako alderdiei: "Herriaren borondateari eman diezaiotela lehentasuna, eta bestela, argi eta garbi azal dezatela legea dela eurontzat garrantzitsuagoa". Eta galdera bota du: "Sinisten du inork posible dela herri honetan aurrea egitea talderik bozkatuena alboratu izan?"

ARALARREN BALORAZIOA

Aralar alderdia pozik dago, bigarren alderdi bozkatuena izaten jarraitzen duelako eta aurreko agintaldian beste zinegotzi lortu dituelako, hiru: "Esanenez Aralarren presentzia sendotzen hasita dagoela herrian", esan du Inaxio Garrok. Eta gaineratu du: "Zentzugabeko lege horrek EAE ilegalizatu izan ez balu, aurreko aldiz gure herrian ezker abertzaleko alderdiek gehiengo eskuratuko genuke, zazpi zinegotzi. Horrek agerian uzten du aretxabaletarren erabaki eta jarrera zein den".

Garrok adierazi digu Aretxabaletako egoerari "denon artean" eman behar diotela buelta: "Emaitzak garbi adierazten du zein den aretxabaletarren hautu eta borondatea. Guretzat EAE izan da garaile, eta Aralarrek legitimitate osoa

aitortzen dio. Hori nola gauzatu da adostu behar duguna".

Udal gobernu osatzeko zehin dauden zabalik galdetuta: "Guregandik gertuago ikusten eta sentitzen ditugun alderdiengana eta ezkerreko politika soziala egiteko konpromisoa dutenengana jo nahi dugu, herriaren aldeko inplikazioa erakusten dutenengana".

EA-REN BALORAZIOA

Oso gustura daude lortutako emaitzekin EAEko kideak eta eskerrak eman gura dizkiete eurengana konfiantza jarritakoei. "EAE izan da boto gehien jaso dituen eta legez kanpo egon arren ezin dezakegu ahaztu, hor islatzen delako aretxabaletar askoren nahia", azaldu du Lore Martinez zerrenda-buruak. Eta gaineratu du: "Une honetan iparrorratz izan behar dugun erantzukizun soziala batetik eta herriaren nahia bestetik batu behar ditugu, eta sostengu sozial zabaleko gobernu da guk aurreikusten dugun formula. Eta noski, EAEk partehartzeko bideak aurkitzea". Hala, aretxabaletarren gehiengo ordezkatzen duen Udal gobernuagatik egingo dutela apustu adierazi du Martinezek.

EAJ-REN BALORAZIOA

Balorazio onik ezin dutela egin adierazi digu Arritxu Oliden orain arteko alkateak: "Abstentzio altuak bereziki gure alderdian izan du eragina, eta EARekin koalizioa apurtea ere oso kaltegarria izan da, batez ere Gipuzkoan".

Aretxabaletako egoera oso berezia dela onartu du Olidenek, eta normaltasun politikorako bideak zabaldu behar direla aukera politiko guztientzat: "EAEk izan dituen 800 boto baino gehiagori ordezkapena emango liokeen eta guztiondako onuragarria den irtenbidea legala izatea gustatuko litzaidake". Udal gobernu osatzeko iniziatiba beste batzuek hartu behar dutela esan digu, baina alde aurretik ez diotela aterik inori ixten.

Emaitzak kalez kale

ALDERDIAK	1. MAHAIA	2. MAHAIA	3. MAHAIA	4. MAHAIA	GUZTIRA	ZINEGOTZI KOPURUA
EAE-ANV	186	271	257	135	849	- 4*
Aralar	124	192	198	79	593	4 3*
EA	123	154	194	59	530	3 2*
EAJ	138	174	129	63	504	3 2*
PSE-EE	153	96	132	19	400	2 2*
Ezker Batua/Zutik	51	46	45	19	161	1 0*
PP	38	51	33	5	127	0 0*

* Zinegotzi kopurua legez kanpo utzitako EAEn botoak onartuko balira

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Beltzaran-kolorea lehenago hartzeko partxeak.

+ %100eko beltzaran-kolorea. Egiaztatua. Eguzki eta UVA izpietzat

Erraza eta emaitza ikusgarriekin:

1-Lotara joan baino lehen jarri, utzi gauean efektua egin arte eta goizean kendu.

2-Egunean partxe bat eman gorputzeko atal guztietan: zangoetan, besoetan, sabelean...

3-14 egunez eguneroko emaitza hobeak ematen ditu.



Durana 33 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 10 14



ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

UDAL HAUTESKUNDEAK 07 > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

Itxura guztien arabera, EAJk eta EAK osatuko dute gobernu berria

Alderdi bat zein bestea gertu daude elkarrekin jarraitzeko; koalizioak ere aukera hori errepikatuko dela uste du

OIHANA ELORTZA > OÑATI

EAJ alderdiak lortu ditu boto gehien, baina ez du gehiengo osorik lortu eta dagoeneko hasi da Udaleko gobernu berria osatze-

ko lanean. Lourdes Idoiaga alkategaiak esan duenez, dagoeneko zehaztu dute egutegia gainerako alderdiekin hitz egiteko: "Azken agintaldian EAekin batera egon gara gobernuan eta aurrerantzean ere horrela jarraitzea gustatuko litzaiguke", esan du Idoiagak. EAEk Udalean zein toki izango duen galdetuta, gai hori eztabaidatzen ari direla esan du Idoiagak, beste gai batzuekin batera: "Ereittenek komisioetan parte hartzen zuen eta egoera ahalik eta normalena izaten saiatu ginen", gogoratu du.

EA, EAJ-REKIN ELKARLANEAN

EAKo Ernesto Murgiondo ere prest dago EAJrekin lankidetzan jarraitzeko: "Azken zortzi urteotan ere horrela egon gara, eta, kanpainan esan dugunez, prest gaude elkarlanean segitzeko". Alderdiaren barruan hitz egin duten arren, oraindik ez direla inorekin eseri onartu du Murgiondok. Bestalde, ezkerrean igoera nabarmena ere kontuan hartzeko dela uste du, baina Oñati Ezkerretik koalizioak gobernu osatzeko aukera gutxi dituela uste du.

EAE-REN ENPLAZAMENDUA

EAE-ANVko Marijo Altuberen iritziz, argi gelditu da "inposaketaren garaia" bukatu dela eta jendeak "aldaketaren alde bozkatu" duela. Haren ustez, emaitza horiek zer pentsarazi eman behar diote EAJri eta dio EAE legekoa balitz Oñatin, agian EAJ alderdia alkatetzatza barik geldituko zela Debagoiengan.

EAEk lortutako botoak onartuko balituzte, lau zinegotzi lortuko lituzke: Marijo Altube, Karmelo Arregi, Lierni Axpe eta Mikel Gotzon Igartua. Alderdi horrek enplazamendua egin die eserleku horiek egokitu zaien zinegotzietan: "Herritarren hitza errespetatzen badute, zinegotzi kargua ez hartzeko eskatzen diegu EAJko Mikel Iturrosperi, EAKo Iñaki Galdosi, Oñati Ezkerretik koalizioko Manu Egañari eta PPko Julio Perez de Arri-luzeari", esan du Marijo Altubek. Datozen egunetan herri

batzarra egingo du EAEk eta han finkatuko dituzte aurrerantzean jarraitzeko ildoak. Bide batez, EAEko alkategaiak zorionak eta eskerrak eman gura dizkie kanpainan parte hartu eta konfiantza eman dietenei.

OÑATI EZKERRETIK, EAE ETA PSE-EE

Oñati Ezkerretik koalizioko alkategai Karmelo Perez Almarazen ustez, EAJk eta EAK hitzarmena egingo dute elkarrekin gobernatzeko: "Horrek esan gura du beste lau urtetan kosta egingo zaigula ezkerreko ideiak aurrera eramatea. Baina gu horretan saiatuko gara eta EAErekin eta baita PSE-EErekin batzeko gertu gaude horretarako", esan du Perez Almarazek. "Lapurrak garelako diotenean, jokaera orokorrari begiratu beharko diogu, Oñati ezin da salbuespena izan", esan du koalizioko alkategaiak.



HAUTESKUNDEAK Abstentzia %38,09koa izan zen Oñatin domekan egindako hauteskudetetan.

GOIENKARIA

Udala osatzen duten zinegotzi kopurua

EAJ izan da alderdi bozkatuena, eta EAE-ANV bigarrena. Haien botoak onartuko balituzte, lau zinegotzi izango lituzke; EAJk, EB/Aralar/Zutik eta EAK bat gutxiago, eta PPk zuen bakarra galduko luke. PSE-EE berdin geratuko lituzateke.

ALDERDIAK	A	B
EAJ	8	7
EAE-ANV		4
EB/Aralar/Zutik	4	3
EA	3	2
PSE-EE	1	1
PP	1	0
GUZTIRA	17	17

A: DATU OFIZIAK.

B: BALIAGABEAK ONARTUKIO BALIRA.

ITURRIA: GOIENKARIA

> ETXEBIZITZAK

Ugarkaldeko etxebizitza babestuak eskuratzeko zerrendak ikusgai daude Santa Anan

Ugarkalden beste 40 etxebizitza zozketatuko dituzte datorren uztailan, eta zozketan parte hartuko dutenen zerrenda Santa Anan dago ikusgai; 500 lagun baino gehiagok hartuko dute parte zozketa horretan. Uztailaren 10ean egingo dute, Zubikoa kiroldegian. Zerrendari alegazioak aurkezteko epea hilaren 14an bukatzen da.

Zozketa horretan 40 etxebizitza zozketatuko dituzte: horietatik 28 hiru logelako etxebizitzak izango dira, hamar bikoak eta bi gutxituendako egokituak. Azken zozketa 2006ko martxoan egin zuten; Ugarkaldeko lehen etxebizitzak zozketatu zituzten orduan.



Santa Anan dago ikusgai zerrenda.

O.E.

Udal hauteskundeetako emaitzak, hauteslekuka

ALDERDIA	IKASTOLA	S. MARINA	OLAKUA DORREA	HAUTESKOLA	ERREKALDE	GUZTIRA
EAJ	858	398	230	188	193	1.867
EAE - ANV	482	207	183	248	146	1.266
EB+Aralar+Zutik	450	159	122	211	99	1.041
EA	290	138	84	85	62	659
PSE-EE	104	24	52	52	59	291
PP	80	44	27	18	47	216

ITURRIA: GOIENKARIA



Errementari plaza 8, Oñati
Tel.: 943 53 22 47

- Kirol denda
- Zapalketaren azterketa
- Arreta pertsonalizatua

GINEKOLOGIA KONTSULTA BERRIA OÑATIN

J. Rodriguez Santos doktorea
Ginekologoa

Atzeko kalea 6, behea • ONATI
Tel.: 943 78 24 89 (ordua eskatzeko)

Kontsulta egunak: ostiraletan
9.00etatik 13.00etara
Eta 15.00etatik 18.30era

Aseguruak:

Lagun Aro, Adelas, Aegon, Mapfre, Winterthur, Foru Aldundia, Sanitas, DKV.



HERRIKO TALOGILEAK Herriko talogileek egindako lana goraiatu dute antolatzaileek.

ARIZMENDI

(15. orritik dator)

Ikasleekin jarraituta, horietako batzuek, nagusienez, txikiendako tailerrak jarriko dituzte: aurpegi margotzea, hennazko tatuajeak eta beste bi.

TOPONIMIAREN CD-ROMA

Denetatik aurkitu ahal izango da azokan. 15. orrialdean aipatutako guztiaz gain, Eskoriatzako toponimiaren gaineko CD-ROMa ere eskuragarri egongo da bertan. Aitzorrotz Kultura Elkarteko kideek egin dute, eta azokan jarriko dute lehenengo aldiz salgai.

Bestalde, urtero moduan, animalia ugari eramango dituzte azokara; batez ere, animalia bereziak: hegazki mota asko, kanguruak, arantzurdeak eta bestelako animalia exotikoak.

Egun bakarreko azoka eta jaia

2, zapatua

09:00 Etxafuego jaurtiketa.

09:30 Txistulariekin kalejira.

10:30 Ferixaren hasiera:

baserriko produktu eta

elikagaiak, artisautza, abere

erakusketa eta tresneria.

11:00 Haur eta gazteendako

tailerrak Herriko Plazan.

11:30 X. txorimalo lehiaketa.

12:00 Trikitilariekin kalejira.

13:00 Kikee taldea: perkusio

eta dantza tailerra. Eta gazteen

trontza erakusketa.

13:45 Azokako saltokien eta

txorimalo lehiaketaren sari

banaketa. Errifa zozketa

ikastolaren aurrean.

15:00 Herri bazkaria eta

dantzaldia pilotalekuan.

Aurten ere azokaren zutabe garrantzitsuenetako bat talogileak izango dira. Herriar talde horrek azoka hasi zenetik urtero-urtero lan egiten du.

TRONTZA ERAKUSTALDIA

Bestelako ekitaldiak ere egingo dituzte. Adibidez, DBHko 1. eta 2. mailtako ikasleek trontza erakustaldia egingo dute. Jose Mari Arkautz saltsero eskoriatzarrak konbentzitu ditu gazteak, eta euren tamainako trontzak egin dizkie. Jakina, Arkautzek ere izango du erakustoki propioa. Aurten zorrotzaile lanetan ibiliko da.

Horrez gain, Kikee taldeak perkusio eta dantza tailerra egingo du; eta herri bazkarian dantzaldia izango da. Bazkarira joan gura duenak eskolara joan behar du lehenbailehen.

Txorimaloak egiteko lehiaketak hamargarren aldia beteko du zapatuko azokan

Azokako bigarren ediziotik aurrera txorimalo lehiaketa antolatzea erabaki zuten Arizmendiko arduradunek. Horren helburua da gaztetxoek eta gainontzekoek txorimaloak zer diren jakitea. "Lehiaketa horri esker, umeak etxean galdezka ibiltzen dira, txorimaloak non egoten diren, zelan egiten dituzten eta horien funtzioa zein den jakiteko. Hori da garrantzitsua, lehen ohikoak ziren usadioak ezagutzea", azaldu digute lehiaketaren arduradunek. Azken urteotan Itziar Gurtubai, Irati Gorostiza eta Iñaki Agiriano dabilta zeregin horretan.

Urtero 20tik gora txorimalo egiten dituzte, eta 120 bat gaztetxok esku hartzen dute lehiaketan. Eskoriatzako eta inguruetakoko herrietako gaztetxoek taldeka egiten dituzte txorimaloak, eta gura duten materiala erabiltzeko aukera dute. Ezinbestekoa da aurretik izena ematea, eta zapatuan 11:00etatik 12:00etara bitartean egingo dituzte. Hala, 12:00etatik 13:45era bitartean txorimalo guztiak ikusgai egongo dira erreka ondoko pasealekuan. Azkeneko urteotan antolatzaileek bereizten dihardute ikasleek txorimaloak helduen laguntzarekin egiten dituzten edo ez. Horren arabera, sari desberdinak ematen dituzte.



Argazkian, iazko txorimalo lehiaketan esku hartu zuen taldeetako bat.


ARIZMENDI



ARRANDEGIAK J. EGUREN

Arrain freskoa eta izoztua

Santa Ana 11. Tel.: 943 71 48 61. ESKORIATZA
ONDO IBILI FERIXEN!



LENIZ

ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Ondo ondo pasau FERIXE egune!

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

UDAL HAUTESKUNDEAK 07 > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

EAE talde guztiekin batzartuko da

Gainontzeko alderdiak zain daude, EAEk datorren astean zer proposamen egingo dizkien

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
EAE-ANV taldeko kideak oso pozik daude domekako emaitzeekin. Taldeko buru Pedro Lasagabasterren ustetan, herritarrek "gure planteamendua ulertu dute, eta babesa ikaragarria izan da. Eskerrak eman beharrean gaudete, eta herritarrekin daukagun erantzukizuna handia da".

Abstentzioaren aurrean alderdi guztiek zer pentsa dutela azaldu digu, herritarrek politikaz gero eta gehiago pasatu egingo dute eta.

DATORREN ASTEAN, BATZARRAK

Lasagabasterrek azaldu digu Udaleko alderdi guztiengana jo eta guztien babesa lortzen saiatuko direla: "Nahiz eta gu orain arte diskriminatuak izan garen, Eskoriatza herri txikia da eta merezi du talde eta herritar guztiak kontuan hartzea. EHK ere eskaintza bera egin zuen orain dela 8 urte". Hala, EAEko buruak jakinarazi digu datorren astean beste alderdiengana joko dutela batzarrak egiteko asmoz: "Taldea guztiekin akordioa eta babesa

lortzen saiatuko gara. Ez dugu uste guri alkatetza kentzen saiatuko direnik". Bestalde, Lasagabasterrek azpimarratu du EAEn talde handia dutela, eta formazio handia daukan jendea dagoela. Horregatik, uste dute gaitasuna dutela Udala ondo kudeatzeko eta herriaren diseinu berria gidatzeko.

EAJ, EAE-RI ENTZUTEKO PREST

EAJko buru Aitor Urrutiak azaldu digu domekako emaitzeekin ez dutela ezustetik hartu: "Bagenekien EAE indartsu zetoze, eta aurreikuspenak bete dira. Baina azken 20 urteotan lehenengo aldiz EAren aurretik gelditu gara. Hobetu daiteke, baina emaitza ez da txarra. Horrez gain, EAE zoriondu gura dugu. Ondo eta garbi irabazi dute, eta orain euren txanda da". Bestalde, onartu zuen EAekin batera ez joan izanak eta abstentzioak kalte egin dietela.

Urrutiak nabarmendu du oraindik goizegi dela argitzeko EAeri alkatetza kentzeko saiakerarik egingo duten edo ez: "Lehenik eta behin, EAEk dituen asmo-



EAE-ANV Argazkian, ezkerretik eskumara, Dorleta Lezeta, Pedro Lasagabaster eta Ander Agiriano.

IKER BARANDIARAN

ak azaldu beharko dizkigu, eta gero erabakiko genuke zer egin. Oraindik ez dugu gai hori landu".

EA-K EZ DU EAE-REN KONTRA EGINGO

Jarduneko alkate Juan Carlos Bengoak onartu du EAk boto gehiago jasoko zituela uste zuela: "EAEk irabaziko zuela pentsatu arren, EA indar erabakigarria izango zela uste genuen, eta ez da hala izan. Dirudienez, guk egindako lana ez da hainbeste ikusi. Bestalde, eskoriatzarrek botoa ematerakoan herriari begira baino gehiago Euskal Herriko egoerari erreparatu diotela uste dut".

EAEren proposamenen zain egongo dira; eta argitu digu EAeri alkatetza kentzeko asmorik ez dutela: "Gure asmoa da, hasiera batean, zerrenda bozkatuena errespetatzea".

EB-ARALAR: 16RA ARTE ITXARON

EB-Aralarko Juan Luis Merinok balorazio positiboa egin du.

"Alderdien Legea ez zegoenean zinegotzi bakarra genuen, eta horri eutsi diogu, nahiz eta ezkerrekoak direla dioten indar batzuek gure kontra bidegabeko kanpaina agresiboa egin duten. Hala ere, emaitza hobeak izan genitzakeen, jakina".

EAEk dituen asmoak entzuteko prest daudela azaldu du Merinok, baina argitu digu ekainaren 16ra arte, udal gobernua eratuko den egunera arte, ez dakitela zer egingo duten.

PSE-EE: ENTZUN BAI, NEGOZIATU EZ

PSE-EEko Iñaki Pierrugesen esanetan, "herritarrek talde bakoitza bere lekuan jarri dute". Horrez gain, argitu du guztiekin berba egiteko prest daudela: "Gauza bat da berba egitea, eta beste bat negoziatzea. Ezaguna da PSE-EEk EAerekiko duen jarrera".

ELIZATEETAKOAK, OSO POZIK

Elizateetako ordezkariak oso pozik daude emaitzeekin. Eta EAEkoei entzuteko prest daude.

EAE-ANVk boto gehien eskuratu ditu

ALDERDIAK	BOTOAK	%	ZINEGOTZIAK
EAE-ANV	648	(%32,81)	4
EAJ	298	(%15,09)	2
EA	294	(%14,89)	2
PSE-EE	254	(%12,86)	1
Elizateak	233	(%11,80)	1
EB-Aralar	176	(%8,91)	1

ERROLDA: 3.296 / ABSTENTZIOA: 1.302 (%39,05).



MIRENTXU

TABERNA

Ondo ibili guztiok ferixen!

Tel.: 943 71 41 67



*Zatoz Ferixara!
Ondo ibili danok!*

Mendraka
Txakolina

Tel.: 94 682 00 00
ELORRIO

bere ustez



Fernando Lete

Gizarteak erabaki nahi du

Biolentzia amaitzearen alde, giza eskubideen alde, inor baztertuko ez duen elkarrizketaren alde eta aniztasunaren alde gaudenok, ez gaude prest bake prozesua mugagabeki blokeatu edo hondoratu dadin onartzeko.

Ez eta biolentzia, tentsio edo liskar egoerara itzultzeko ere.

Bakerantz eta normalizaziora eramango gaituzten printzipioen inguruan gizarteak demokratikoki hitz egiteko unea iritsi da eta hauek

"Ez gaude prest bake prozesua blokeatu eta hondoratu dadin onartzeko"

ahalbideratzeko nahian, Lokarrik sinadura bilketa bati hasiera eman dio, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako legebiltzarretan herri kontsulta bat deitzea eskatzeko.

Herri ekimen honen helburua da bake prozesua bultzatzea eta ondorengo printzipioei buruz herritarren erabakia argitzea: batetik, biolentziaren amaiera eta giza eskubideen errespetua; bestalde, elkarrizketaren aldeko apustuaren nahia; eta, azkenik, gure bizikidetzaren bakean eta demokrazian posible egingo duen hitzarmen plurala eta inor baztertuko ez duena.

Lokarriren ekimen hau bultzatzera gonbidatzen zaituztet.

UDAL HAUTESKUNDEAK 07 > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

Pedro Iturbe: "Antzuolan beti errespetatu da zerrenda bozkatuenak lortzea alkatetza"

EAE-ANVk lortu du boto gehien, eta agintaldi berriari begiratu bat egin diogu Pedro Iturbe zerrendaburuarekin

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Erdi-gaixorik baina pozik eta lasai azaldu zitzaigun Pedro Iturbe EAE-ANVko alkatetza, boto gehien lortu duena, GOITBn Larraitz Zeberioi egin zion elkarrizketara. Emaizten balorazioa egin zigun, hasteko: "Balorazio oso positiboa egiten dugu; Udal gris batetik, kolorez betetako Udal batera pasatuko gara. Eta hain garrantzitsua den Euskal Herriko prozesu demokratikoari bultzada handia emango diote boto horiek. Pozik gaude, bestalde, zinegotzi guztiak euskaldunak izango garela, eta hori oso garrantzitsua izango da euskaren normalizaziorako".

Alkatetza kenduko dieten beldur ote diren galdetuta, hona Iturberen erantzuna: "Antzuolan beti errespetatu da zerrenda bozkatuenak izatea alkatetza. Zutik-EB-Aralar koalizioaren leloa izan da *Ezkerra Batzen*, eta, EAJ-



PEDRO ITURBE EAE-ANVko zerrendaburua udaletxe aurrean.

A.I.

Boto eta zinegotzien banaketa

ALDERDIAK	BOTOAK	%	ZINEGOTZIAK
EAE-ANV	518	(%40,12)	5
EAJ	370	(%28,66)	3
Zutik-Ezker Batua-Aralar	218	(%16,89)	2
PSE-EE	146	(%11,31)	1
PP	14	(%1,08)	0

ITURRIA: GOIENKARIA

ri botoa emanez gero, galdetu beharko genieke nora doan ezker hori. Bestalde, ziur gaude PSE-EEko Morcillok ere ez diola Ormazabali botorik emango".

Basili Ormazabalek esandakoei ere [behean] erantzun die: "Herriak berak esan die zeintzuk diren gai eta zeintzuk ez Udala aurrera eramateko".

GAINERAKO ZERRENDABURUEN IKUSPUNTUA

Basili Ormazabal

EAJ-PNV

"EHren agintaldiko kudeaketa txarra ez dugu onartuko"

"Oposizioan egongo gara, baina elkarlanerako prest ere bagaude. Beldurra ematen dit ikustek eskarmentu gutxiko jendea egongo dela, eta ez dakit gai izango diren Udala aurrera eramateko, bereziki finantzazioaren kudeaketari dagokionez. Oraingoz, ez dugu ezer egingo EAE-ANVri alkatetza kentzeko, baina ez gaude prest EHren agintaldian bezalako kudeaketa txarrik onartzeko".

Pilar Etxaniz

ZUTIK-EZKER BATUA-ARALAR

"Nahiago dugu inorekin akordio egonkorrik ez egin"

"EAE-ANVk lortu du boto gehien eta logikoa da eurek lortzea alkatetza ere. Gehiengo osorik ez izan arren, ez dute akordio egonkor baten beharrik. Guk ere nahiago dugu inorekin akordioak ez egin; horrela, aske sentituko gara, gai bakoitzaren aurrean gure postura defenditzeko. Udala irekiago izango dela espero dugu eta elkarlana posible izango dela".

Paco Morcillo

PSE-EE

"Lan handia dugu egiteko eta elkarlana bultzatu behar dugu"

"Argi eta garbi daukat ez dugula ezer egingo EAE-ANVri alkatetza kentzeko. Eurek lortu dute boto gehien eta eurei dagokie alkatetza. Gobernuaren osaketari eta Udalaren funtzionamenduari dagokionez, EAEkoek esaten digutenaren zain gaude. Nire aldetik, daukadan eskarmentua eskaintzeko prest nago. Lan handia dugu egiteko, eta elkarlana bultzatu behar dugu".

> PILOTA

Herriko pilota txapelketako finala bihar, zapatua

Herri mailako eskuz binakako pilota txapelketako finala bihar, zapatua, jokatuko dute, 18:00etan. Jose Manuel Aranburuk eta Juan Simon Aristik aurrez aurre izango dituzte Julen Iparragirre eta Migel Mari Jauregi. Gauean, berriz, txapelketan parte hartu duten guztiek afaria egingo dute Olalde elkartearen.

Bestalde, pilotan jarduten duten umeek, ikasturteari amaiera emateko, pilota jaialdia izango dute, goiz eta arratsaldean. Ondoren, merienda egingo dute Olalden.

> ERRETIRATUAK

Arantzazura irteera egingo dute eguazten arratsaldean

Antzuolako Erretiratuen Elkartek egun erdiko irteera antolatu du eguaztenarako. Izena emateko epea atzo, eguena, amaitu zen, baina, baliteke oraindik tokia egotea. Batzarkideengana jo dezakezue izena emateko. 15:30ean irtengo dira eta Arantzazun, bisita gidatua egingo dute; besteak beste, kriptako Basterretxearen margolanak ikusiko dituzte. Itzuleran, Zubillagako jatetxe baten askaria egingo dute. Irteeraren prezioa da 10 eurokoa.

> MUNDUMIRA

Bisita gidatua egiteko aukera etzi, domeka

Mundumira egitarauaren barruan, Antzuolan bisita gidatua antolatu dute etziko, domeka, 11:00etan. Antigua ermitan hasi eta handik behera abiatuko dira, Herriko Plazaraino. Hantxe, alardearen historia azalduko dute. Gero, zurrategien gaineko azalpenak emango dituzte. Bisitan parte hartzeko izena eman behar da zapatu eguerdia baino lehen, telefonoz deituta: 943 79 64 63 edo 630 11 18 44.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioakKalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaza

Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzeaKalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARAGAILUR
taberna eta
gozotegiaBuztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaza

Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotzak
•Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ESKOLA KIROLA > IKASTURTEA AGURTUKO DUTE

Domekan patinaje jaia egingo dute herriko umeek

Patinaje lasterketa, jolasak eta luntxa egingo dituzte domeka goizean

L.Z. > ELGETA

Ikasturtea ekainaren 22an amaituko dute Elgetako umeek. Eskola Kirola programari dagokionez, ordea, asteburu honetan egingo dute azken saioa. Hori dela-eta, egitarau berezia presatu dute, patinaje jaia.

Domekan, 10:30ean elkartuko dira. 11:00etan patinaje lasterketa egingo dute industrialdean eta 12:00etan patinaje jolasak egongo dira gimnasioan ume zein gurasoendako. 13:00etan luntxa egingo dute Bolatokian. Parte hartzeko ez da izenik eman behar.

BI BEGIRALE BEHAR DIRA

Uztailaren 2tik 20ra herrian 3-6 urte bitarteko haurrendako egingo den Uda Kanpaina aisialdi zerbitzurako behar dira. Udaletxean eman behar da izena.



OXEL EROSTARBE Ezusterik izan ezean Aralar-Independenteak zerrendako burua izango da alkate berria Elgetan.

L.Z.

IKUSKIZUNAK > ANTZERKIA ETA MUSIKA ASTEBURUAN

Gaur, 'Walt Disney me jodió la vida' antzezlan Espaloian

Domekan, 13:00etan, Bergarako Orkestra Txikiak kontzertua egingo du Antzokian



Antzezlaneko aktoreak. GOIENKARIA

L.Z. > ELGETA

Gurutze Beitia eta Maribel Salas aktoreak izango dira gaur, barikua, taula gainean Espaloia Kafe Antzokian. Umore basati eta absurdoan sartzen dira Disney-ko lau pertsonaia: Txanogorritxo, Alizia, Edurne Zuri eta Loti Ederra. Lan zoroa eta erritmo gogorrekoa izango da. Sarrera 12 euro da, eta bazkideendako, 10 euro.

BERGARAKO ORKESTRA TXIKIA

Domekan, 13:00etan, 9-20 urte bitarteko 35 musikari izango dira Espaloian. Bergarako Orkestrak kontzertua egingo du.

> PILOTA

Domekan Debarroko Pilota Txapelketako finalak jokatu dira Elgetako pilotalekuan

Asteburu honetan zazpi pilota partidu jokatu dira Elgetan. Ikusgarrienak domekan, hilaren 3an, jokatu dira. Debarroko Pilota Txapelketako hiru final izango dira. Kadete mailakoa 10:45ean hasiko da. Jarraian jokatu dira gazte mailakoa eta nagusia. Azken horretan, Ozkarbi Elkarteko Azagirre-Irureta bikoteak Eskoriatza KEko Mendizabal eta Inurategiren aurka jokatu du. Barikuan, berriz, lau terdiko txapelketako final-zortzirenak jokatu dira.

UDAL HAUTESKUNDEAK 07 > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

Oxel Erostarbe: "Alkate izateko aurkeztu nintzen"

Patxi Basauriren taldeak balorazioa egiteko batzarra egin behar du, eta Eusko Abertzale Ekintza-ANV prest dago Aralarrekin batzartzeko

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Aralar-Independenteak izan da udal hauteskundeotan Elgetan boto gehien lortu dituen alderdia. Ez du, ordea, gehiengo osorik eskuratu, eta ekainaren 16an hasiko den agintaldirako bidelagunak egin ala ez aztertzen ari da orain.

"Gainerako indar politikoen harremanetan jarri gara", izan da Oxel Erostarbe alkategaiak aurreratu digun gauza bakarra.

Lortutako emaitzen gaineko balorazioa eskatuta, Erostarbek honakoa esan du: "Herriak aldaketa eskatu du eta hori lau urtetako lanak ekarri du".

Bere burua alkate ikusten duen ala ez ere galdetu dio GOIENKARIAK: "Ni alkatetzarako aurkeztu nintzen eta prest nago alkate izateko", izan da haren erantzuna.

HERRIAREN HITZA ERRESPETATU

31 urtez Elgetako alkatea izan den Patxi Basauri herriaren hitza errespetatzearen alde agertu da: "Argi gelditu da herriak Aralar nahi duela gobernuan, eta herriaren hitza errespetatu egin behar da", esan du.

Ezusterik izan ezean, ekainaren 16an Erostarbek hartuko du Basaurik 31 urtez betetako kargua: "Aldaketa handia izango da",

esan digu Basaurik. "Goitik behera aldatuko da nire egunerokoa; izan ere, 31 urtean ez dut desko- nektatu".

ADOSTASUNEN BEHARRA

Edurne Alberdi buru duen EAE-ANVk lortutako emaitzen balorazio positiboa egin du; izan ere, oso gertu geratu dira hirugarren zinegotzia lortzetik. Negoziazioen gainean Aralarrekin batzartzeko direla esan du Alberdik: "Oraingo honetan inork gehiengorik ez duenez, adostasunetara iristera behartuta egongo dira", esan du. "Horrek lau urte interesgarriren aurrean jartzen gaitu".

Udal hauteskunde emaitzak Elgetan

ALDERDIAK	BOTOAK	%	ZINEGOTZIAK
Aralar-Independenteak	252	(%39,13)	4
Elgetako Abertzaleak	209	(%32,45)	3
EAE-ANV	172	(%26,71)	2
PSE-EE	4	(%0,62)	0
PP	2	(%0,31)	0

ITURRIA: ELGETAKO HAUTESLE-MAHAIA



Sasoi berri baten hasiera.

Eskerrik asko Elgeta.



UDAL HAUTESKUNDEAK 07 > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

Gehiengo osoarekin, ekainaren 16an, Asier Agirre izendatuko dute alkate

Demokrazia ezarri zenetik, lehen aldia da ezker abertzaleak alkatetza irabazten duela

UBANE MADERA > ARAMAIO

Irauli egin da Aramaion Udalaren egoera hauteskunderen ostean. Demokrazia ezarri zenaz geroztik, EA eta EAJ nazionalistek gobernatu dute Aramaio Udala.

Oraingoan, baina, ezker abertzaleak lortu du alkatetza. Eta botoek gehiengo osoa ematen diote, bost zinegotzirekin. EAJ hirurekin geratuko da, eta EA, berriz, bakarrarekin. Hala, ekainaren 16an, EAeko zerrendaburu Asier Agirre alkate izendatuko dute.

HERRITARREN BABESA

Pozik dago hura lortutako emaitzekin. Agirrek dio "espero" zuela "herritarren erantzuna", nahiz eta "zenbatekoa asmatzea oso zaila zen". Dena den, dio bazekitela jendea eurekin zegoela.

Halaber, gogorarazi zuen azken agintaldian ezker abertzalea "bazeratuta" izan dela, nahiz eta "hiru zinegotzi" eskuratu orain dela lau urteko hauteskundeetan: "Bilera nahikotxo egin ditugu udaletxeekin eta erantzun bera izan dugu: legez ez direla gure postuak, eta ez digute aukerarik eman Udalean parte hartzeko".

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Oraingoan, Udalaren gidaritza dute eskuetan. Eta kanpainan iragarri zuten moduan, EAeren asmoa da Udala herritarrei zabaltzea: "Garrantzitsua da herritarren parte-hartzea bermatzea.

Gu udaletxera goaz gestio lanak egitera, eta edozein eragilek izango du parte hartzeko aukera".

Bestalde, auzoak kontuan hartuko dituztela ere azaldu du Agirrek, Udala Ibarren izan arren, eta ahaleginduko direla "distantziarengatik urruti" dauden auzoetako gertutasuna indartzen.

Azken urteotan ikamikak eragin dituen AHT dela-eta, haren gaineko herri galdeketa egiteko asmoa erakutsi du Asier Agirrek: "Ez dakigu zela, baina egingo dugu. Aurreko udalbatzak moztu egin du hori egitea eta guk uste dugu herritari hitza eman egin behar zaiola".

EAJ: OPOSIZIO POSITIBOA

EAJ alderdiko alkategai Iñaki Nafarratek lehenengo eta behin zoriondu egin ditu irabazleak: "Zoriondu lortu dituen emaitzengatik, oso onak izan dira. Nire ustez, Aramaion sekula lortu ez dituztenak, eta hori da inportantea. Ezustean harrapatu gaituzte. Espero genuen EAeren igoera, baina izugarria izan da".

EAJ alderdiak izan duen beherakadaren gainean, berriz, hauxe dio: "Arrazoiak jakitea oso zaila da. Garbi dagoena da auto-kritika egin behar dugula. Nire ustez, indar handia izan du AHTren gaiak; izan ere, hori, nolabait, politizatu egin da". Ekainaren 16tik aurrera, berriz, oposizioan izango direla argi ikus-

ten du: "Gu oposizioan gaude eta gure lana izango da ikusi ea programak betetzen diren, udal-txean egiten diren ekintza guztiak lege barruan egiten diren. Egingo dugu oposizio positiboa. Ez diogu guztiari ezetz esango. Gai bakoitza aztertuko dugu eta horren arabera erabakiko dugu".

EA: ERRESPECTUAREKIN JARDUN

Bestalde, EAko zerrendaburu Andres Osinagak ere argi ikuste du herriak gauzak aldatzea gura duela: "Azkenean hori da herriaren hitza eta hori errespetatu egin behar da".

Emaitza horiek espero zituzten edo ez galdetuta, berriz, dio "aurreikusitako ezin" direla, "susmoak" izan daitezkeela, baina ezin daitezkeela seguru esan.

EAren beherakadaren gainean, berriz, aditzera eman du, oro har, "bakoitzak ikusi eta aztertu behar dituela arrazoiak"; dena den, berak Udalean egindako lanarengatik "kontzientzia trankil" duela gaineratu du.

AHTren gainean, berriz, gogorarazi zuen EAk hasieratik egin zuela herri galdeketa alde, baina, azkenean, etor daitezkeen legezko ondorioengatik egin zutela atzera.

EAJ eta EA bananduta joatearen ondorioak aztertu beharrek direla ere uste du: "Badakigu bakarka joanez gero, emaitzak ez direla igualak".

Bukatzeko, besteak beste, Osinagak dio Udalean lan egiteko "elkarren arteko errespetua" ezinbestekoa izango dela.



ASIER AGIRRE Aramaio alkate berria izango da Asier Agirre.

T. MADINA

Botoak eta zinegotzi kopurua

ALDERDIAK	BOTOAK	%	ZINEGOTZIAK
EAE-ANV	427	(%33,49)	5
EAJ	298	(%23,37)	3
EA	142	(%11,13)	1
EB-Berdeak	31	(%2,43)	-
PSE-EE	13	(%1,01)	-
PP	6	(%-)	-

ITURRIA: GOIENKARIA

AZPIEGITURAK > AHT-REN GAINEN GALDEKETA

Galdeketa atzeratzea erabaki dute

AHTren gaineko herri galdeketa atzeratu arren, egin egingo dutela iragarri dute


U.M. > ARAMAIO

Ia hauteskunderen bezperan erabaki zuten Aramaio zenbait herritarrek Abiadura Handiko Trenaren gaineko herri galdeketa ez zutela egingo udal hauteskunderen batera. Hain zuzen ere, joan den egubakoitzean egin zuten herri batzarra, Sastiña ermitan, eta herritar kopuru nabarmenak parte hartu zuen, gainera.

Kontua da Paulino Luesma Estatuko ordezkariaren beharrezko aurrean, aurreikusitako zute-

la domekan herri galdeketa egin ez gero istiluak sortzeko arrisku handia zegoela. Gainera, etor litezkeen zigor ondorioen aurrean, Udalak babesa erretiratu zion herri galdeketa egiteari. Hala, momentuz ekimena atzeratu egin dute eta zapatuan protesta ekitaldia egin zuten, plazan.

Atzeratu bai, baina horrekin batera, herri galdeketa bultzatzaileek argi dute egin egingo dutela galdeketa hori, nahiz eta oraindik ez jakin noiz egingo duten, ezta zela egingo duten ere.



JENDE ASKO Argazkian, herri batzarra, Sastiña ermitan.

GOIENKARIA

> KULTURA

Domekan Santikurtzen egin dute hitzordua

Santikurtz Eguna oraingo domekan ospatuko dutela iragarri dute antolatzaileek, Arriola eta Arexola auzoko gazteek.

Hala, haiek gonbita egin diete gainerako herrikoideei Santikurtzen elkartu eta ospakizuna egiteko.

Goiz parteko ospakizuna egingo dute, beste urteotan moduan. Hain zuzen ere, 12:00etan meza esango dute Santikurtzeko ermitan bertan, eta meza ostean, salda beroa banatuko dute. Horrekin batera, trikitilariak alaitutako erromeria izango dela ere iragarri dute.

Eta horren ostean, nahi duenak han izango ditu Santikurtzeko zelaia bazkaria eraman eta lasai egoteko.

> ONGIZATEA

Teleasistentziaren gaineko araudia ikusgai udaletxean

Apirilaren 26an egindako osoko bilkurak aho batez onartu zuen teleasistentzia zerbitzua arautzeko udal erregelamendua. Hasierako onespina izan zen, eta orain ikusgai daukate erregelamendua udaletxean. Maiatzaren 25eko GAO on argitaratu zuten berria, eta 30 egunez egongo da ikusgai. Epe horretan, herritarrek dokumentua aztertu eta gura izanez gero iradokizun eta erreklamazioak jarri ahal izango dituzte. Udaletxeko idazkaritzan dago ikusgai erregelamendua.

> OGASUNA

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda ikusgai dago

Hiri eta landa izaerako ondasun higiezinaren gaineko urteko zergaren errolda daukate ikusgai udaletxean.

Deialdia maiatzaren 25eko GAO on argitaratu zuten, eta 15 egunean izango dute ikusgai herritarrek aipatutako errolda idazkaritza sailan. Erroldarekin ados egon ezean errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzte udaletxean bertan, baina gero Aldundira bideratuko dituzte, hari dagokiolako ondasun higiezinaren errolda gertatzea.

> PILOTA

Pilota txapelketarako oraindik izena eman dezakete herritarrek

Hurrengo aste bukaeran, ekainak 9 eta 10, jokatu dute herritarren arteko pilota txapelketa. Izena emateko epea zabalik dago oraindik, eta Labidea dendan egin behar dute interesatuek.

Urtero antolatzen dute txapelketa pilota taldekoek, eta giro bikaina sortzen da herrian. Bereziki, gatzagarrak jokatu dute txapelketan, baina Eskoriatzako auzo batzuetatik ere etorriko dira.

UDAL HAUTESKUNDEAK 07 > AGINTALDI BERRIARI BEGIRA

"Komisio bat osatu gura dugu udalbatzakook kanpokoekin"

Eusebio Villar izendatuko dute alkate ekainaren 16an, eta orduan osatutako udalbatzak zazpi kide izango ditu, azken agintaldian baino bi gehiago

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Gatzagako Hautesleen Elkarteak 120 boto jaso zituen joan zen domekako udal hauteskundeetan. Hala, Eusebio Villar izango da alkate datozen lau urteotan.

KOMISIOA OSATZEKO ASMOA

Ez zen ezustekorik egon Gatzagan hauteskundeetan -PPk boto bi bakarrik jaso zituen-, eta Eusebio Villar izango da alkatea ekainaren 16tik aurrera. Villarrek sei zinegotzi izango ditu inguruan lagun egiteko, azken agintaldian



HAUTESKUNDEAK Gatzagako emakume bat botoa ematen joan zen domekan, maiatzak 27.

GOIENKARIA

baino bi gehiago: "Lan handia dago egiteko, eta bi gehiago izateak ez du samurtuko. Karguak hartutakoan banatuko ditugu lanak geure artean", adierazi

digu Villarrek. Orain arte egon den udalbatzak esku artean dabilen proiektuen berri izateko batzarra egingo dute karguak hartu ostean: "Gure asmoa komi-

sio bat osatzea da, Udaleko bertako zein kanpoko jendearekin; baina ikusi egin behar da aurrera egiten duen asmoak", argitu digu Villarrek.



GUREL

European landatu zituzten loreak guraso eta umeek

Eguraldi eskasa egin zuen joan zen zapatuan, baina lehen ere atzeratu zuten hitzordua, loreak landatzea erabaki zuten Gureleko kideek. Udaletxe alboko parkean eta herriko beste hainbat lorontzitan landatu zituzten loreak ume eta gurasek. Aste honetan bertan, osterara, zuhaitz bat eta heskaia jarri dituzte parke horretan.

F
RIXI
ERAIKUNTZAK

Ondo ibili ferixen!

Hormigoizko estrukturak, urbanizazio, kontratak eta enpresen mantenimenduak

Intxaurtxueta 5 behea • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 55 15 / Fax: 943 71 57 65 • Poltsikokoa: 629 51 39 22
frixixi@frixixi.com

> FUTBOLA

Antzuolak Lazkaoren kontra jokatu du erregionaleko finala

Antzuolak aspaldi egin zituen etxeko lanak, Andoni Azkargortaren mutilak dagoeneko lehenengo erregionalean daude, baina denboraldia biribiltzea geratzen zaie: finala jokatzera.

Antzuolak bihar arratsaldean izango du hitzordu hori, 17:00etan Beasainen. Eta, beste multzoko txapelketa izango dute aurrean, Lazkao. Seguru Antzuolako zale mordera gerturatuko dela Beasainera, gozatzeko partidu horietakoa izango da-eta. Azkargortak hiru aste dela esandako moduan: "Finalak irabazteko jokatzeko dira".

> MENDIA

Domekan egingo dute bigarrenez Aiba! mendi martxa

300 lagunek hartuko dute esku domekan egingo duten Aiba! mendi martxan.

Mendizaleek bi ibilbide izango dituzte aukeran. Motza aukeratzen dutenek Arrasateetik hasi eta Aramaioko ibarri emango diote itzulia (32,2 kilometro). Ibilbide luzea aukeratzen dutenek ere beste horrenbeste egingo dute, baina ibilbidean zehar Udaltax eta Anboto mendi tontoretara igo beharko dute (40,5 kilometro).

Domekarako badirudi eguraldi txukuna izango dutela, mendian ibili behar dutenek ondo eskertuko dute hori.

ERRUGBIA > ZAZPINAKO TXAPELKETA

Bihar, Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketak bederatzi urte egingo ditu

Txapelketarekin batera ART taldeak Garagardoaren Festa egingo du plazan

Norgehiagokak Atxabalpeko zelaian jokatu dituzte bihar, 15:30ean hasita

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Atxabalpeko zelaian orain dela 15 egun esan zion agur futbol talde nagusiari, eta asteburuan, dagoeneko bederatzi alditan hartu duen errugbi txapelketaz agurtuko da. Hala, errugbizaleek azkeneko jarraituko dute, Atxabalpen, dagoeneko ekainean falta ezin daitekeen hitzordua: Nazioarteko Errugbi Txapelketa.

HAMAR TALDE INGURU

Urtero moduan, zapatu arratsaldean jokatu dituzte zazpinako partiduak. Horretarako, Atxabalpeko zelaia bitan banatu eta zelaiaren zabalera aprobetxatuta egingo dituzte norgehiagokak. Ohiko partiduak baino bizkorragoak izaten dira horiek, eta normalean baino entsegu gehiago egiten dituzte, errazagoa da-eta kontrarioaren defentsa zulatzea. Horrelakoetan, fisikoki ondo dagoen taldeak egiten du aurrera. Hala, ARTko mutilak hamar-hamabi talde gonbida-



AZKENA Urtero Atxabalpen jokatu dute txapelketa hori; hurrengoa Mojategin egingo dute.

GOIENKARIA

tu dituzte, eta oraingoz honako taldeek eman dute baietza: Bordeleko BEC, Donostiako Bera-Bera, Hernani, Eibar, Zarautz, Durango, Gasteizko Gaztedi eta Iruñeak.

Bestalde, errugbi hitzordu horren eskutik etorri da urtero Garagardoaren Festa, eta aurten

ez da gutxiago izango. Gainera, antolatzaileek jai hori luzatu gura izan dute, karpa gaur zabaldu beharrean atzo zabaldua. Hori horrela, Alemaniako garagardo ederrak atzo ezkerro dasta badaitezke ere, gaur ilunkeran egingo dute inaugurazio ekital-

dia (19:00etan). Hala, gaur gauean karpan bertan afaldu ahal izango da: oilaskoa, txerri-ukondo, Alemaniako saltxitxak... Horrekin batera, gauean karpan egongo diren lagunak dantzan jartzeko zuzeneko musika emanaldiak egingo dira.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ARRASATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN

www.eps.mondragon.edu




IZENEMATEA	TITULUAK
Datak: Ekainaren 1etik 7ra	<ul style="list-style-type: none"> • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. • Telekomunikabide eta Informatika Sistemak. • Informatika Sistemen Administrazioa. • Informatika Aplikazioen Garapena. • Proiektu Mekanikoen Garapena. • Mekanizazio Bidezko Produkzioa. • Industri Ekipoaren Mantenimendua.
Orduetgia: 8:30etatik 12:00etara eta 14:30etatik 17:30etara	

FUTBOLIN TXAPELKETA

Saria: Mercedes SE 400 edo 5.000 euro txapelkunarentzat eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalarri)



www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051

Antzuola: Mox – Surpe Aretxabaleta: Haizea – Izotz – Kixkor Arrasate: Biona – Iturriotz Equus – Udala – Wiskeria Bergara: Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara Gaztetxea – Mitor Eskoriatza: Aldatz – Naira Oñati: Arrano – Ongi – Otamendi

PILOTA > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Arrasate herri arteko finalerdietatik gertu dago

Arrasatek gaur jokatu du Azkoitiaren kontra Uarkapen (20:30); Bergarak, berriz, gaitzago du biharko partiduan aurrera egitea (19:30)

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Arrasateko eta Bergarako pilotariak asteburuan jokatu dituzte herri arteko txapelketa final-laurdenetako itzuliko norgehiagokak. Hala, Azkoitian eta Ataunen lortutako emaitzen arabera, Arrasatek nahiko erraz du aurrera egitea; Bergarak, berriz, maldan gora du kanporaketa.

GAUR, 20:30EAN

Arrasateko pilotariak, Azkoitian lan ederra eginda (1-2), erraz dute finalerdietarako txartela. Aurrera egiteko, nahikoa dute joan den astean erakutsitako maila erre-

pikatzea: "Kadetetan oso bikote ona daukagu (Bolinaga-Agirregabiria) eta seniorretan Uribarren eta Axpe gauzak behar diren moduan egiten ari dira. Nik, baina, gazte mailako bikotea azpimarratu nahi dut (Arana-Zubizarreta), kadete mailako adina izanda, kontrario nagusiagoen kontra dabil-eta jokatzen", esan digu taldeko entrenatzaile Mauri Zubillagak.

BERGARAK, GAITZAGO

Bergarako mutilek, berriz, zapatu arratsaldean izango dute Ataungo pilotarien bisita (19:30). Sekulako joko-iraultza egin beharko lukete bergararrek Ataunen izandako emaitzari(2-1) buelta emateko: "Esperantza da galtzen den azkena, baina oso zail dugu. Han nagusiak ondo ibili ziren, baina gainontzeko beste bi partiduetan egurra jaso genuen", dio Reyes Azkoitiak. Hala, Irizar-Resusta, Perez-Larreategi eta Mugurutza-Herran pilotarien eskuetan dago kanporaketa gainditzea.



URIBARREN Arrasateko senior mailako atzelaria pilota astintzen.

J.A.

> ATLETISMOA

Eskola arteko atletismo jolasak Durangon

Ibarreko hainbat ordezkari izango dira bihar Durangon egingo dituzten 16. Euskal Herriko eskola arteko atletismo jolasetan.

Txapelketa horretan infantil mailako neska-mutikoen parte hartu ahal izango dute; 1993an eta 1994an jaiotakoek, hain zuzen ere. Eskolen izenean jokatzearekin batera, atletek lurralde autonomia ere defendatuko dute.

> FUTBOLA

Futbol eskola jarriko dute abian Aretxabaletan

Foru Aldundiak horrela onartuta, astelehenean bertan jarriko dute abian Aretxabaletako futbol eskola. Dagoeneko benjamin eta alebin mailako 40 neska-mutikok eman dute izena, baina oraindik ere badago izena ematerik. Horretarako, jo UDA futbol taldera, edo idatzi goienasport@goienasport.com helbide elektronikora.

Aurrerantzean, futbol eskola horrek egingo du Aretxabaletako taldearendako harrobi lana.

GARCIA ENBALATZEAK


- ENBALATZE TOLESTAGARRIAK
- PALETAK
- EGUR KUTXA ETA KAIOLAK
- MOTA GUZTIETAKO TAULAK
- AGLOMERATUAK, TABLEXA, DM, ETAB.
- ENKOFRATZEKO TAULA




Etxabarri Auzoa 9 - 193 P.-K.
Tel.: 943 79 81 36 Fax:a: 943 79 82 38
20550 ARETXABALETA GIPUZKOA

Subinoa 10 - Gojain industrialdea
Tel.: 945 46 62 09 Faxes: 945 46 56 33
01171 LEGUTIANO ARABA

www.embalajesgarcia.com
e-posta: garcia@embalajesgarcia.com



Jatetxe Gida



Azpeitxi jatetxea

Aranerrika 13 / BERGARA
943 76 55 00

Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Afari informalak



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitaratekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **KULTURA**
Debagoieneko III. Trikitixa Eguna zapatuan Bergaran > 45



> **KOMUNIKAZIOA**
Ikasleen euskara maila hobetzeko protokoloa Huhezin > 51

> **EGOITZ OLALDE**
Hainbat taldetan ibili ondoren, Iñigo Ibarrondorekin eta Mikel Zarketarekin Sharon Stoner taldea osatu zuen. Sorkun abeslariarekin ere ibili da batera jotzen > 50



Gaur hasi eta domekara arte, Mundumira jaialdiaren III. ekitaldia Aretxabaletan

Kalea, kultura, mendia eta elkartasuna, egitarauaren ardatzak

Musika proposamenen artean, Kiko Venenoren kontzertua zapatuan, gauerdian

EDU MENDIBIL > ARETXABALETA

Mundumira jaialdiaren hirugarren ekitaldia ospatuko da Aretxabaletan oraingo asteburuan. Aurreko urteotan bezala, munduko kulturen topaleku izan nahi du jaialdiak, eta, aldi berean, Debagoieneko natura eta kultura ondarea ezagutzera ematea da antolatzaileen asmoa. Arrasaten eta Oñatin ospatutako ekitaldietan jasotako erantzunarekin pozik daude Mankomunitateko arduradunak, eta Aretxabaletaren txanda da orain. Mankomunitateko Kultura teknikari German Meabebasterretxearen arabera, bi izan dira aurtengo ekitaldia Aretxabaletan ospatzeko arrazoiak: jaialdia antolatzeko herriak azalduko interesa eta antolakuntzak jarritako baldintzak betetzea. Jaialdiaren izaera ibiltaria denez, aretxabaletarrak jaso dute lekukoa aurretan. Gaur, egubakoitza, izango da hasiera ekitaldia, 17:30ean.

PROGRAMA ZABALA

Egitarauari dagokionez, ez da aparteko nobedaderik. Imanol Agirre *Euskal Herria* aldizkari-ko zuzendariak esan bezala, "jaialdiak lau zutabe dauzka: kalea, kultura, mendia eta elkartasuna". Aurreko bi ekitaldietan moduan, artisautza azoka, munduko zapoak, bidezko merkataritza, mendiko azoka, erakusketak, diaporamak, mendi ibilaldiak, grafitiak, haurrentzako antzerkia, dantzak eta kaleko antzerki emanaldiak uztartzen ditu programak. Era berean, bailarako gobernu kanpoko erakundeek presentzia nabarmena izango dute aste bukaeran.

Horrekin lotuta, jaialdiko kamiseta atera dute antolatzaiei-

Munduari bira Aretxabaletan

Mundumira

munduko kulturen festa





KIKO VENENO Lobo López bezalako kantu ezagunak eta disko berriak eskainiko ditu zapatuan.

GIN TONIC

Munduari bira Aretxabaletan

(43. orrialdetik dator)

leek. Salmentako irabazien zati bat lankidetzarako hiru proiektutara bideratuko dute eta proiektuak Debagoieneko gobernu kanpoko erakundeen artean aukeratuko dira.

MUSIKA PROTAGONISTA

Munduko kulturen festa izanik, musikak protagonismo berezia dauka Mundumiran. Aurten ere proposamen interesgarriak lortu dituzte *Euskal Herria* aldizkariak eta Gin Tonic produkzioetxeak. Gaur, egubakoitza, Mariana Ramos (Herriko Plaza, 20:30), egun Cabo Verden dagoen aho-

tsik hoberenatariko bat eta jarraian dantza egiteko musika mestizoa Gecko Turnerren eskutik; Afrikako eta Brasilgo kutsua nahiz musika elektronikoa nahastent ditu Turnerrek.

Zapatuan, azokako agertokian, Ginea Bissautik datorren Mamadu taldea (13:00) eta ondoren Balkanetako akordeoiak trikitiarekin nahastent dituen Euskobalcanic (18:00), Indiaren iparraldeko erritmo tradizionalak eta Bollywood pelikulen musika oinarritzen den Jaipur Kawa Brass Band taldea (19:00). Herriko Plazan ere aukera zabala izango da zapatuan: Echa Paka kubatarak (12:00), Brasilgo Trio Forrobodo (13:00), Arabiako dantza tradizionalak eskainiko dituen Albala (18:30), Tomas San Miguel

eta Kuttunak (19:30) eta Palestinako Dam Palestinako Hip Hop taldea (21:00). Azkenik, Kiko Venenok *El hombre invisible* diskoa aurkeztuko du gauerdian. Domekan, Bartzelonako Orkestra Arabiarra eta Romani Chave bulgariarrak arituko dira eguerdian.

MENDI AZOKA

Artisautza eta gastronomia azokez gain, mendi azoka ere egingo dute: ikus-entzunezkoen proiektzioak, argazki erakusketak, ikastaroak, mahai inguruak, irteerak eta Euskadiko boulder txapelketaren finala (domekan Iturrigorri frontoian, 13:00etan). Aretxabaletako hainbat puntutan aparkalekuak egokituko dituzte. Edozelan ere, jaia txoko gutzietara zabaltzea da asmoa.

III. Mundumira Jaialdia

Ekainak 1

17:30 Hasiera ekitaldia.
19:00 Emanaldia: *Euskal alpinismoaren aitzindariak*, Antxon Iturrizaren eskutik. Otalora Jauregia. Argazki erakusketa: Juan Ramon Llavoriren *Nepal, lurraren begiradak*. Kurtzebarri Eskola.
Elkarren *Munduari bira* marrazki-lehiaketako erakusketa eta sariak ematea. Kurtzebarri Eskolan.
Grafitien erakusketa eta lehiaketa, Herriko plazan.
19:30 Festicultores Troupe (Galizia).
20:00 Diaporama: *Vespaña*, Espainiako bideetatik bidaiatzen, Ander Izagirren eskutik. Otalora Jauregia.

Elkar aretoa

20:30 Mariana Ramos (Cabo Verde) *7 sois 7 luas* munduko musika-jaialdi ospetsua zortzi herrialdetan eta 30 hirietan egiten da, eta oraingoan, Mundumirarekin bat egin du.
23:00 Gecko Turner (Extremadura).

Ekainak 2

XI. Nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza azoka Eskoriatzan.

08:00 Mendi-igoera Andarito Degurixa ingurutik
09:00 Arrikruzteko kobak
11:00 Kultur ibilaldiak. Debagoieneko turismo-bulegoa.
11:30 Umeentzako gunea: munduko antzerkia eta jolasak Eidaberekin. Kurtzebarri Eskola. Antzerki saioa, Arizmendi ikastolako ikasleen eskutik. Lotutako hegaldiak baloi aerostatikoetan egun osoan. Kiroldegia.
11:00-14:00 / 17:00-21:00 Munduko Artisautza Azoka alde zaharrean. Munduko zaporeen gunea, Foro Solidarioa eta Mendiko Azoka.
12:00 Les Bestioles de la Garriga (Okzitania)
12:30 Diaporama: *Cielo, Infierno, Himalaya* Iñaki Otxoa de Olzaren eskutik (Lorpen). Kurtzebarri Eskola.
13:00 Mamadu (Ginea Bissau).
17:00 Umeentzako gunea: munduko antzerkia eta jolasak Eidaberekin. Kurtzebarri Eskola.

18:00 Euskobalcanic azokaren agertokia. Balkanetako akordeoiak trikitiarekin nahastent dira.
19:00 Jaipur Kawa Brass Band (India)
21:30 Artea teatroa (Aragoi).

Elkar aretoa. Herriko plaza.

12:00 Echa paká (Kuba)
13:00 Trio Forrobódó (Brasil).
18:30 Albala. Arabiako dantza tradizionalak.
19:30 Tomas San Miguel eta Ttukunak (Euskal Herria).
21:00 Dam. Hip Hop (Palestina).
00:00 Kiko Veneno (Katalunia)

Ekainak 3

08:00 Mendi-igoera: Kurtzebarri-Aranguren (Murruxio Mendi Taldea)
09:00 Apotzaga, Asensiomendi, Untzilla, Murugain, Izurieta ibilaldia (Zaraia Mendi Taldea)
11:00 Kultur ibilaldiak. Debagoieneko turismo bulegoen eskutik.
Euskadiko Boulder Txapelketa (Iturrigorri Frontoian)
11:00-14:00 Umeentzako gunea: Munduko antzerkia eta jolasak.
12:00 Musikaz alaitutako kalejira: Les Bestioles de la Garriga. Bartzelonako Orkestra Arabiarra: Bartzelonako orkestra arabiarra Maroko, Grezia eta Kataluniako musikariek osatzen dute, eta, oraingoan, proposamen berezia aurkeztu dute, Mediterraneoko estiloen eta kulturen arteko fusio bikainaren bitartez.
13:00 Romaní Chavé (Bulgaria) *La Caixa*. Gizarte Ekintza Talde honek Balkanetako eta, bereziki, Bulgariako ijitoen musika alaiatz gozatzeko aukera ematen digu.
17:00 Euskadiko Boulder Txapelketa finalak jokatu dituzte
17:00-20:00 Munduko Artisautza Azoka egingo dute
Munduko Zaporeen gunea
Foro solidarioa
Mendiko azoka
Eusko labeldun txahala erreko da goiz osoan Gernika plazan
Festa amaiera, perkusio taldearen eskutik

Euskarari Tonbola
euskarari

asteburuak Pirinioetan 8 lagunentzako

TDT-ak

afariak

auto-giro hegaldiak

DVD-ak

42" plasmak

kotxeak

txartelak salgai Gipuzkoa osoko tabernetan

1€

5€ko bonoak
Ardo kopa bere poltsarekin,
2 tiket eta Mondraren himnoa Arrasate Musikalek eta Zartuelako abesbatzak grabatuta.

Ardo dastaketa goiz eta arratsaldean (Arabar Errioxako 32 upategi).
Gazta dastaketa eta salmenta.
Idiazabalgo urteko gaztaren lehiaketa.

ARRASATEKO UDALA

Ardo eta gazta eguna
2007

Ekainak 9, zapatua
ARRASATE
Goizeko 11etatik aurrera
Arratsaldeko 6etatik aurrera

Kajoi Taberna

MUSIKA > DEBAGOIENEN III. TRIKITIXA EGUNA, BERGARAN

Bihar, zapatua, trikiti soinuak beteko dira Bergarako kaleak

Zapatu goizetik domeka goizaldera arte ez da trikitiaren etenik izango; doinu tradizionalak, abangoardistak eta beste izango dira

IKER BARANDIARAN > BERGARA
Bergarako Musika Eskolak eta Jardunek elkarlanean Debagoieneko III. Trikitixa Eguna antolatu dute. Bihar, zapatua, izango da 10:30etik 02:00etara bitartean.

Joan den bi urteotan Arrasaten eta Aretxabaletan antolatu dute: "Helburua da trikitixa kalea ateratzea, jendeak entzun dezan; eta, aldi berean, urte osoan eskolan ikasten dabilen gazteak motibatuzko modua erabada", dio Nerea Mendizabalek.

GOSE ETA GOZATEGI GAUEAN
Besteak beste, eguerdian aukera izango da ibarreko trikiti talde guztiak entzuteko, kalejira eta



HIRUGARRENA Debagoieneko Trikitixa Egunaren III. ekitaldia da biharkoa. Iaz Aretxabaletan (irudian) ospatu zuten. GOIENKARIA

emanaldia egingo dutelako, herri bazkariaren aurretik. Gainera, han emango dute aditzera 2008an Trikitixa Eguna non izango den.

Arratsaldean, berriz, Trikiti dantz taldearekin erromeria izango da plaza berean. Eta gauean, azkenik, Gose eta Gozategi talde-

ek kontzertua egingo dute: "Egitarau zabal horrekin trikitiaren alderdi desberdinak erakusten saiatuko gara".

BERTSOLARITZA

Kilometroen aldeko eskolarteko txapelketa

Gaur, egubakoitza, izango da Bergarako Udal Pilotalekuan, 16:00etan

I.B. > BERGARA

Gaur, egubakoitza, Gipuzkoako eskolarteko 27. bertsolari txapelketako finala egingo dute Bergarako Udal Pilotalekuan, 16:00etan. Ekimen hori Kilometroen alde antolatu dute.

Aurkezle eta gai jartzaile lanetan Andoni Egaña arituko da. Epaimahaia, berriz, honakoek osatuko dute: Nagore Soroa, Nahikari Gabilondo eta Mikel Aizpuruak.

BI TALDE NAGUSITAN BANATUTA
Bertsolariak bi taldetan banatu dituzte: txikiak, hau da, 14 urte artekoak; eta handiak, 15 eta 18 urte bitartekoak.

Txikiei dagokionez, taldeka lehiatuko dira; eta handiak, berriz, banaka. Zoritxarrez, ez da Debagoieneko ordezkari izango finalean.

Euskal Herria

www.euskalherria-aldizkaria.com
mendia, kultura, natura, bidala aldizkariak
aurkezten du

Mundumira

munduko kulturen festa

ekainak 1/2/3
Aretxabaleta-Debagoiena

KIKO VENENO

catalunya

GECKO TURNER

extremadura

TOMAS SAN MIGUEL

euskal herria

MARIANA RAMOS

cabo verde

DAM

palestina

Euskadiko **BOULDER** txapelketa

Artisautza Azoka, Munduko Zaporeak, Bidezko Merkataritza, Mendiko Azoka, Erakusketak, Diaporamak, Mendi Igoerak, Graffitiak, Haurrentzako Antzerkia, Dantzak, Kale Antzerkia...

JAIPUR KAWA BRASS BAND india
ORQUESTA ÁRABE de BARCELONA
ROMANÍ CHAVÉ bulgaria
LES BESTIOLES DE LA GARRIGA occitania
TRÍO FORRÓBÓDÓ brasil
ECHA PAKÁ cuba
MAMADU ginea bissau
ALBALA arabiako dantzak
FESTICULTORES TROUPE galicia
ARTEA TEATRO aragón

i 902 181 471

www.mundumirafesta.com

Antolatzaileak:



Babesleak:



Kolaboratzaileak:



INMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 97 97
www.inmokokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simón Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berrituko.
- San Pedro 110 m². Estreinatze.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Aranerrika 87 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Ondo.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiare 60 m². Berritua.

Elgeta:

- Etxebizitza berrien eraintzua, 2-3 logela, Duplex-ak, garajea, terraza, Bista politik.
- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Bidekuruzeta, 82m², ia berria
- Arizuri, 97m², oso ondo
- Juan XXIII, 80 m², berritua
- Masterreka, 87m², oso ondo
- Zabalotegi, 50 m², berritua
- Bidekuruzeta, 60 m², oso ondo
- Zubiare, 60 m², aukera ona
- Ibarra, 47m² berritua
- Martoko, 78 m², oso eguzkitsua
- Erdialdean, 200 m², aukera ona
- Ibargarai, 80 m², ondo
- Artekale, 62 m², oso ondo
- Barrenkale, 40 m², berritua
- Artekale, 158 m², duplexa
- Mugertza, 60 m², berria
- San Lorentzo, 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

SORALUZE

- Gabolatz, 65 m², oso ondo
- Aburi, 93 m², oso ondo.

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

DEBAGOIENA

ARANTZAZURAKO SUKALDARIKA BEHAR DIRA.

Interesatuak bidali CVa:
gandiagatopagunea@gandiagatopagunea.com

Postaz: GANDIAGA TOPAGUENA
Arantzazu auzoa z/g Oñati 20567
Erref.: LANPOSTU ESKAINTZA

ARRASATE

Bi etxebizitza salgai

- Estreinatzeke
- Larrea plazan
- Sukalde hornitua, 80 m² gutxi gorabehera
- Prezioa: 237.400 euro
- Estreinatzeke
- Larrea plazan
- Sukalde hornitua, 120 m² gutxi gorabehera
- Prezioa: 297.500 euro

617 33 63 11

ARETXABAETA

Baster Alde jatetxeak esperientziadun zerbitzaria behar du. Domeketan jai.

679 45 57 75

OÑATI

Ile apaintzaile esperientziaduna behar da. Egun osoko lanaldia martitzenetik zapatara, urtean 8 zapatu jai.

607 81 52 74

ARRASATE

Plazan dagoen Zuk Nahi taberna errentan ematen da.

618 76 34 40

tzita. Aire girotua du. Terraza handia eta bista ederrak. Irailera. 629 98 98 99.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan uztailetik aurrera. 667 56 13 24.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai San Lorentzon. 943 76 40 05.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea errentan Uarkapen. 18 m². 699 49 14 32.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

bulegoa alokairuan 450-500 eurotan, 17 metro karratu, komuna eta beste gela bat erabiltzeko aukera, arrasate erdian. Tfnoa. 679590438. 679 59 04 38 edo 659 59 71 21.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate umea zaintzeko euskaraz hitz egiten duen pertsona behar dugu. 696 11 04 14.

402. ESKAERAK

Bergara. Neska euskaldun eta arduratsua uztailean umeak zaintzeko prest. Amaia. Telefonoa: 635 75 39 51.

402. ESKAERAK

Debagoiena. Emakume arduratsua egiteko gertu. Telefonoa: 606 20 53 73.

402. ESKAERAK

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko, sukaldelaguntzaile izateko edo pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. 646 75 08 07.

402. ESKAERAK

Debagoiena. Neska arduratsua lan egiteko gertu 08:00etatik 18:00etara. 696 20 73 76.

402. ESKAERAK

Debagoiena. Neska gazte eta arduratsua gertu etxeko garbiketa egiteko edota pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentzia onak. 943 53 33 47 edo 665 71 27 87.

402. ESKAERAK

Debagoiena. Neska gaztea lan biladabil, ordular egiteko. 666 67 84 21.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. DBH2ko ikasle batek eskola partikularrak jasoko lituzke, ahal bezain laster. Telefonoa: 943 79 89 96.

502. EMAN

Arrasate. Ekainetik irailera eskola partikularrak emango nitzkie-

ke 12 urte arteko umei, arratsaldean. 659 82 51 62 edo 943 79 93 82.

Bergara. Emakume euskalduna uztailean eskola partikularrak emateko prest. DBHko 4. mailara arte. 635 75 39 51.

Oñati. Irakasletzan diplomadunak eskola partikularrak emango lituzke uztailean. 666 21 73 48.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Ford Focus Trend 1.6 salgai. 100 ZP. 84.000 km. 6 urte ditu, 5 ate eta kolore zuria. Oso egoera onean. 639 17 49 52.

Jeep Cherokee 2.1 T Limited. Margotu berria. Oso egoera onean. 4.500 euro. Arratsaldean deitu. 655 45 07 25.

Peugeot 206 XT salgai. 1.9. 70 ZP. 2001eko. Urdin argia. Egoera onean. 636 04 07 54.

Renault 19 Chamade salgai. Gasolinazkoa. Airegirotua, leihotzatutakoak, direkzio biguna, irratia, kasetea. Oso ondo zainduta. 109.000 km. 1.500 euro. 609 55 62 10 edo 943 79 82 54.

Suzuki RM 125. 2001eko. Egoera onean dago. 2.800 euro. 679 24 89 72.

VW California. 1996. urtekoa. 636 28 00 07.

VW Golf 1.6 salgai. Gasolinazkoa. 1999koa. 66.000 km. Airegirotua. Gurpil berriak. Egoera ezin hobean. Bete garajea. 7.800 euro. 646 58 43 59.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Apalategiak salgai. Ibonengatik galdetu. 943 76 13 48.

Autokarabana salgai. 2006ko otsailekoa. TDI 130 ZP. 23.000 km. 667 41 20 33.

Bizikleta salgai. Euskaltel-Euskadi taldearen erreplika. Orbea Arin. Neurria: 54. Dura-Ace osagaiak, Ksyrium SL gurpilik. 1.700 euro. 656 76 89 44.

Karabana salgai. Oso prezio onean. 687 52 27 42.

Realeko jantzi ofiziala salgai. Erabili gabea. 12 neurrikoa. 30 euro. 943 77 13 11.

Sukaldeko mahaia saltzen dut. 140x90 zentimetro ditu, eta forma obaldua dauka. 200 euro. 617 17 15 88.

802. EROSI

Aulki bat erosi nuke bizikletan umea erateko. Iker. 626 71 98 16.

806. GALDU

Oñati. Urrezko belarririkotat, perla zuria eta zirkonita batekin, galdun hilen 14an Oñatiko udalategi inguruan. 628 77 98 78.

808. BESTELAKOAK

Ile-luzapenak egiten ditut, ilekordat (trentza) nahiz ile naturala izan. Deitu arratsaldean. 669 83 50 95.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Debagoiena. 37 urteko Arrasateko mutilak harremanetarako mutila ezagutu nahiko luke. Interesa baduzu bidali SMSa. 665 75 58 74.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Baserrira salgai lursailekin. 943 76 62 98 edo 943 76 65 03.

Arrasate. Etxebizitza salgai San Andresen. 57 m². Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldia. Kanpoaldea begira. Igogailu eta sotoa. 620 15 12 12.

Arrasate. Etxebizitza salgai. Otalora 2. Azkeneko solairua, ikuspegi zoragarria, hiru logela, bi komun. Bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. Zigarrola auzoan, 120 m², 5 logela, 2 komun, sukaldia, despentsa, egongela, ganbarra, txokoa eta 150 m²-ko terraza. Eguzkitsua. 647 41 93 66.

Arrasate. Etxea salgai Arima Zubin. Bi logela. Ganbararekin. 657 77 81 87.

Arrasate. Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, bi komun, egongela eta sukaldia. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

Arrasate. Etxebizitza salgai, San Andresen. 75 metro koadro. Eguzkitsua. Oso kokapen ona. 639 03 25 97.

Arrasate. Hiru logelako etxea errentan San Andresen. 665 70 75 01.

Arrasate. San Andresen, Txindoki dorrean, 109 m²-ko etxebizitza saltzen da. Eguzkitsua eta bista ederrekin. Lau logela, sukaldia, egongela handia, bi bainugela eta hiru terraza. Berritua. Berokuntza zentrala. 64.000.000 pta. 385.000 euro. 943 79 19 94.

Arrasate. San Josepen. 58 m², bi logela, egongela, bainugela eta garaje-trastelekuak, berogailua, igogailua, guztiz berritua. Deitu 19:00etatik aurrera, mendez. 667 53 70 00.

Bergara. Etxea salgai Zubiaurren. Berogailu eta ganbararekin. 619 41 39 72.

Bergara. Etxea salgai. 40 m², igogailuarekin. Garajea aukeran. 687 97 64 55.

Bergara. Zubietan etxea salgai. Eguzkitsua, prezio interesgarria. 679 45 57 62.

Elgeta. Lau urteko etxebizitza

ARRASATE

Jatetxe bateko sukaldian lan egiteko.

618 62 79 88

Elgoibarren etxebizitza salgai. Jantzia, 70 m², bi komun eta bigela. Solariuma. 36.000.000 pta. 662 42 27 01.

Ezkarai. Etxebizitza errentan ematen da uztailean eta abuztuan. Urbanizazio baten dago. Hiru logela dauka eta herri erdialdean dago. Igerilekua eta lorategia dauka. Familia baten zatz egokia. Deitu 20:00etatik aurrera. 639 82 42 76.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorentzo auzoan. Saloi-sukaldia eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Oñati. Etxea salgai Ugarkalde auzoan. Berritua. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta terraza. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. Lehenbailehen saltzeko premia. 670 27 45 82.

Oñatin etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 90 m², 3 logela, sukaldia, egongela, bi

ARRASATE

Gozotegiak zerbitzari esperientziaduna behar du. Euskaraz jakitea ezinbestekoa.

645 99 67 06

Komun, estudio bat, ganbara eta garajea. Gertu sartzeko bitziera. Telefonoa: 606 96 16 13 edo 943 71 60 56.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Duplexa alokatzen da. 105m², zentroan, ia berria, jantzia, 2 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainu. Ikasleei ez zaie alokatuko. 629 46 93 91.

Arrasate. Erguin auzoan. 78 metro koadro. Eraberrituta eta jantzia. 617 17 18 23.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da ikasleentzat; emakumezkoak nahiago. San Andres auzoan. Erabat berritua, estreinatzeke: hiru logela, sukaldia hornitua (mikrouhin-labea, bitrozeramika...), egongela eta komuna. Igogailua. Unibertsitate hiru minutu eta erdi-gutxi bost minutu. Telefonoa: 600 60 56 71.

Arrasate. Hiru logelako etxea errentan San Andresen. Telefonoa: 665 70 75 01.

Benidorm. Apartamentua alokagai daukat hondartza parean. Lau lagunendako apropro-

sa. Abuztuko bigarren hamabostaldian eta irailean. Igerilekua eta garajea ere baditu. 945 21 34 70 edo 652 75 91 72.

Benidorm. Apartamentua ematen dut errentan. Hondartatik gertu, lehen lerroan. Marisa. 685 72 39 55.

Calpe (Alicante). Apartamentua errentan ematen dut. Merke. 647 51 09 21.

Cauterets. Apartamentua ematen dut errentan. Frantziako Pirinioetan. Goi mailako trekkinga; birrindularitza; Vignemale; Gabarnie; Tourmalet, Luz, Hautacam. 625 70 61 91.

Conil. Bateles hondartza ondoan. Erabat jantzia. Aire girotua du. Ekainetik irailera. 680 44 26 68.

Conil. Etxebizitza ematen dut errentan Conilen. 656 77 94 32.

Elizondo. Etxebizitza alokatzen dut Elizondon. 630 08 33 85.

Jacan bi logelako etxea errentan. Garajea, tenis pistak eta igerilekua. 665 73 95 65.

Noja. Duplexa da eta hondartza ondoan dago. 696 90 94 43.

Oñatin hiruro logelako etxebizitza, guztiz jantzia eta 550 euro hilean. Abuztutik aurrera. 645 71 98 84.

Peñíscola. Ekainetik irailera etxebizitza errentan ematen da. Hondartatik 100 metrora. Igerilekua eta apartakalea. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

Salou. Jaime I pasealekuan, Novelty eraikinean. Erabat jan-

AI SIALDIRAKO MONITOREA

AI SIALDIRAKO MONITORE bat bitarteko funtzionario izendatu nahi da aldi baterako Iturbide Egoitzarako.

Interesdunak aurkeztu behar dira ekainaren 6an goizeko 10:00etan Udaletxean probak egiteko.

Oinarriak: BAZen eta web orrian jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Pertsonal Saila

LAGUN ARO ASEGURUAK

LAGUN ARO ASEGURUAK enpresak, Caja Laboral Taldearen barruan dagoena eta **MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA (MCC)** enpresarena denak, sare komertzialerako **KOMERTZIALA** behar du **BERGARAN** (Erref.: 479-07)

Sukurtsaleko zuzendariaren aginduetara, eta hasierako pres-takuntza epealdi baten ondoren, pertsona horren eginbeharra izango da merkataritza jarduerak aurrera eramatea, konpainiak lan egiten duen alorretan bezeroak egin eta haiei euste aldera.

Bilatzen dugu: bigarren mailako ikasketak eta komertzial profil argia dituzten pertsonak, eta gutxienez urtebeteko esperientzia izatea aseguru edo finantza erakundeetan edo zerbitzu enpresetan.

Eskaintzen da lehenbailehen lanean hastea, hedatzen ari den enpresa horretan lan egonkorra izatea eta soldata finko edo aldakorra edukitzea egiten den esperientzia-ekarpenaren arabera.

Interesatuok bidali **curriculum**a, argazki eguneratua eta lanpostu erreferentzia helbide honetara:

Lagun Aro Aseguruak
Capuchinos de Basurto 6- 2
48013 Bilbo
Edo webgune honetara: www.segurolagunaro.com

Pertsona hautatuei 15 egunen buruan deituko zaie.

ULMA

Packaging **erref 08/07**

Ulma Packaging-ek, ontziratze sistema eta makinak eskaintzen bitartez merkatuari konponbide berritzaileak hornitzen liderra, lanean hasteko behar du:

DOKUMENTAZIO TEKNIKARIA

Formazioa:

- LH II/Goi Zikloko Heziketa Modulua, espezialitatea Delineaioa/Proiektu Mekanikoen Garapena espezialitatea; edo Ingeniaritza Teknikoa, Diseinu Mekanikoa espezialitatea.
- Diseinuko erremintak: Autocad, Solid Edge y Microstation
- Ezinbestekoa ingelesez jakitea; beste hizkuntza batzuk jakitea baloratuko da.
- Ofimatika ezagutzak erabiltzaile mailan: word, excel, power-point,...

Lanpostuaren Egitekoak:

- Inplikaturako area desberdinetatik eskuliburuak egiteko beharrezkoa den materiala jaso.
- Piezen esplosionatu eta zerrenden dokumentazio guztia prestatu, beharrezkoa denean eguneratu.
- Proiektuaren eskuliburu pertsonalizatua egin, proiektu bakoitzarentzat beharrezkoa den dokumentazioa kontratuen espeziifikazioen arabera prestatu.
- Dokumentazio guztia, eskuliburu barne, intranetean dagokien karpeta dagoela arduratzea eta, makinaren aldaketa bakoitzaren ondoren, dokumentazioa eguneratuta dagoela jarraipena egitea.
- Indarrean dagoen eskuliburu eguneratzea, sortzen diren aldaketak eta egokitzeak kudeatuz.

Gaitasun Profila:

- Lan, autoantolaketak eta kontzentrazio ahalmen handiko pertsona eskatzen da, harremanetarako eta talde lanerako gaitasuna duena.

Interesatuok bidali curriculum honako helbidera:
ULMA Packaging-eko GG.BB etako Departamentua
Garibai auzoa 28 145 posta-kutxa 20560 OÑATI
Gutun-azalean lanpostuaren erreferentzia adierazi.



Mimi Exposito eta **Manuel Pavo** ezkondu zirela 25 urte bete ziren maiatzaren 22 an. Zilarrezko ezteiak bete dituzten honetan, zorionak, familia guztiaren partetik. Laztan handi bana eta uste askotarako.



Izaskun Hernando eta **Eneko Blanco** arrasatearrak zapatuan ezkonduko dira, ekainaren 2an, Monterronen. Baster-Alde jate-txean egingo dute bazkaria eta eztei bidaian Peru aldera joango dira. Zorionak, bikote, lagunengatik.



Antonio Biain eta **Juanita Bikuña** oñatiarrak 1957ko ekainaren 1ean ezkondu ziren Oñatiko parrokiaren Urrezko ezteiak bete dituzten honetan, zorionak eta laztan handi bana familiakoen partetik. Ondo-ondo pasa domekako ospakizunean!

hildakoak

- **Maria Antonia Galartza Zulueta.** Oñatin, maiatzaren 16an. 89 urte.
- **Jose Manuel Arrojeria Mandizabal.** Arrasaten, maiatzaren 24n. 64 urte.
- **Pedro Jose Carrillo Carmona.** Eskoriatzan, maiatzaren 24an. 87 urte.
- **Josefa Larrañaga Loiola.** Oñatin, maiatzaren 24an. 77 urte.
- **Maritxu Eguren Zabaleta.** Bergaran, maiatzaren 25ean. 73 urte.
- **Felipe Letona Arexolaleiba.** Eskoriatzan, maiatzaren 25ean. 88 urte.
- **Teodora Irurzun Gil.** Arrasaten, maiatzaren 26an. 79 urte.
- **Flora Daza Gomez.** Bergaran, maiatzaren 26an. 78 urte.
- **Olga Murillo Ilarduia.** Bergaran, maiatzaren 27ean. 54 urte.
- **Eusebia Arrese Idigoras.** Aretxabaletan, maiatzaren 28an. 90 urte.



Elgetako **Maribi Irazabal** eta Bergarako **Jose Luis Etxaniz** orain dela 40 urte, maiatzaren 27an, ezkondu ziren Elgetan. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, biloba Unaxen eta etxeko guztien partetik!



Juanita Lete arrasatearra eta **Moises Gardoki** bergararra 1957ko Maiatzaren 30ean ezkondu ziren Arantzazun. Urrezko ezteiak bete dituzten honetan, zorionak, bikote. Arrasateko familia guztiaren partetik. Laztan eta besarkada bana.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkarte: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.

ESKER ONA

Maritxu Eguren Zabaleta

Bergaran hil zen 2007ko maiatzaren 25ean, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko senar eta seme-alaben izenean.



Bergaran, 2007ko ekainaren 1ean.

URTEURRENA

Valentin Letamendi Lezeta

Lehen urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 2an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juanita Ugarte Berasategi

Lehen urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 2an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Lizarralde Aiastui

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 5an, 11:50ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

Zerbitzu etengabea 365 egunean

Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera...

Erantzun azkarra, tratu pertsonala

Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan
Aukera lore apainketan:
koroak, erramuak eta zentroak

Bete beharreko tramiteak

Gorpua prestatu eta dotore ipini

Zerraldo aukera, denetariko prezioak

Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko


Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako




bila-bila 7



hitz gezidunak

	Lursagarra	Pl., landare xehea	Niri, du
	Jakingo banu	Notario	Atzizki gaitzesgarria
	Arraun-euskarri		
	Tontor		
* Irudiko aberea	Katu ar		Intsektu odol xurgatzaile
Zelatan dabilena	Handi		
Pl., detektagailu mota			
Hosto		Kasik	Bokala
		Idi, hitz elkarteetan	Otx!
Barre		Nasa, molla	
Ahaleginak egin		Uraniaoa	
			Indioaren ikurra

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

GLOBOAN

Montgolfiere motako globo batean aireratu da Pierre Parisen, Europa zeharkatzeko asmotan. Bigarren egunerako, galduta dabilela konturatu da. Mapa astindu eta biraokatu arren, arazoak ez du irtenbiderik: orientazioa galdu du.

Non dabilen jakiteko, altuera galdu eta lurrera inguratu da. Tolosa ondoko Uzturre mendian egokitu da.

Tontorrean, gizon bat dago eta zera galdetu dio globotik:

- Barkatu, baina, esango al zenidake zehatz-mehatz non nagoen?

Eta tolosarrak oihuka erantzun:

- Bai, noski! Montgolfiere batean!

sudokua

	6		8	1		
			9			
4	1	7	5			2
					4	3
6			4			1
2	9					
3		5	2	7	6	
			7			
	5	6		3		

hieroglifoa

Zeinek kendu dio erregina?




hizki salda

5 fruta

A	K	I	W	I	A	M	A	A
R	L	A	T	S	H	I	A	O
R	A	R	I	M	B	A	R	N
A	N	I	U	U	R	R	I	A
G	A	D	R	L	K	A	N	T
A	S	R	T	A	A	N	D	A
S	A	G	A	E	D	I	O	L
M	E	M	E	K	T	A	T	P
M	A	R	P	I	Z	T	M	Z

soluzioak



N	I	U	T	A	V	A	S
A	K	R	I	R	I	R	
A	A	I	A	R	I	R	I
K	A	R	A	D	A	R	
A	A	R	I	A	T	A	R
R	A	R	A	T	K	Z	
T	E	T	O	L	E		
I	K	E	B	A	N	E	
D	B	P					

9	3	2	8	6	4	5	7	1
8	1	4	3	7	9	6	2	8
6	7	8	2	1	5	4	9	3
8	6	7	1	3	5	4	2	9
1	2	1	6	4	9	8	3	7
5	8	1	6	2	7	9	4	3
4	1	8	7	3	5	6	9	2
7	5	2	1	9	6	3	8	4
9	6	3	2	8	4	1	5	7

Jeroglifikoak: Dorreak.

Z	M	Z	I	P	M	A	R	M
A	K	I	W	I	A	M	A	A
A	R	A	N	B	A	R	N	A
A	N	I	U	U	R	R	I	A
A	D	R	L	K	A	N	T	G
A	S	R	T	A	A	N	D	A
S	A	G	A	E	D	I	O	L
R	L	A	T	S	H	I	O	L
A	K	I	W	I	A	M	A	A



Aretxabaletako auzo bateko eliza ageri da argazkian. Euskal Herriko eliza askok moduan pilotaleku txiki bat du alde batera. Aretxabaletako zein auzotan dago?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta



Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileen artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Calvo atun argia
80 g-ko hiruko packa

1,49 €
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Arrasateko NEREA DE BLASendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Gipuzkoakoak, Eibar, Bergara eta Arrasate.
Bizkaikoak, Elorrio eta Zaldibar.

11.ferixie

Eskoriatza

ekainak 2, larunbata

Animatu eta zatoz ferixara!

ANTOLATZAILEA

A
Arizmendi
ikastola
Jose Arana gunea



Opel Antara berria Hiriko mugak azter itzazu

Hiria zure burua probatzeko leku perfektua izan daiteke auto egokiaren bolantean baldin bazaude.

Gidatzeko era berri bat ezagutu ezazu Opel Antara berriarekin. Diseinu eta prestazio ezin hobekak azter itzazu. Mugak gaintzen dituen seriezko teknologia azter ezazu. Serieko ekipamendua gama guztietan:

• Trakzio inteligentea AWD • Jaitsiera kontrola DCS • Jarduneko babesa • Balaztatzean asistentzia hidraulikoa HBA • Balaztatze kontrola kurbetan CBC • ESP • ABS • 227cv. rainoko gasolina eta diesel motorrak



Gama Antara: Kontsumo mixtoa (l/100km) 7,5 - 11,6. Jaulkipena-CO₂ (gr/km) 197 - 277.

Giauto

ELGOIBAR
Olaso 25
EIBAR
Otaola 27

ANOETA-TOLOSA
Benta-Aldea Ind. 3
ARRASATE
San Andres 10D

BERGARA
Olabarrena
OLABERRIA
Karobi Ind.

salmentak: 902 345 123
tailerra: 902 345 125

www.giauto.es
clientes@giauto.es

Egoitz Olalde > Bateria-jolea

"Aitajaunak egindako bi makilarekin ibiltzen nintzen etxean, txikitán"

Egoitz Olalde txikitatik izan du argi musika egin eta, bereziki, bateria jo nahi zuela. Hainbat taldetan ibili ondoren, Iñigo Ibarondorekin eta Mikel Zarketarekin Sharon Stoner taldea osatu zuen. Gainera, Sor-kun abeslariarekin ere ibili izan da bateria jotzen oñatiarra. Orain, Potemkin taldeko Axibar abeslariarekin dabilta Sharon Stonerrekoak kontzertuetan.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Egoitz Olalde (Oñati, 1980) eta haren lagunak kontzertuz kontzertu ibiltzen dira aste bukaeretan. Sharon Stoner taldearekin ez bada, beste kontzertu batzuk entzuteko ohitura izaten du Olalde. Oraingoan, Zumaiarako bidean harrapatu dugu oñatiarra taldekideekin batera.

Sharon Stoner beste proiektu batean murgildu da.

Bai, hala da. Kyuss talde amerikarraren bertsioak egiteko gogoa geneukan; izan ere, Sharon Stoner hortik atera zen: hasieran, Kyuss taldearen bertsioak egiten genituen. Beraz, gogoa geneukan talde horri omenaldia egiteko. Euren diskografiako abesti gogokoena hartu eta bertsioak egin ditugu. Baina aukerako abeslariaren beharra genuen, eta Potemkin taldeko Axibar aukeratu dugu 5-6 kontzertuko bira txikia egiteko.

Ekainaren 9an Oñatin joko dugu, Saint Boi de Llobregateko talde batekin batera.

Zergatik aukeratu zenuen bateria jotzea?

12-13 urterekin, Metallicaren bideoak ikusten hasi nintzen, eta beti baterian jartzen nuen arreta. Hala, aitajaunak egindako bi makila neuzkan, eta haiekin ibiltzen nintzen etxean; bideoklipak ikusi eta erritmoa jarraitu guran ibiltzen nintzen.


Gero, Oñatiko Musika Eskolan, Gasteizko maisu bat bateria eskolak ematen hasi zen, eta neu ere bertan hasi nintzen ikasten. Solfeoan ere ibili nintzen hiru urte inguru, umetan, baina instrumentua aukeratu behar zenean utzi egin nuen orduan.

Txikitán, ikastolako musika eskoletan bateria jotzeko aukera izan zenuen. Nola gogoratu dituzu urte haiek?

Bai, ikastolako musika eskoletarako, Loli Ordoki irakasleak bateria bat erosi zuen, eta han ibiltzen nintzen, gela guztiaren aurrean jo eta jo. Egia esan, inoiz ez dut lotsarik izan jendearen aurrean jotzeko.

Eta, zenbat taldetan ibili zara, Sharon Stoner taldea sortu arte?

Lehenengo, 15 urte inguru genituela, Dama Baltza sortu genuen. Errekalden lokal bat lortu genuen; han, gelako lagunak ibiltzen ginen entseatzen. Gero, taldekide batek utzi egin zuen, baina besteok No Fuck ize-



GOIENKARIA

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak?** Informatika eta Telekomunikazio modulua eta Informazio Sistemetan masterra. **Zaletasunak?** Musika, kirola eta lagunekin egotea. **Gorrotatzen duzu zer edo zer?** Bizi dugun ezjakintasun maila. **Gomendatze-**

ko moduko film bat? *Los amantes del Círculo Polar*. **Musikari bat?** Stevie Wonder. **Entzun duzun azkeneko kontzertua?** Oñatin, Jonah Smith. **Egin duzun bidaia bat?** Frankfurtera egin nuena. **Bizitzako leloa?** Pentsamendu guztiak errespetatzea.

narekin jarraitu genuen. Talde hura utzi nuen garaian, Latzen ere desegin berri zegoen; hala, Latzeneko Martirekin hasi nintzen entseatzen. Gero, beste batzuk elkartu ziren eta Klorophila sortu genuen.

Ondoren, Iñirekin (Ibarondo) eta Mikelekin (Zarketa) hasi nintzen bertsioak egiten. Gustura ibiltzen ginen elkarrekin, eta gure estiloa zela ohartu ginen. Gaztelekuan kontzertua egiteko aukera izan genuen, eta, kontzertu haren ondoren, taldea sortzea erabaki genuen. Hala sortu zen Sharon Stoner.

Futbolearen ere ibilitakoa zara, atezain. Zergatik aukeratu dituzu atzean egoteko postuak?

Bai, hiru urte ibili nintzen atezain, gazte mailara arte; 16 urterekin utzi nuen. Kasualitatea dela uste dut, ez dut uste zerikusirik duenik.

Jarraitzen duzu euskal taldeen egoera?

Bai, futbola asko gustatzen zait eta ahal dudan guztietan jarraitzen dut gure taldeek egiten dutena; batez ere, Reala jarraitzen dut. Noiz edo noiz, Anoetara joateko aukera ere izaten dut, eta gustura joaten naiz.

Orain dela urte batzuk, Sor-kunekin ibili zinen. Alde handia dago Sharon Stonerren eta Sor-kunen kontzertuen artean?

Sorkunek izen handia dauka, figura dela esan daiteke; beste maila bat da. Sharon Stonerrek jotzen dituen kontzertu gehienak gaztetxe girokoak izaten dira. Sorkunekin, berriz, Kilometroetan, Nafarroa Oinez, en, Sanferminetan... jo izan dut. Baita Anotetan eta Bilbon ere, 12.000 pertsonaren aurrean.

Baina gaztetxe batean, gu edo Sorkun berdinak gara; bai ikusten dagoen jendearen aldetik eta baita musikalki eman dezakegun mailagatik ere.

Azkena Rock jaialdian izan zineten. Nolako esperientzia izan zen?

Izugarria izan zen. Normalean, leku txikitán jotzen dugu, eta hura handia izan zen guretzako. Kontzertuaren aurretik informazio eta dokumentazio mordea eskatu ziguten.

Horrez gainera, pasearekin, *backstage*-era sartzeko aukera izan genuen, eta, besteak beste, Iggy Pop eta Pearl Jamekin egon ginen.



EUSKARA Ikasleen hizkuntza maila hobetzeko protokoloa jarraituko dute Huhezín.

JOXE ARANZABAL

UNIBERTSITATEA > EUSKARA PROTOKOLO BERRIA HUHEZI-N

Huheziko ikasleek euskara maila hobetu ahal izango dute

Euskara maila nahikoa ez duten ikasleekin pentsatuta, hizkuntza maila hobetzeko protokoloa diseinatu du Huhezík, eta probak ekainean ere egingo dituzte

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Ikusita zenbait ikaslek ez dutela euskara maila nahikorik, Huhezík protokolo bat onartu du ikasle horien hizkuntza maila hobetzeko. Protokoloa datorren ikasurtean abiatuko da, baina maiatzean eta ekainean proba egingo zaie horrela eskatu duten ikasleei. Horren haritik, Hizkuntzen Departamentuak arduradun

bat izendatuko du probak diseinatu, pasatu, plangintza egin eta egoera horretan dauden ikasle-en jarraipena egiteko.

Euskara maila dela-eta, bi ikasle mota bereiziko dira.

Batetik, galdera egiten duten ikasle potentzialak. Maiatzean eta ekainean proba bat egingo zaie, euskara maila neurtzeko, eta probekin batera, autobiografia linguistikoa eskatuko zaie. Emaitzak aztertu ondoren, aholkua eman eta jarraipena egingo zaie.

Euskarazko irakasleak kasua detektatu ahala, arduradunari jakinaraziko dio.

Ikasleari elkarrizketa egingo zaio aholkua emateko, eta, behar izanez gero, plangintza egiteko.

KONPROMISOA

Jakin ondoren zein euskara maila duten, konpromiso bat eskatuko zaio ikasleari, eta horren

probagarri, hitzarmena sinatuko du. Hitzarmen horretan zehaztuko da plangintza, alegia, zein epean zein helburu bete behar duen. Arduradunak plangintza horren jarraipena egingo du, eta aldian-aldian emaitzen berri emango die irakasleei.

JOMUGAK

Abiapuntu gisa, maila jakin bat eskatuko zaie ikasleei, ikasketen arabera.

Batetik, irakasle ikasketak egiten ari direnei, Hizkuntzen Portfolio Europarrean C1 mailarako ezartzen diren mailak eskatuko zaizkio; EGAREN parekoa da maila hori.

Ikus-entzunezko Komunikazioa egiten ari diren ikasleei, berriz, Hizkuntzen Portfolio Europarrean C2 mailarako ezartzen direnak. 4. hizkuntza eskakizunaren parekoa da hori.

teknologia berriak

> GPS GAILUAK

Autoan zein kalean erabiltzeko 3,5 hazbeteko ukimen pantaila duen GPSa prezio harrigarrian

Udako oporren aurretik Acer etxeak autoan zein kalean erabiltzeko GPS gailua aurkeztu du, Acer V200.

GPS gailuak 3,5 hazbete eta 240x320 pixeleko ukimen pantaila du. 300 MHz-ko Samsung prozesagailua, 64 MBko RAM eta ROM memoria, SD/MMC txartelak erabiltzeko aukera (mapak, argazkiak, musika...). 172 gramo pisatzen du eta bateriak hiru ordu irauten du. Harrigarriena, berriz, haren salneurria da: 150 euro.



Autotik atera daiteke kalean ere erabiltzeko; duen pisu txikia dela-eta oso eramangarria da.

> USB GAILUAK

WiFi detective, aurkitu itzazu Wi-Fi sareak zure ordenagailu eramangarria piztu gabe

Poltsikoan eraman dezakezun USB gailu honekin denbora aurrez dezakezu erabilgarri dauden Wi-Fi sareak bilatzeko orduan.

LCD pantaila txiki batean beharrezko informazio guztia emango dizu: erabilgarri dauden sareak (802.11b edo 802.11g erabiltzen dutenak), seinalea edo pasahitz bidez babestuta dagoen esango dizu.

Ekainean kaleratuko dute eta haren salneurria 56 euro izango da.



Eramangarria atera gabe, haririk gabeko sareak dauden antzemateko gailua.

> MULTITOUCH TEKNOLOGIA

Microsoft Surface, etxeko bizimodua iraul dezakeen gainazaleko lehenengo ordenagailua


Multitouch teknologia berria ez bada ere, etxeko bizimodua iraul dezakeen tresna aurkeztu du Microsoft enpresak.

Ordenagailu arrun batek dituen prestakuntza guztiak ditu, baina ukimen bidez erabiltzen da 30 hazbeteko pantailan.

Produktua aurkeztu dute, baina 2008. urte bukaera arte ez dute kaleratuko. Duen ekoizpen-kostu handia dela-eta, hasiera batean negozio jakin batzuetara mugatua egongo da: jatetxeak, hotelak, kasinoak eta merkataritza-gune handiak.



Argazkiak eta bideoak ikusi, handitu, marraztu, mapetan nabigatu; hori guztia eta gehiago mahai baten gainazalean.



comercial BRUNET



sasi-garbitze makina

Estatu Batuetan gehien saltzen den marka orain Bergaran!

Kontsumo txikia
Martxan jartzeko erraza

Potentzia handia
Zarata gutxi

www.comercialbrunet.com

Telleria 2 Labegaraiaeta industrialdea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52

berriak

> GOITB

Sorkun taldearen kontzertua zuzenean 'Musikantoi'-n

Sorkun euskal talde ezagunaren musikaz gozatzeko aukera izango duzue datorren egunean *Musikantoi*-n. Izan ere, Madrilgo Festimad jaialdian 2003an eman zuten kontzertu bikaina izango duzue ikusgai eta entzungai. Sorkun euskal taldea ez da estilo itxien lagun, eta, hain zuzen ere, kantuak ez dira plano batean bakarrik mugitzen, aberatsak dira musika-ri dagokionez.

> GOITB

'Jaiak' programa hasiko da asteburuan Goiena Telebistan

Jaien inguruko bi saio eskainiko dituzte asteburuan Goiena Telebistan. Lehena Bergarako Mendekoste jaien inguruko izango da. Bigarrena, aldiz, Goierri Telebistak ekoiztutako Beasaingo jaien inguruko, eta hemen ere, Goierriko herri horretako jaietako gorabeherak izango dira. Bestalde, asteburuan Aretxabaletan ospatuko den Mundumira jaialdia eskainiko dute datorren eguaztenean.

> ARRASATE IRRATIA

Ohiko ibilbideak berreskuratu ditu 107.7ko autobusak

Hauteskunde zurrumbiloren ostean, ohiko geltokieta itzuli da uhinetako autobusa; besteak beste, erakunde geltokiraino hurbildu zen eguaztenean. Mankomunitateko Garapen Agentziak etorkinen gainean egin duen txostena aitzakia hartuta, Jone Morras eta Rakel Gartziaekin egin genuen hitzordua. *Asteko gainbegiratu* saioan berreskuratuko dugun solasaldietako bat izango da.

> ARRASATE IRRATIA

Albistegietan herriko zein Debagoieneko albisteak eguneroko

Igo autobusera! saioa lehenengo geltokia dugu albistegia. Jon Berezibarrek gidatuta, Arrasateko albisteak eta Debagoieneko herrietako kronikak ere jasotzen ditugu tokian tokiko berriemaileen bitartez. Horrez gain, Joxe Landa eguraldi adituarekin eguneroko hitzordua dugu Arrasate Irratian.

Arratsalde eta gau partean ere badituzue 107.7ko albistegiak entzuteko beste aukera batzuk.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Nerea Alias aurkezlea izango da 'Ilunpean' saioan

ETB1eko 'Egin kantu!' saioa aurkezlea da Nerea Alias; egun, kantariak aurkezten dabil plazarik plaza

GOIENKARIA > ARRASATE

Gaur egun ETB1eko *Egin kantu!* programako aurkezlea da Nerea Alias, baina *Betizu* saioan egin zen ezagun 23 urteko gazte anotarra. Nerea Alias kanturako zaletasuna txiki-txikitatik dator. 17 urte zituela Euskal Herriko kantu txapelketan parte hartu zuen lagun batzuekin batera osatu zuten talde batekin, eta herriz herri ibili ziren beste taldeekin lehiatzen. Orain, antzerako saio baten ari da aurkezle lanetan eta egubakoitzean GOITBk eskainiko duen *Ilunpean* saioan bere bizitzako gorabeherak ezagutuko dituzue.



NEREA ALIAS Gazte anotarra ETBko aurpegi ezagunetako bat da. GOIENKARIA

'HAUTESKUNDEAK' > ALKATEGAIEKIN HIZKETAN

GOITBko informatiboetan gure ibarreko alkategaiekin elkarrizketak

GOIENKARIA > ARRASATE

GOITBk, eguneroko iluntzeko informatiboetan, alkategaiekin izandako elkarrizketak eskainiko ditu. Eguneroko herri bakoitzeko alkategai bat izango da GOITBko platoan, eta euren balorazio edota proiektuen berri

emateko aukera izango dute. Iluntzeko informatiboetan eskainiko dituzte elkarrizketak, eta hurrengo eguneko eguerdiko informatiboetan errepikatuko dituzte. Datorren astelehenean, ekainaren 4an, Arrasateren txanda izango da. GOITBko

platoan izango da Ino Galparsoro (EAE-ANV) alkategaia. Hilaren 5ean, martitzenean, Bergarako Agurte Barruso (EAE-ANV) ikusi ahal izango duzue; hilaren 6an, Elgetako Oxel Erostarbe (Aralar) joango da GOITBra; eta hilaren 7an, berriz, egubakoitza, Eskoriatzako Pedro Lasagabasterren (EAE-ANV) txanda. Bestalde, *Berbaire* saioan ere egingo dute hauteskunde inguruko saio berezi bat, eta bertan izango dira Andoni Gartzia, Aitor Arantzabal, Pello Urizar, Oxel Erostarbe eta Ander Rodriguez.

telebegi

Edorta Arana > www.goiena.net/blogak/hamaika

Emaille Handiaren Showa

Hilzorian dagoen emakume bat bere giltzurruna telebista programa baten irabazleari emateko prest agertu da, Herbeheretan. Endemol *reality* show ekoizlerik aitzindariaren eta famatuaren azken okurrentzia izan da. *Big Donor Show* izena jarri diote espektakulo berriari. Eta, noski, arrakastarako hain beharrezkoa izaten den eskandalua lehertu da.

Txirrin asko jotzen ditu *reality* berri honek, beste batzuen artean, moralarena, audientzia lehiarena eta espektakuluarena. Ikusiko dugu zertan gelditzen den. Gauza bera gertatzen da hauteskunde osteko itunekin: ikuskizun direla oraindik ere. Parekoak direnik esan barik, Nafarroako gobernuan, Gipuzkoako eta Arabako aldundietan eta hainbat udaletan emaillea eta hartzailea zein izango den ez dago erabakita. Horietan ere, giltzurruna emateko prest nor dagoen jakiteko dago. Organo bat eman eta beste bat hartu horrela izaten dira politikako showak. Baina, azken denboraldian ugaritu egin dira organoak kendu egin dizkieten kasuak, baimenik gabe. Bakoitzak jarri ditzala siglak.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Ino Galparsoro; Imanol Agirre, *Euskal Herria* aldizkariko zuzendariordea, Mundumira jaialdiaren gainean; Ernesto Murgiondo, Arrikruz kobari buruz...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenean egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Merkatu txikiaren geltokia
Erakundeen geltokia
Elkarteen geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 1

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ikusten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Bergarako jaiak 07. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Ikusten. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Kirolari. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 2

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Boboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Kirolari. 12:00 Astekoak. 12:15 Klika. 12:45 Eltze beroa. 13:30 Erreportajea. 14:00 Bergarako jaiak 07. 14:30 Beasaingo jaiak 07. 15:00 Ikusmira. 15:30 Ur eta lur. 16:00 Didjeridu. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Klip@. 20:00 Ikusten. 20:30 Erreportajea. 21:00 Klika. 21:30+5. 22:00 Astekoak. 22:15 Klip@. 22:30 Ilunpean. 23:00 Didjeridu. 23:30 Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 3

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Boboak eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusten. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Klip@. 13:00 Kirolari. 13:30 Erreportajea. 14:00 Didjeridu. 14:30 Ilunpean. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Kirolari. 18:30 Ikusten. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Beasaingo jaiak 07. 21:00 Bergarako jaiak 07. 21:30 Klika. 22:00 Didjeridu. 22:30 Ikusten. 23:00 Erreportajea. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 4

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Ikusten. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Bizitegia. 16:15 Kirolari. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta lur. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 5x5. 22:15 Hasiberriak. 22:45 Berriak. 23:15 Didjeridu. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 5

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Boboak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 x 5. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaila. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Boboak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Bizitegia. 18:45 Albisteak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboak. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ur eta lur. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:15 Teknopolis. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Ikusten. 22:15 Telesaila. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Ur eta lur. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 7

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Boboak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ikusten. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaila. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Boboak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:15 Klika. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboak. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Musikantoi. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 x 5. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.



ETXEBIZITZAK ETA GARAJEAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)



Anboto

INBENTSIONAK ETA ZERBITZUAK, S.A.
INVERSIONES Y SERVICIOS, S.A.
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK
ASESORES INMOBILIARIOS

📞 943 79 20 48



UTE URIBARRI
Sukia GEDI

www.sukia.com

eskerrik asko Arrasate

1.452
boto

ezkerretik

beste Udal bat egin daiteke

Arrasateko
ezkerra batzen

EB EzkerBatua
Berdeak

ZUTIK

Maiatzak 25 ekainak 1

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 - Faxa: 943 25 05 13

Antzerkia



ELGETA

> 'Walt Disney me jodió la vida' izeneko antzezlan Espaloia antzokian

La Lulu Comedi antzerki taldeak *Walt Disney me jodió la vida* izeneko antzezlan egingo du gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espaloia antzokian. Taldeak haurrendako ipuinak ikusteko duen modu berezia erakutsiko du.

Musika



ESKORIATZA

> 'Makala' musikaria Inkernu tabernan izango da gaur, egubakoitza

Aitzorrotz kultura taldeak antolatuta, Mikel Untzurruntzaga *Makala* musikariak *sound system* egingo du Inkernu tabernan, 22:00etan. *Boom Shaka Laka* diskoko doinu dantzagarriak entzuteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Ospakizuna



ARRASATE

> Garagardoaren VIII. festa ospatuko dute gaur eta bihar

Garagardo festaren zortzigarren aldia ospatuko dute gaur eta bihar arrasatearrak. Herriko Plazan jarritako karpa 19:00etatik goizaldera arte egingo da zabalik. han, Alemaniako edari eta jakiak dastatzeko aukera egongo da.

batera, *Maien egutegi sakratua* delako tailerra egingo du Tere Aldalurrek kultura etxean, 19:30ean eta 22:15ean, *Gazteak Iruñako gaztetxetik bota zituztenekoa* filma emango dute 22:15ean, Inkernun.

Ekainaren 5ean, martitzena, Aste Zapatistaren barruan.

ESKORIATZA

> 'Los sin tierra' mugimendua- ren gaineko hitzaldia

Iñaki Arnaizek egingo du hitzaldia, kultura etxean, 19:30ean. 22:15ean, *Zapatistak* izeneko filma emango dute Aldatz tabernan, 22:15ean.

Ekainaren 6an, eguztena, Aste Zapatistaren barruan.

ANTZUOLA

> 'Antzuolarrak berbetan' proiektua aurkeztuko dute

Herriko hainbat pertsona nagusiri egindako elkarrizketek osatzen dute proiektu hori. Herriko hizkera eta ohiturak jaso eta herritar guztien eskura ipiniko dute gero.

Ekainaren 7an, eguena, 19:00etan, Orlaran etxeko aretoan.

ARETXABALETIA

> Apiterapiaren gaineko hitzaldia antolatu du Loramendi euskara elkarteak

Luis Mari Intzak egingo du hitzaldi hori.

Ekainaren 7an, eguena, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

ESKORIATZA

> 'Ocupación rural' izeneko hitzaldia

Kultura etxean egingo dute, 19:30ean. 22:15ean, berriz, Rafa bakarlariak kontzertua egingo du Naira tabernan.

Ekainaren 7an, eguena, Aste Zapatistaren barruan.

Lehiaketak

BERGARA

> Kirol argazkien lehiaketa deitu dute Udalak eta Pol-Polek

EAEn bizi den edozein zalek har dezake parte. Gaia kirola da eta zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahaliko dira lanak. Lanak Bergarako udaletxean aurkeztu behar dira.

Irailaren 12a da mugaeguna.

ESKORIATZA

> San Pedro jaietarako esaldi eta kartel lehiaketa deitu ditu Udalak

Esaldi lehiaketan 13 urtetik gorako eskoriatzarrek har dezakete parte, 3-5 lagun bitarteko taldeak sortuz. Ekainaren 3a da mugaeguna. Jaietako egitarauko azalaren kasuan, edonork har dezake parte. Kartelak eroan behar du: *2007ko San Pedro Jaiak, Eskoriatza*. Mugaeguna da gaur, ekainak 1.

Informazio gehiago Kultura Zerbitzuan.

Musika

ARRASATE

> Denial taldeak emanaldia egingo du

Arrasateko Denialekin batera Dirua taldeak ere egingo du emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan, 3.60 aretoan.

BERGARA

> Mikel Urdangarinek kontzertua egingo du

Zornotzako bakarlariak Gorko kantinan egingo du emanaldia.

Bihar, zapatua, 21:30ean.

OÑATI

> Ibarreko hiru taldek kontzertua egingo dute gaztelekuan

Oñatiko Tribute to Metallica -Metallicaren bertsiok- eta Arrasateko Muskarria -70eko hamarkadako hard rocka- eta Foxy Boxy -70eko hamarkadako rock-soula- taldeek egingo dute kontzertua.

Bihar, zapatua, 22:00etan, gaztelekuan.

ELGETA

> Bergarako Orkestra Txikiak emanaldia egingo du

Musika Eskolako ikasleek osatzen dute Bergarako Orkestra Txikia.

Etzi, domeka, 13:00etan, Espaloian.

Antzerkia

OÑATI

> 'El sargento calamidades' antzezlan

Zumarragako erretiratuen antzerki taldeak egingo du emanaldi hori. Pake Lekuko Erretiratuen Astearen barruan.

Gaur, egubakoitza, 17:00etan, Santa Ana aretoan.

Erakusketak

ARRASATE

> 'Cerrajera 101' delako erakusketa ikusgai gaurtik aurrera

Zerrajeraren mendeurrena ospatzeko antolatutako ekitaldi sorta itxiko du erakusketa horrek.

Ekainaren 30era arte, Kulturateko klaustroan.

ELGETA

> Justina Elexpururen margo erakusketa

Bergarako margolariaren lanak Espaloia kafe antzokian egongo dira ikusgai.

Ekainaren 7tik, eguena, hilaren 27ra arte.

ARRASATE

> Xeli Mendizabalen margo erakusketa

Mendizabalek ekainaren

8an, egubakoitza, zabalduko du erakusketa.

Ekainaren 24ra arte, Harresi aretoan.

ANTZUOLA

> 'Patxiku Txerren' lehiaketako lanak ikusgai

Patxiku Txerren ipuin lehiaketako lanak ikusgai jarri dituzte. Lehenengo mailatik hasi eta seigarren mailara arteko neska-mutikoez egindako lanak dira.

Ekainaren 4tik 8ra, 17:00etatik 19:30era, liburutegian.

Hitzaldiak

ARRASATE

> Emakume ala gizon jaiotzeak gure bizitzan duen eraginaz

Nolako eragina du gizon-emakume jaiotzeak gure bizitzan? izeneko tailerra antolatu du Ekin Emakumeak

Elkartek. Mireia Delgado izango da hizlaria, eta izena eman behar da elkartearen egoitzan edo honako zenbakietara deituta: 943 79 83 70 eta 64170 79 36.

Gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:00etara, elkartearen egoitzan.

ESKORIATZA

> 'Crisis total en México' izeneko hitzaldia

Kultura etxean egingo dute hitzaldia, 19:30ean. Horrekin batera, *En la boca del lobo* filma ere emango dute, 22:15ean, Naira tabernan.

Ekainaren 4an, astelehena, Aste Zapatistaren barruan.

ESKORIATZA

> 'Yurre, Chiapaseko indigenekin bizitako esperientziak' hitzaldia

Zaharren egoitzan izango da hitzaldia, 16:30ean. Horrekin

PROPOSAMENA

ESKORIATZA

> XI. Ferixie egingo dute bihar, zapatua

Goizean goiz hasita askotariko ekitaldiak izango dira bihar, zapatua, Eskoriatzako Ferixien barruan. Baserriko produktu eta elikagaiak, artisau postuak eta abereak ere izango dira ikusgai. Horiek izango dira, gainera, azokaren ardatza. Horrekin guztiarekin batera, txorimalo lehiaketa, herri kirolen erakustaldia eta umeendako puzgarriak egongo dira. Eguerdian, berriz, herri bazkaria izango da, pilotalekuan.

Azoka goizean barrena izango da.



nire aukera



Agustin Murillo
Arrasateko Gure Leku
tabernako nagusia

Arrebarenera,
Zudairira

Aste bukaera gutxi izaten ditu libre Agustin Murillok, "tabernak lan handia du-eta", esan digu. Murillok arrebarenera eta libre duenetan hara joatea oso gustuko du. Zapatu goizetan joan ohi da, "egubakoitzetan lan egin behar izaten dudalako". Hara iritsi bezain laster, Urederran barrena ibiltzea du gustuko; baita Urbasa gainean ere. Gero, "lasai bazkaldu eta Zudaireko erreka aldean beste osteratxo bat egitea gustatzen zait, lasai-lasai".

Domekan, Barindanoko Casa Faustinan bapoz bazkaldu eta gero, "etxera buelta".

Zure zaletsun nagusietako
bat zinema dela uste dut.
Film gustukoena?

Bai, oso zalea naiz. 4.000 bat VHS ditut eta DVDak 500-600 bat. Aspaldi hasi nintzen filmen bilduma egiten. Film asko ditut gustuko; bat aukeratzekotan, *El precio del poder*.

Filmak etxeko DVDan ala
zinema aretoan?

Zinema aretoan, duda barik. Baina denbora laburra dudanez joateko, DVDan ikusten ditut.

Musika ere gustatzen zaizu.

Bai, asko. Thin Lizzy oso gustuko dut eta baita Judas Priest ere.

Fetitxista samarra ere
bazara.

Zinema eta musikarekin lotutako gauzak tabernako paretan zintzilik ditut. Esaterako, Red Hot Chili Peppers taldeko bateriaren makilak. Jamen kontzertua egin eta handik ekarri zizkidan Lazkano dendako Igorrek.

Taberna edateko eta
lagunekin egoteko lekua
izateaz gain, izan daiteke...

Gauza asko. Nik, esaterako, kontzertuak antolatzen ditut noizean behin. Horrez gain, billar mahaia, xakerako propio prestatutako bi mahai, partxisa eta abar ditut. Jendea etorri eta tabernan lasai eta entretenituta egoteko moduak dira horiek.

Zinema

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

Diario de un escandalo
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Rebelion en la isla
Domeka: 17:00.

Electroshock
'Gay, lesbiana eta transexual'
zikloaren barruan
Eguena: 20:30.

ELGETA
ESPALOA ANTZOKIA

Sangre facil
Eguaztena: 21:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA

Las vacaciones de Mr. Bean
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR
UNZAGA

Piratas del Caribe
Egubakoitza: 18:30, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00,
20:30.
Astelehena, martitzena eta
eguztzena: 18:30, 22:00.

GASTEIZ
GURIDI

Piratas del Caribe en el fin del mundo
16:15, 19:30, 22:30.

Half Nelson
17:30, 20:00, 22:30.

Alta sociedad
17:30, 22:30.

Spiderman 3
17:00, 19:45, 22:30.

¿Quién dice que es facil?
17:30, 22:30.

El niño del barro
20:15.

La alas de la vida
20:00.

La alas de la vida
17:30, 20:00, 22:30.

Entre mujeres
17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

La caja
17:30, 20:00, 22:30.

Enemigos intimos
17:30, 20:00, 22:30.

El buen hombre
17:00, 19:45, 22:30.

La segunda noche de bodas
17:30, 20:00, 22:30.

Una mujer invisible
17:30, 20:00, 22:30.

Zodiac
18:00, 21:00.

Borrachera de porder
17:00, 19:45, 22:30.

ÁBACO-LAKUA
ZINEMAK

La marca del lobo
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Piratas del Caribe en el fin del mundo
16:00, 18:00, 19:30, 23:00.

Ellas y ellos
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

El novio de mi madre
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Spiderman 3
16:00, 19:00, 23:00.

El numero 23
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Seduciendo a un extraño
18:15, 20:30, 23:00.

Shooter, el tirador
16:00, 19:00, 23:00.

Descubriendo a los Robinsos
16:00.

300
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

YELMO
CINEPLEX-GORBEIA

Entre mujeres
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15,
22:35, 00:35.

Enemigos intimos
12:15, 16:35, 18:35, 20:35,
22:35, 00:35.

Piratas del Caribe en el fin del mundo
Egubakoitza eta zapatua:
16:30, 18:00, 20:00, 21:30,
23:30.
Domeka: 12:15.

Zodiac
Egubakoitza eta zapatua:
17:30, 20:30, 23:40.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:45,
21:45.

Candy
Egubakoitza eta zapatua:
15:45, 17:45, 18:45, 21:45,
23:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 21:45.

El retorno de los

malditos
18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Spiderman 3
12:15, 16:30, 17:30, 18:30,
19:30, 21:30, 22:30, 00:30.

Premonition
20:05, 22:05, 00:05.

El numero 23
20:20, 22:20, 00:20.

La telaraña de Carlota
12:15, 18:35, 17:35.

Un puente hacia Terabithia
12:15.

Tu la letra, yo la musica
12:15, 16:20, 18:20.

Azur&Asmar
12:15, 16:05, 18:05.

Shooter
19:35, 22:05, 00:35.

Seduciendo a un extraño
19:55, 22:15, 00:25.

Las vacaciones de Mr. Bean
12:15, 16:10.

Descubriendo a los Robinsos
12:15, 15:50, 17:50.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO
BOULEVARD

Entre mujeres
16:15, 18:20, 20:30, 22:40,
01:00.

Piratas del Caribe en el fin del mundo
12:00, 15:50, 19:05, 22:25.

Zodiac
Egubakoitza eta zapatua:
16:30, 19:45, 23:00.
Domeka: 12:00, 16:00, 19:05,
22:10.

El retorno de los malditos
12:15, 16:20, 18:20, 20:20,
22:20, 00:30.

Spiderman 3
Egubakoitza eta zapatua:
16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 16:20, 19:10,
22:00, 01:00.

Premonition
12:15, 16:25, 18:25, 20:25,
22:25, 00:30.

Tu la letra, yo la musica
12:00, 17:00.

Cerdos salvajes
12:10, 16:00, 18:10, 20:15,
22:20, 00:30.

El buen pastor
Egubakoitza eta zapatua:
19:15, 22:30.
Domeka: 18:30, 22:00.

Las vacaciones de Mr. Bean
17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.



Zodiac ***

Zuzendaria: David Fincher.

Aktoreak: Jake Gyllenhaal, Robert

Downey Jr., Mark Ruffalo.

AEB. 2007. 158 minutu.

Filmeko momentu batean, San Frantziskoko zine areto baten *Dirty Harry* filma ari dira ikusten protagonistetako batzuk. Clint Eastwoodek ezagun egin zuen pertsonaiaren sorreran zerikusi handia izan zuen *Zodiac* ezizenarekin 1970eko hamarkadan San Frantzisko izutu zuen saileko hiltzaileak. Baina Harryren metodoak ez ziren baliagarriak *Zodiac* harra-patzeko eta, beraz, haren kasua azaltzeko ibilbide luzeagoa –luzeegia agian; 1969tik 1994rako bidaia egiteko bi ordu eta erdi pasatxo– aukeratzen du Fincherrek. Argi dago *Seven* filmaren zuzendariak gustuko dituela egoera eta pertsonaia ilunak.

Esan bezala, filma 1970eko hamarkadan girotuta dago eta San Frantzisko hiriaz gain, protagonismo berezia daukate *Zodiac*-ekin obsesiozko ikertzaileek eta kazetariak. Polizien maila berean dira *The San Francisco Chronicle* egunkarirako lan egiten duten Robert Downey Jr. eta Jake Gyllenhaalen pertsonaiak, *Todos los hombres del presidente*-ko protagonistak gogorra ekarriz. *Zodiac*-ekin obsesio ordainduko dute protagonistek euren bizitzan, eta biktima *kolateralak* bilakatu dira.

Istorioaren jatorrian hilketak egon arren, tentsioa baino erritmo lasaia da nagusi. Hippy mugimenduen sorlekua izan zen hiri ederrean, ba omen zen arantzaxo bat, baina filmak ez ditu *Zodiac*-i buruzko zalantzak argitzen. Horrenbeste buelta ematea beharrezkoa ote zen galdetzen diozu gero zure buruari.

Edu Mendibil

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Cerdos salvajes *

AEB, 2007. Zuzendaria: Walt Becker.
Aktoreak: Tim Allen, John Travolta,
Martin Lawrence.
99 min.

Lau lagunek beren eguneroko errutina albo batera laga eta motoan bidaia bat egitea erabakiko dute. Bidean motorzale gaizto batzuekin egingo dute topo.

Despues de la boda ***

Danimarka-Suedia, 2007. Zuzendaria: Susanne Bier. Aktoreak: Mads Mikkelsen, Rolf Lassgard.
120 min.

Jacobek urteak daramatza Indiako kalako umei laguntzen. Egun batean, negozio gizon aberats baten eskaintza jasoko du. Lau milioi dolar eskainiko dizkio.

El infierno ***

Frantzia, 2006. Zuzendaria: Danis Tanovic. Aktoreak: Emmanuelle Beart, Karin Viard, marie Gillian, Guillaume Cenet, Jacques Gamblin.
101 min.

Hiru ahizpak oso modu ezberdinean bizi dituzte haurtzarozan izandako gertaera batzuk. Ama elbarriari egindako bisitak tragedia ilun bat azaleratuko du.

El numero 23

AEB, 2007. Zuzendaria: Joel Schumacher. Aktoreak: Jim Carrey, Virginia Madsen, Danny Huston.
95 min.

Walter Sparrow makinaz idatzitako liburu bat aurkituko du. Han bere bizitzarekin eta inguruan duen jendearekin antz handia duen istorio bat aurkituko du, eta amesgaizto baten sartuko da.

300 ***

AEB, 2004. Zuzendaria: Zack Snyder. Aktoreak: Gerard Butler, Rodrigo Santoro, Lena Headey.
115 min.

V. mendea Kristo aurretik. Pertiaki inperioak errenditzeko eskatu dio Greziako konfederazioari. Atenas eta beste hiri estatuak ez daude ados horrekin. Espartako erregeak persiarrei aurre egitea erabakiko du, 300 soldadu indartsuarekin. Filma Frank Millerren komikian dago oinarritua.

Tu la letra, yo la musica **

AEB, 2007. Zuzendaria: Marc Lawrence. Aktoreak: Hugh Grat, Drew Barrymore.
109 min.

Alex Fletcher abeslari ospetsua izan zen 1980ko hamarkadan, baina, egun, besterentzat egiten ditu kantuak. Abesti bat entregatu behar du, baina ezinean dabil. Neska batek landareak zaintzen dizkio, eta hari eskatuko dio laguntza.

Sunshine **

AEB, 2007. Zuzendaria: Danny Boyle. Aktoreak: Chris Evans, Cillian Murphy, Rose Byrne.
100 min.

Bost urte barru, eguzkia itzali eta gizakia desagertu egingo da. Azkeneko itxaropena espaziantzi bat bidaltzea da, bertan zortzi gizon eta emakume bat daudela.

Descubriendo a los Robinsos ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrakzi bizidunak.
102 min.
Lewisek etorkizunetik datorren mutil

misterioz bat ezagutuko du: Wilbur Robinson. Biek denboran bidaia egingo dute.

Spiderman 3 *

AEB, 2007. Zuzendaria: Sam Raimi. Aktoreak: Tobey Maguire, Kirsten Dunst, James Franco, Thomas Haden Church.
139 min.

Parkerrek oreka aurkitu du Mary Janeren maitasunaren eta superheroi eginbeharren artean. Baina, ekaitz baten ostean, haren trajea aldatu egingo da. Botereak handituko ditu, eta haren alde ilunena azaleratuko da.

El buen pastor ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Robert de Niro. Aktoreak: Matt Damon, Angelina Jolie, William Hurt, Joe Pesci, Alec Baldwin.
160 min.

Robert Wilson gazte idealista bat da, Margaretekin ezkondu berria. AEBetako Zerbitzu Estrategikoen Agentzian sartuko da. CIAren aurrekoan, Wilson denborarekin gero eta hotzagoa bilakatuko da, eta horrek bere bikote bizitzan eragin kaltegarria izango du.

¿Quién dice que es facil?

Argentina-Espainia, 2007. Zuzendaria: Juan Taratuto. Aktoreak: Diego Peretti, Daniel Bebinovich, Andres Pazos.
91 min.

Gizon obsesibo eta bakarti batek apartamentua alokatuko dio haurdun dagoen argazkilarri bati. Bien artean harreman berezia sortuko da. *No sos*

vos, soy yo filmaren sortzaileena da komedia erromantikoa hau.

El ultimo show

AEB, 2006. Zuzendaria: Robert Altman. Aktoreak: Meryl Streep, Woody Harelson, Lily Tomlin.
105 min.

Fitzgerald Theater antzoki zaharra botatzekotan dira, eta han country musikako irratsaio baten azken emaldia egitekotan dira.

El velo pintado

AEB-Txina, 2007. Zuzendaria: John Curran. Aktoreak: Ed Norton, Naomi Watts, Liev Schreiber, Toby Jones.
125 min.

Kitty gazte britainiar bat da. Familia ingurutik ateratzeko, Walter medikuarekin ezkonduko da. Shanghaira joango dira, eta han Kitty AEBetako gizon batekin maiteminduko da. Baina senarra haien arteko harremanaz ohartuko da.

Seduciendo a un extraño **

AEB, 2007. Zuzendaria: James Foley. Aktoreak: Bruce Willis, Hale Berry.
109 min.

Nowena Priceren txikitako laguna hil dute eta ez dute hiltzailea aurkitu. Nowena bere kabuz ikertzen hasiko da.

La faille

AEB, 2007. Zuzendaria: Gregory Hoblit. Aktoreak: Anthony Hopkins, Ryan Gosling.
110 min.

Distrituko fiskalaren laguntzailea nora ezean dabil, eta txakurraren eta katua-ren jokoan sartuko da. Izan ere, haren emaztea hiltzen ahalegindu zen gizona aske geratuko da.

Bi anaia aktore Madrilen

TELEBISTAN Aitor Luna eta Jon Gonzalez anaia bergararrak, Antena3 kateko telesail arrakastatsuetan

MADRILEN Aitor Lunak hiru urte darama Madrilen: 'Los hombres de Paco'-ko protagonistetako bat da

ANAIA GAZTEA Jon Gonzalezek 21 urte ditu eta 'SMS' eta 'El internado' telesaila ditu lehenbiziko esperientziak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Batak amaren abizena darama eta besteak aitarena. Aitor Luna eta Jon Gonzalez bergararrak anaia dira, eta biak Antena3 katean ikus ditzakegu: Lunak Gonzalo Montoyaren rola egiten du *Los hombres de Paco* arrakastatsuan eta Gonzalez dugu estreinatutako berri den *El internado* telesailiko protagonistetako bat. Intrigazko telesail horretan, Ivan misteriotsua da Gonzalez.

MADRILEN GUSTURA

Aitor da anaia nagusia, 26 urte-ekin. Hiru urte darama Madrilen. Hara joan aurretik *Goenkale*-n hartu zuen parte: "Txikitatik argi neukan aktore izan nahi nuela: Donostian eta Bilbon egin nituen ikasketak eta *Goenkale*-n urtebetez egon nintzen. Madrilerako deskonektatzera etorri eta *Los hombres de Paco*-n aritzeko aukera suertatu zitzaidan. Giro aparta dago lantaldean eta telesailak harrera bikaina izan du. Hori dela eta, filma egingo dugu oraingo udan. Abuztuan hasiko gara fil-

matzen". Aitorrek dio oraindik bera baino zorte handiagoa duela anaia. Jonek 21 urte dauka eta *La Sextako SMS* eta *El internado* izan dira bere lehen esperientziak. Antena3 katearen apustu handienetako bat da *El internado*: "Ekainera arte zazpi atal grabatuko ditugu, eta, erritmoa gogorra izan arren, asko gozatzen ari naiz. Nire kasuan, lana da eskolarik onena. *Casting* batera aurkeztu eta hemen nabil", diosku Jonek.

Bi anaia elkarrekin bizi dira, Chamberin; bata zein besteari hauxe eskatu diogu: anaia bertuterik handiena esateko. Aitorrek zera dio: "Oso naturala da Jon, eta beti ondo ikusten dut, nahiz eta berak ikusten dizkiodan akatsak esateko eskatu. Dena ematen duen horietakoa da". Eta Jonek: "Aitorren pertsonaia ez dauka zerikusirik bere izaerarekin, eta, hala ere, erabat sinesgarri egiten du". Eguaztetenan eta eguinetan jarraitzaile ugari dituzte, familiakoak eta lagunak tartean.



'EL INTERNADO' Estreinatutako berri duten telesailiko protagonistetako bat da Jon Gonzalez (zutik).

MANUEL J. ALCAZAR (GLOBOMEDIA)

ahobero

"New Yorkera joan eta zera nahi dut: ez diezadatela esan Almodovarren eta Zapateroren Espainiakoa naizela"

Curri Valenzuela
> Kazetaria

Auskalo zein Espainiarekin nahi duen Currik estatubatuarrek identifikatzea. AEBetan hain estimatua den Aznaren Espainiarekin agian?

iturri onetik

Juanjo Novella eskultorearen lan bat jarriko dute Antzuolan

Novella eskultorearen lan bat Kalegoin jartzeko aukera aztertzen dabil Antzuolako Udala. Laster bukatuko dituzte Kalegoiko 1. eta 3. zenbakietan etxeak eraikitzeko lanak. Era berean, eraikinaren ondoko gunek hobetu nahi ditu Udalak, eta, musika gai moduan hartuta, Novella eskultorearen lan bat jarriko dute. Altzairu-karbonozko bi metroko piezak 20.000 euro inguruko aurrekontua du.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Alkate euskaradunak

Debagoienean ezin gara asko kexatu, kolpe batean esango nuke alkate izateko zorian diren guztiak euskaradun ganorazkoak ditugula. Ez da adierazle makala, hizkuntza normalkuntzara bidean ibarrak burutua duen lanarena.

Ze, oro har, ez da broma nola alderdiek pentsa dezaketen liderrek ez dutela bete behar hizkuntza eskakizunik. Hain zuzen, alkateez ari garela, munduko hiriburu bakarra alkate euskaraduna duena Estatu Batuetan dago, Boise da. Ez da hemen inor lotsatzen?

Egoera hau alda daiteke Nafarroako hiriburuan, azkenean Uxue Barkosek alkatetza lortzen badu. Ikaragarri gustatuko litzaidake hain juxtu Iruñean hastea hizkuntzarekiko joera lotsagarri hau aldatzen, eta emakume baten eskutik. Aro berri baten hastapena balitz?

ai, ene!



Bizkarrezurreko arazoen agur esateko modua

Badira gauza guztiei etekina ateratzen dakitenak. Hala ere, medikuaren kontsultan hobe horrelako lanpararik ez ikustea...

<http://tinyurl.com/2n5rjm>

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde, armairu eta bainugelaren erakusketa handiena

Armeko
Sukalde Integrala

31 sukalde baino gehiago ikusgai
600 m2 baino gehiagoko erakusketa
Europako lehen markak

KSM talde laneran indarra

K S M GROUP

VENTANAS AISLANTES
MUEBLES COCINA - BAÑO

Orduetgia: 10 - 13 eta 16 - 19:30 . Larunbatak: 10 - 13

25 urte zurekin

Fabrikazio eta muntaia profesionala
Aurrekontuak eta aholkularitza konpromisorik gabe

YOSU THERMIK
LEIHO ISOLATZAILEAK

Merkatuko prezio hoberenak

Kataide Poligonoa 4 - ARRASATE - 943 770157

Kalitate-prezio erlazio paregabea